

***TOKIKO
IRAUNKORTASUNAREN
DIAGNOSTIKOA***

DURANGO



2006ko apirila

DIAGNOSTIKOAREN OSAKETAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK

Durangoko Udala

Juan Jose Ziarrusta Campo. Alkatea
Aitziber Irigoras Alberdi. 1go alkateordea
Ander Gorrotxategi Legarra. 2. alkateordea
Juan José Agirre Barrueta. 3. alkateordea
Sara Oveja Salazar. Zinegotzia
Maria José Balier Orobiourrutia. Zinegotzia
Juan Ignacio Martínez Orea. Zinegotzia

Aitor Larruzea. Tokiko Agenda 21en teknikari koordinatzailea

Beste Administrazio eta Erakundeak

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE A.B.
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saila
Mendien eta Ingurumen Naturalaren Zuzendaritza
Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saila
Errepideen Zuzendaritza Orokorra
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila
Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketarako eta Ingurumen Saila
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
Biodibertsitate Zuzendaritza
Ingurumenaren Planifikazio, Parte-hartze eta Kontrol Zuzendaritza
Uraren Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Energiaren Euskal Erakundea
Iberdrola SA
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Laguntza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, SA

Julen Rekondo. Teknikaria
Carlos Alonso. Teknikaria
Arkaitz San José. Teknikaria
Ibon Zugasti. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria
Olatz Errazkin. Teknikaria

AURKIBIDEA

0. SARRERA	4
0.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21	4
0.2. Diagnostikoaren aurkezpena	6
1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA.....	8
1.1 Biztanleriaren garapena	8
1.2. Biztanleriaren egitura	10
1.2.1. Biztanleriaren egitura adinaren arabera	10
1.2.2. Biztanleriaren egituraketa generoaren arabera	11
1.3. Berezko mugimendua eta migratzailea	12
2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA.....	15
2.1. Jarduera eta egitura ekonomikoa	15
2.2. Sektore ekonomikoak	16
2.3. Lan merkatua eta enplegua	20
3. GIZARTE EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA.....	22
3.1. Laguntza, gizarte ongizatea eta zerbitzu sozialak	22
3.2. Osasun zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna	25
3.3. Etxebizitza	25
3.4. Hezkuntza eta kultura.....	26
3.4.1. Eskolatze mailaren garapena	26
3.4.2. Eskolatze maila generoaren arabera	27
3.5. Euskara.....	28
3.6. Gazteriaren egoera	29
4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA	31
4.1. Ingurune fisikoa eta naturala	31
4.1.1. Geologia, klima eta hidrologia	31
4.1.2. Flora eta fauna	37
4.1.3. Paisaia eta ekologia intereseko guneak	43
4.1.4. Paisaiaren eta biodibertsitatearen mantenuan eragina duten ekimenak.....	43
4.2. Lurralde antolaketa eta planifikazioa	45

4.2.1. Lurraldean Antolaketarako Artezbideak (LAA) eta Lurraldearen Zatikako Plana	45
4.2.2. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana	47
4.3. Hiri Egitura eta Planeamendua	49
4.4. Ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa	57
4.5. Mugikortasuna eta garraioa	60
4.5.1. Azpiegiturak: ezaugarriak eta proiektuak	60
4.5.2. Hiribarneko eta hiri arteko mugikortasuna	64
4.5.3. Irisgarritasuna	67
5. INGURUGIRO SEKTOREAK.....	68
5.1. Uraren ziklo osoa	68
5.1.1. Uraren hornikuntza, kalitatea eta kontsumoa	68
5.1.2. Uraren saneamendua eta arazketa.....	71
5.2. Atmosferaren eta akustikaren kalitatea	73
5.2.1. Igorpen atmosferikoak eta airearen kalitatea	73
5.2.2. Hotsa eta akustikaren kalitatea	77
5.3. Energia.....	80
5.4. Lurzorua.....	83
5.4.1. Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa	83
5.4.2. Jardute aukerak	84
5.5. Hondakinen kudeaketa	86
5.5.1. Hiriko hondakinak	86
5.5.2. Hondakin industrialak eta arriskutsuak	94
5.6. Jardueren ingurumen eragina eta arriskua.....	95
5.6.1. Jarduera ekonomikoen ingurumen eragina.....	95
5.6.2. Arrisku natural eta industrialak eta arriskuaren kudeaketa	98
6. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA	101
6.1. Gizartea eta hiritarren parte-hartzea.....	101
6.2. Ingurumen informazioa eta sentsibilizazioa	101
6.3. Udal egitura.....	103
6.3.1. Udalbatzaren osaketa	103
6.3.2. Udalaren ingurumen aurrekontua	104
6.4. Herritarren ingurumen pertzepzioa	105

7. DURANGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA, ONDORIOAK ETA INTERPRETAZIOAK.....	118
7.1. Diagnostikoaren Laburpena.....	118
7.2. Ondorioak	126
7.3. Interpretazioak	130

0. SARRERA

0.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21

Hiriek edota herriek beti ezarri eta islatu dituzte balore nagusiak zibilizazioen baitan. Historiaren aro ezberdinetan ere garapen ereduak hiri gizarteetatik ezartzen etorri dira.

Udalek ingurumen gaietako kudeaketan, betebeharretan eta arduretan duten garrantziaren errekonozimenduak berezko lege-arauak gainditzeko, bereziki herri aurreratuenetan.

Tokiko Agenda 21 kontzeptua Rio de Janeiron (Brasil, 1992ko ekaina) sortu zen, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian edo "Lurreko Goi bileran". Gailur horretan "Agenda 21" (edo Programa 21) onartu zen, Garapen Iraunkorra lortzeko bidean ekintza-plan orokorra. Agenda 21en 28. atalak "Agenda 21 babesteko Tokiko Agintarien Ekimenak" izena du eta hauxe dio:

- *1996rako, herrialdeetako herri-agintari gehienek beren komunitaterako "Tokiko Agenda 21"ri buruzko galdeketa-prozesua gauzatu beharko lukete beren herrietan.*
- *Herri-agintari bakoitzak elkarri eskatzen duen erantzunaren arabera, herri-erakundeekin eta enpresa pribatuarekin eta Tokiko Agenda 21 zabaldu behar du.*

EB-ko Ingurumen Arloko VI. Ekintza Programak ere ("Garapen Iraunkorra lortzeko bidean") herri-agintariak animatzen ditu zentzu bereko ekimenak garatzeko (3. eta 5. kapituluak).

1994ko maiatzean, ICLEI (The International Council for Local Environmental Initiatives), 600 pertsona baino gehiago bildu ziren Danimarkako Aalborg hirian, besteren artean: Europako tokiko agintaritzetako ordezkariak, nazioarteko erakundeak, gobernu nazionalak, zentro zientifiko aholkulariak eta partikularrak. Europako Hiri Iraunkorren Lehen Biltzar honetan, Iraunkortasunera iristeko Hiri Europarren Gutuna heldu eta sinatu zen, egun, Aalborg-eko gutuna bezala ezagutzen dena.

Gutunean, atxikidura azaldu zutenen artean borondatea azaltzen zen Tokiko Ekimen Plana edo Tokiko Agenda 21 idazteko, honek ekimen eta estrategia bateratuak eskatzen zituen, modu honetan hiriak XXI. mendean iraunkortasunerantz eramanez.

Aalborg-eko gutuna hedatzeko lehen denbora bat pasa eta gero, beharrezkoa zen ekintzara pasatzea, eta horrela, Lisboan, 1996an, Iraunkortasunera iristeko Hiri eta Herrien Bigarren Biltzarra iragarri zen, non lanerako hamabi puntu adostu eta sakondu ziren Tokiko Agenda 21en idazteko prozesuan eta beraien ezarpenean. Urte berean, Istanbulen iragarritako Nazio Batuen Biltzarrak Gizakiaren Kokalekuaz (Habitat II) aritu zen, bertan pertsona guztiek etxebizitza duin bat izateko eskubideaz eztabaidatu zen

eta gizakien kokalekuen garapen iraunkorraz, honek Agenda 21ren printzipioak bere hartu zituen.

2000ko otsailean, Hannover-en izan zen Iraunkortasunari buruzko Europako Hiri eta Herrien III. Biltzarra, bertan 1400 pertsonak hartu zuten parte, autoritate nazionalen ordezkariak, eskualdekoak eta tokikoak, unibertsitateak eta Tokiko Agenda 21eko prozesuetan inplikaturik dauden beste hainbat entitatek.

2004ko ekainean, berrogeita bost herrialdetako mila politikarik, teknikari adituek, gobernuz kanpoko erakundeetako nahiz tokiko administrazioetako ordezkariak Aalborg-eko Konpromisoak sinatu zituzten Aalborg+10 Herri eta Hiri Iraunkorren Konferentzian. Aipatu Konpromiso horiek hiriko iraunkortasunaren arlo ezberdinei lotuta daude; eta tokiko gobernuek helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak identifikatzen lagundu behar dute 10 urte lehenago zehaztutako printzipioak finkatzeko.

Euskal eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babeserako 3/98 Lege Orokorrak Udalerriek iraunkortasunean oinarritutako estrategiak hartzea onartzen du, beti ere gai urbano guztien inguruan ikuspuntu orokor bat izanaz.

Azken urteetan Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailerik batik bat Tokiko Agenda 21eko prozesuak sustatu dira euskal udalerrietan, zentzu honetan egin diren ekimenetatik honakoak nabarmendu daitezke:

- “Tokiko Agenden antolakuntzarako Gida Europarra” –ren Itzulpena, argitalpena eta banaketa.(ICLEI Gida)
- Urtero Udaletxeentzako diru-laguntza deialdiak Ingurumen Ekimen Planak eta prozesuak sustatzeko.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesuak Sustatzeko Programa 2000-2003”.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 garatu eta ezartzeko Gida praktikoaren” argitalpena.
- EUDEL-ek, IHOBE-k eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako UDALTALDE 21 Proiektua; EAEko 9 udalerrietan Tokiko Agenda 21en gaineko proiektu-piloteak ezartzeko.
- UDALTALDE 21 eskualde mailako Lan Taldeak garatzea; Mankomunitateak, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Foru Aldundiekin lankidetzan.

Gaur egun, 200 udalerrri baino gehiago eta 22 UDALTALDE 21 inplikaturik daude Tokiko Agenda 21en ezarpenean. Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategian (2002-2020) 2006. urterako ondoko konpromisoa biltzen da: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea da, banaka edo eskualdeka.

2004ko Azaroan Durangoko Merindateko Amankomunazgoak, Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa den IHOBEk eta Bizkaiko Foru Aldundiak

kolaborazio hitzarmena sinatu zuten *DURANGALDEKO UDALTALDE 21* lan taldea martxan martxan jartzearen. Lan taldea ondoko udalerriez osatua aurkitzen da: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar. Garai beranduago barneratu zen lan talde honetan.

0.2. Diagnostikoaren aurkezpena

Aurkezten den Iraunkortasunerako Diagnosi hau pertsona askoren arteko lanaren ondorio bat da, administrazio ezberdinen, enpresa publiko zein pribatuen, eta entitate nola herritarren lankidetzarekin batera. Diagnosi hau 2005ko Abenduaren eta 2006ko Martxoa bitartean egin da.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoak, iraunkortasun irizpide eta modu integratzaile batean aztertzen du egungo egoera. Analisi honetatik abiatuz, Ingurumen Diagnostika egiten da, eta hau Ingurumen Ekintza Plana definitu eta eraikiko duen oinarria izango da. Baina Planak ez du espero den jo muga bakarrik izan behar, baizik eta Tokiko Agenda 21aren prozesuaren abiapuntua ere beharko du izan.

Tokiko Agenda 21 konpromisozko dokumentu bat nola gerorako proiektu bat izango da, eta bertan gobernariak, herritarrak eta biltzen diren entitateak, beraien Udalerriko garapen iraunkorra lortzearen oinarriak jarriko dituzte.

1987an iraunkortasunaren kontzeptua iritzi publikoari aurkeztu zitzaion lehendabizikoz. Gro Harlem Brundtland andereak koordinaturiko informe batean, Ingurumen eta Garapenaren Munduko Batzordeak eskatuta, gizateriaren geroa garapen iraunkorrari erabat atxikita azaltzen da, hau da, gizarteak egungo beren beharrak ase behar baditu ere ondorengo generazioen beharrak konprometitu gabe izan beharko da.

Ondoko Diagnosi hau kapitulu ezberdinetan zatikatzen da ondoko gai esparruen arabera:

- Demografia eta biztanleria
- Ekonomia eta enplegua
- Gizarte ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna
- Lurraldea, antolaketa eta hirigintza
- Ingurugiro sektoreak
- Udal egitura eta udalerriko gizarteak

Azken Kapituluan, gai esparru bakoitzeko ondorioak aurkezten dira.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa *DURANGALDEKO UDALTALDE 21* Lan Taldeak egin du Udaleko arduradun politiko eta teknikoen zuzendaritzapean eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuen teknikarien eta enpresa publiko zein pribatuen elkarlanean. Horretarako, eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzea eta INGURUNE S.L. eta PROSPEKTIKER S.A. Aholkularitzen Laguntza Teknikoa kontuan hartu da.

1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA

1.1 Biztanleriaren garapena

10,79 km² -ko azalerarekin eta 26.900 biztanlerekin (2005ean) Durangok Ibaizabal ibaiaren ezker ertzean dagoen eremu irekia hartzen du. Bizkaiko hiriburua den Bilbotik 30 km ekialdera, Donostiatik 69 km mendebaldera, Vitoria-Gasteiztik 45 km iparraldera, Durango estrategikoki Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) baitan kokatzen da. Durangaldearen baitan kokatzen da eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren zentro-hego-ekialdera dago; honako udalerriekin egiten du muga: iparraldera Iurretarekin, hegoaldera Izurtza eta Mañariarekin, ekialdera Abadiñorekin eta mendebaldera Dima, Iurreta eta Amorebietarekin.

Durangoko udalerria eskualdeko burua da. Ikuspegi demografikotik, biztanle gehien dituen udalerria da.

1. Taula. Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea. 2001.


Udalerria	Biztanleak		Km ²	Dentsitatea
	Zenbakia	% Durangaldea		
Abadiño	6.843	12,7	36,1	189,6
Atxondo	1.427	2,7	23,2	61,5
Berriz	4.312	8,0	30,1	143,3
Durango	25.003	46,5	10,79	2.315,10
Elorrio	7.157	13,3	37,2	192,4
Garai	252	0,5	7,1	35,5
Iurreta	4.144	7,7	19	218,1
Izurtza	266	0,5	4,3	61,9
Mañaria	453	0,8	17,6	25,7
Otxandio	1.017	1,9	12,4	82
Zaldibar	2.877	5,4	11,8	243,8
Durangaldea¹	53.751	100	236	227,7
BIZKAIA	1.122.637	—	—	506,3

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta

¹ Estatistika hau EUSTATEk definitutako Durangaldea eskualdeari dagokio, alegia, bertan barnebiltzen dira Amorebieta-Etxano, Bedia, Ermua, Lemoa eta Mailabia eta kanpo uzten da Otxandio.

Azken bi hamarkadetako biztanleriaren garapenak gaur egun arte mantentzen den goranzko joera erakusten digu, jarraian ikusiko dugu jaiotze-tasaren igoerak eragin duela hori eta baita izan diren migrazio mugimendu positiboek ere, bai barne mailakoek (eskualdekoak bertakoak) eta baita kanpokoek ere (Estatutik eta baita atzerritik ere). 2005eko abenduan Durangoko biztanleak 27.085 ziren.

1. Grafikoa. Biztanleriaren garapena. Durango.



Iturria: Durangoko Udalaren datutan oinarritua. Udal Errolda

Biztanleriaren dentsitatea kilometro karratutako bizi den biztanle kopuruari dagokio. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, Durangoko biztanleria haziz joan da azken urteetan, ondorioz, biztanleriaren dentsitatea handitu egin da, alegia, urtez urte eremu beran pertsona gehiago bizi direla. Zehazki, 2001-2005 epealdian izandako biztanleriaren dentsitatearen hazkundea %34koa izan da.

2. Taula. Biztanleriaren dentsitatearen garapena. Durango.

URTEA	Biztanleak	Dentsitatea (Bzt/Km ²)
2001	25.003	1.655,8
2005	27.085	2.510,2

Iturria: Udal Erroldan oinarritua.

1.2. Biztanleriaren egitura

1.2.1. Biztanleriaren egitura adinaren arabera

2005ean Durangoko biztanleriaren egitura adinaren arabera modu honetan osatzen zen: biztanleriaren %19,22^a 19 urtetik beherako pertsonak ziren, %64,92ak 20 eta 64 urte artean zituzten eta %15,86ak 65 urte edo gehiago zituzten.

3. Taula. Durangoko biztanleriaren egitura. 2005.

Adina	Biztanleak	%
0-19	5.207	19,22
20-64	17.583	64,92
65 edo >	4.295	15,86
GUZTIRA	27.085	100

Iturria: Durangoko Udalak emandako datuetan oinarritua. Udal errolda.

Biztanleriaren egitura adinaren arabera aztertuta, ikus dezakegu 19 urtetik beherako taldea pixkanaka eta progresiboki gutxitzen ari dela, aldiz, 64 urtetik gorako biztanleriaren garrantzia erlatiboa hazi egiten da eta 20 eta 65 urte artekoenak pixkanaka garatzen jarraitzen du. Datu hauek erakusten dute orain arte lan egiteko adinetik kanpo zen biztanleriak hartzen duen garrantzia, etorkizunean areagotuko den garrantzia.

Zehatzago esanda, Durangok zahartutako biztanleriaren indize handiagoa du eskualdearekin alderatuz gero, aldiz, gaur egun, gaur egun biztanleria ez horren zahartua du Bizkaiarekin edo EAErekin alderatuz gero, biztanleria gazte (0-19) handiagoa baitu.


4. Taula. Adin talde handien arabeko biztanleriaren garapena.

	Adina	1986	1991	1996	2001
EAE	0 - 19	29,9	25,5	20,6	18,1
	20 - 64	59,7	61,9	64,0	64,9
	>= 65	10,4	12,6	15,3	17,0
Bizkaia	0 - 19	29,5	25,2	20,4	17,7
	20 - 64	60,0	62,1	64,0	64,7
	>= 65	10,4	12,7	15,7	17,6
Durangaldea	0 - 19	31,6	27,0	22,0	19,5
	20 - 64	59,3	61,7	63,9	65,1
	>= 65	9,4	11,3	14,0	15,4
Durango	0 - 19	31,0	26,6	22,1	19,3
	20 - 64	59,7	61,8	64,0	64,5
	>= 65	9,3	11,5	13,9	16,2

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Udalerriaren egituraren garapenak 1996-2005 aldian erakusten du biztanleriaren zahartze joera dagoela eta aldaketa sakonak ematen ari direla biztanleriaren adinkako egituraren osaketan. Zehazki, biztanleria gazteenaren indizea hiru puntu gutxiagotu da, biztanleria zaharragoa 2 puntutan hazi den bitartean.

2. Grafikoa. Adin taldeen arabeko biztanleriaren banaketa. Durango.



Iturria: Udalaren datuetan oinarritua. Udal errolda.

1.2.2. Biztanleriaren egituraketa generoaren arabera

Durangoko biztanleria modu honetan osatzen da generoaren arabera:

5. Taula. Biztanleriaren banaketa generoaren arabera.

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Guztira	%	Guztira	%
Durango	13.667	51,08	13.094	48,92

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua. Udal errolda.

Esan dezakegu emakumezkoen kolektiboa gailentzen zaiola gizonezkoenari. Gainontzeko lurraldeekin alderatuz gero, Durangon bezala eskualdean, herrialdean eta EAEn emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira.

6. Taula. Biztanleria lurraldearen eta sexuaren arabera. 2004-XII-31.

	Biztanleria eguneratua				
	Guztira	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
		Guztira	%	Guztira	%
Euskal AE	2.124.846	1.040.525	48,96	1.084.321	51,04
Bizkaia	1.136.181	552.297	48,60	583.884	51,4
Durungaldea	92.796	46.257	49,84	46.539	50,16
Durango	26.511	12.962	48,89	13.549	51,11

Iturria: EUSTATEN datuetan oinarritua.

Bestalde, biztanleriaren banaketa adin taldeen eta generoaren arabera antolatzen badugu, udalerriaz hartzen dugun ikuspegia honakoa da:

7. Taula. Adin taldeen eta sexuaren arabeko biztanleria. 2005.

ADINA	EMAKUMEZKOAK		GIZONEZKOAK		GUZTIRA	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
0-19	2.569	18,79	2.544	19,45	5.113	19,10
20-64	8.657	63,3	8.719	66,6	17.376	64,9
≥ 65	2.441	17,86	1.813	14,0	4.272	15,96

Iturria: Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseiluaren datuetan oinarritua.


Azpirarratu behar da 65 adin taldean dagoela ezberdintasun nagusietan, adin talde horretan emakumeak gizonak baino gehiago baitira. Ondorioztatu dezakegu, adinean aurrera egin ahala gizonezkoen aurrean emakumezkoen kopurua handiagotu egiten dela.

1.3. Berezko mugimendua eta migratzailea

Berezko mugimendua

Udalak emandako datuen arabera, 1996-2003 aldian 1.614 izan ziren jaiotzak eta 1.106 heriotzak. Datu hauek erakusten dute berezko hazkundera aldi horretan +508koa izan dela. Beraz, berezko hazkunde tasaren datuen analisitik joera positiboa ondorioztatzen da.

3. Grafikoa. Berezko hazkundearen garapena. Durango.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Mugimendu migratzailea

Durangoko biztanleriaren osaketa aztertu asmoz, hurrengo taulan biztanleria jaiotze lekuaren eta garaiaren arabera banatu dugu:

8. Taula. Biztanleria jaiotze lekuaren eta garaiaren arabera. Durango.

	1986	1991	1996	2001
Guztira	27.152	22.627	23.909	25.003
Araba	236	220	231	241
Bizkaia	18.738	15.993	17.003	17.986
Gipuzkoa	830	867	1077	1176
Beste probintziak	7.129	5.325	5.301	5.165
Atzerria	219	222	297	435


Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Ikus dezakegu Durangoko pertsona gehienak bizkaitarrak direla. Bestalde, nabari dugu beste herrialdeetatik etorritako pertsona kopurua (EAEtik kanpokoena) gutxituz joan dela urteak pasatzearekin bat. Aldiz, urtez urte hazi egin da udalerrian ezarri den atzerriar kopurua.

Mugimendu migratzaileaz ari garenean administratiboki definituta dauden bi eremu geografikoren artean ematen den bizileku ohikoaren aldaketaz ari gara; zentzu horretan, migrazioak beti bi ekinbide ditu sortzez, emigrazioa edo bizileku duen lekua bertan behera uztea, eta immigrazioa edo beste zonalde baten bizitzen hastea. Barne migrazioa abiapuntua eta helmuga EAEko udalerri banatan duenean deitzen zaio. Kanpo migrazioak dira EAE eta Estatuaren edo atzerriaren artean ematen direnean mugimenduak.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, migrazio saldoa positiboa izan da laurogeita hamargarren hamarkadan eta mende berriaren hasieran, alegia, immigrazioa emigrazioa baino handiagoa izan da. Honek eragin nabaria du biztanleriaren hazkundean. Zehazki, 2001-2003 urteetan kanpo migrazioen saldoa modu nabarian hazi da.

4. Grafikoa. Migrazio saldoak eremuaren eta garaiairen arabera.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Durangoko Udalak 2005ean egin zuen “Durangoko biztanleria atzerritarraren inguruko azterketa” dokumentuaren aurrerakinean jasotako datuek azaldutakoa berresten dute. Zehazki, azken lau urte eta erdian Durangon erroldatutako atzerritar kopurua bost aldiz biderkatu da ia ia (%498,99), 2000. urtearen amaieran 199 pertsona atzerritar erroldatu izatetik 2005ean 993 izatera. Gainera, biztanleria atzerritarraren hazkundeak berarekin ekarri du udalerrian presente diren naziotasunen ugaritzea, 1996an 26 ziren eta 2005ean 64. Durangon presentzia gehien duten naziotasunak hauek dira: Ekuador, Errumania, Kolonbia, Bolivia, Maroko eta Brasil.

Durangon erroldatuta diren pertsona atzeritarren generoari dagokionez, 2005ean erroldatuta zeuden 993tik %46,7a emakumeak eta %53,27a gizonezkoak zirela azpimarratu behar da. Afrika beltzeko nazioetako jatorria dutenen %74,65 gizonezkoak dira, Europa ez komunitariokoen artean %60,17 dira gizonak, Magrebekoen %72,48 eta Europar Batasunekoak direnen %74,49. Azpimarragarriak dira datu hauetan Maroko, Portugal, RU, Ghana, Mali edo Senegal. Aldiz, emakumezkoen presentzia handiagoa da Latinoamerikako kolektiboan (%56,31). Naziotasun feminizatuenen artean azpimarratu ditzakegu Argentina, Brasil, Kolonbia, Peru eta Uruguay.

2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA

2.1. Jarduera eta egitura ekonomikoa

Udalerri baten garapen ekonomikoaren maila, besteak beste, biztanleko udalerriaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) arabera neurtzen da, garai zehatz batean eremu geografiko batek duen aberastasun maila neurtzen duen indikatzailea.

9. Taula. Biztanleko errenta gordina lurralde eremuen arabera (eurotan) 2001.

	Errenta biztanleko	Indizea
Euskal AE	10.823	100
Bizkaia	10.571	98
Durangaldea	10.478	97
Durango	11.375	105

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Durangoren kasuan, udalerriko biztanleko BPG 2001ean bere ingurunean baino altuagoa zen, zehazki, EAEkoa baino 5 puntu gehiago, Bizkaikoa baino 7 puntu gehiago eta Durangaldeakoa baino 8 puntu gehiago.

Sektore ekonomikoen garrantzia aztertzerakoan, gehienez erabili ohi diren indikatzaileak hauek dira: balio erantsi gordinaren banaketa eta biztanleria landuna jarduera sektoreen arabera.

10. Taula. Egitura ekonomikoa. Balio Erantsi Gordinaren banaketa (%).

	1996	2000
Lehen sektorea	0,1	0,1
Industria	37,9	30,0
Eraikuntza	8,9	18,6
Zerbitzuak	53,1	51,3

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

11. Taula. 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna lurralde eta jarduera eremuaren arabera.2001.

	Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Euskal AE	100,0	1,8	27,5	8,7	62,1
Bizkaia	100,0	1,5	23,6	9,3	65,6
Durungaldea	100,0	1,1	43,8	6,9	48,1
Durango	100,0	0,6	38,9	5,1	55,4

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Aurreko tauletan ikus daitekeen moduan, zerbitzuen sektorea da Durangon nagusi, bai balio erantsiari dagokionez eta baita enpleguari dagokionez ere. Egitura hau oso antzekoa da enpleguari dagokionez beste lurraldeekin alderatuta. Baina, industriaren sektoreak eta lehen sektoreak garrantzia handiagoa dute eskualdean Durangon bertan baino.

Azken urteetako garapenari dagokionez, azpimarragarria da eraikuntza sektorearen hazkundera. Bestalde, ikus dezakegu industriak garrantzia galdu duela balio erantsiari eta biztanleria aktiboari dagokionez.

2.2. Sektore ekonomikoak

XX. mendeko lehen urteetatik Durangoko ekonomia industriari lotu zaio, garai horretan sortu baitziren udalerriaren garapenerako funtsezkoak izan diren enpresak (Ferretera Vizcaina, Hijos de Ortiz de Zarate, Olma, Hijos de Mendizabal,...). Enpresa hauek bereziki makina-erremintan eta burdinarekin lotutako jardueretan aritu ziren. Industria sektorearen hazkundera udalerriaren hirigunearen haztea dakar, landatar eremutik eta immigraziotik datozen pertsonak industrietatik gertu pilatuko baitira. Hala ere, mendearen azken hereneko krisiarekin eta industriaren birmoldaketarekin udalerriak aukera berriak aztertu behar ditu, hirugarren sektorearen aldeko apustua eginez, adibidez, eskualdeko burua dela probestuz.

Jarraian, sektore bakoitzaren garrantzia ezarri dugu bertan lan egiten duen biztanle kopuruaren eta azken hamarkadetan hauek izan duten garapenaren arabera.

12. Taula. Biztanleria landuna jardueraren arabera.

	1986	1991	1996	2001
1. sektorea	1,1	0,8	0,7	0,6
Industria	55,2	47,6	42,8	38,9
Eraikuntza	5,0	5,2	4,7	5,1
Zerbitzuak	38,7	46,4	51,9	55,4

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Aurreko taulako datuen arabera, 2001ean Durangoko biztanleria aktiboaren %55,4ak zerbitzuen sektorean lan egiten zuen, sektore garrantzitsuena bilakatuz enpleguari dagokionean. Industriaren sektorea ezartzen da bigarren tokian biztanleria aktiboaren %38,9arekin. Azkenik, aipatu behar da lehen sektorean biztanleria aktiboaren %0,6ak besterik ez zuela lan egiten.

Azken urteetako garapenari dagokionez azpimarratu behar da 1986 eta 2001 artean Durangoko ekonomia hirugarren sektorerantz joan dela. Industria eremuko enplegua gutxitu egin da zerbitzuen sektorean areagotu den neurrian. Azkenik, nekazaritzak enpleguan duen garrantzia gutxitu egin da.

Lehen sektorea

Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei dagokionez, 1999an 95 zeuden eta hauetako %43,15 aberedunak ziren, %55,78 abere-gabeak eta ustiapenen %1,1ean euren jarduera lurrik gabe egiten zuten. Durangon nekazal jarduerarako gordetako azalera guztira 728 Ha-koa zen.

13. Taula. Erroldatutako ustiapenak eta azalera orotara. 1999.

	Guztira		Abereduna		Abere-gabea		Lurrik gabea
	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	Kop.
Durangaldea	2.821	22.932	1.514	10.313	1.284	12.619	23
Durango	95	728	41	214	53	514	1

Iturria: EUSTAT.

Aurrez aipatu den moduan, nekazaritzak garrantzia galdu du biztanleria aktiboari dagokionean, 2001ean biztanleriaren %0,6ak besterik ez zuen sektore horretan lan egiten.

Bigarren sektorea

Bigarren sektoreari dagokionean azpimarratu behar da garrantzia galdu duela balio erantsiari eta biztanleria aktiboari dagokionean.

Gaur egun, hausnarketa estrategikoa egiten ari da eskualdean industria sektorearen inguruan. "Metalgiltza" izena daraman proiektuak Elkarte bat sortu nahi du Durangaldeako Industria Sektoreko Plan Estrategikoa bultzatzeko.

"Metalgiltza" 2.000 urtean sortu zuten Durangaldeako Enpresen Elkarteak, INEMek eta Abadiñoko, Durangoko eta Iurretako Udalek zonaldeko metalaren sektorearen egoera hobeto ezagutzeko asmoz. Bi urte beranduago jarraipena izan zuen, enpresek eskatzen zuten langile profila lantzeko asmoari ekin zioten eskualdeko Formazio Zentroak euren beharretara molda zintezan.

Gaur egun, abian jarri da industria sektorean ekiteko planifikazio estrategikorako lehen fasea, aurrez Eskualdeko Enpresa Sarearen diagnostikoa eta sektorearen formakuntza beharren inguruko azterketa egin dira.

Elkartearen helburua da eskualdeko industria sarearekin lotura duten kolektiboak bilduko dituzten lau lan talde osatzea da. Teknikari bat arduratuko da koordinazioaz eta Plan Estrategikoaren Aurrerakinean jaso diren ideia batzuen exekuzioaz.

Hauetara lan taldeetan landu nahi diren ildoak: produktuaren bilketa eta banaketa; formakuntza eta teknologia berriak; lurraldearen antolaketa eta ingurumen eta gizarte ezaugarriak – emakumearen integrazioa.


Azterketa hauetatik eta datuen analisitik ondorioztatzen da Industria Sektorea dela aberastasun gehien sortzen duena Durangaldean (Eskualdeko BPGaren %52,01), honek auto-mozioaz menpekotasun handiegia duela (industria jardueraren %76,03) eta langabezia tasa oso txikia dela (%5,23). Hala ere, etorkizunari begira puntu ilunak ageri dira, izan ere eskualdeko BPGaren erdia baino gehiago industriaren sektoretik dator eta hauetan auto-mozioarekin lotutako enpresa txiki eta ertainak dira nagusi. Zehatzagoak izateko, industria horren %53a mekanizatura, hotzean egindako estanziora eta artikulu metalikoetara mugatzen da, hain zuzen ere, desagertzeko arrisku gehien duten jardueretara, motorrarekin lotutako enpresek Europako Ekialderako joera baitute. Horiekin automobilaren industriak Durangaldean sortzen dituen 19.000 lanpostuak desagertu daitezke, zonaldeko enplegu guztiaren erdia. Sektorearen antolamendua osagaiak egiten dituzten beste enpresen azpikontratazioan oinarritutakoa izateak kate arriskutsua sortzen du, katenbegietako bat apurtu orduko eteten den kate arriskutsua.

Hirugarren sektorea

Hirugarren sektoreari dagokionez, udalerria zerbitzuen hiri ertain bat bezala definitzen da. Nahiz eta industriaren garrantzia handia den, aurreko datuetan ikusten zen moduan, zerbitzuen sektorea da nagusia biztanleria aktiboari dagokionez eta baita, balio erantsiari dagokionez ere.

Hurrengo grafikoak udalerriko jardura adar ezberdinen presentziaren ikuspegia eskaintzen digu, adar horietako bakoitzean dauden establezimendu kopuruaren arabera. Esan dezakegu Durangon dauden establezimenduen %86a zerbitzuetakoak direla (merkataritza, ostalaritza eta garraioak; Bankuak, aseguruak eta enpresentzako zerbitzuak eta bestelako zerbitzu jarduerak), bitartean, industria eta energia eta eraikuntzaren adarretako establezimenduen presentzia askoz ere txikiagoa da.

5. Grafikoa. Establezimenduak jarduera adarraren arabera. Durango. 2004.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Hausnarketa estrategikoa turismoaren sektorean

Orain gutxi Durangoko udalerria turismoaren sektorearen inguruko hausnarketa izan da. Hausnarketak balio izan du egungo zerbitzu eskaintza hobetzeko, produktu berriak sortzeko eta parte hartzen duten eragileen artean prozesuak bultzatzeko. Azterketaren oinarria egungo Durangoko turismoaren egoeraren inguruko diagnostikoa izan da, horretarako diagnostikoaren ardatzak egungo eskaintza eta potentzialki izan daitekeena aztertzea eta sektore hori bultzatzeko irizpideak ematea izan dira.

Aipatutako hausnarketan azpimarratzen da Durangok bitarteko turistiko asko dituela, hauek horien artean: Urkiola bezalako bitarteko naturalak; artistiko-monumentalak bereziki hirigune historikoan; Landako eta trena lurpera sartutakoan sortuko den eremua bezalako eraikuntza garaikideak; tradizioari eta folkloreari lotutako bitartekoak (Liburu eta Disko Azoka, Nekaldia, Euskal Astea...). Bitarteko hauek Durango erakargarri egiten dute bi motatako bisitarientzat; lehen pertsona bisitaria euskal herritarra litzateke eta bigarrena kanpotarra (Estatukoa eta hirugarren herrialdeak). Hala ere, aipatzen da biztanleriaren zati handi batek ez dituela ezagutzen edo ez diela baliorik ematen udalerriak dituen bitartekoei, eta bereziki, bitarteko historiko-ondasunezkoetaz ari gara.

Hausnarketan bereziki azpimarratzen da gaur egun dauden bitartekoetan oinarritutako produktu turistikoa sortu behar dela, baina, produktu turistiko baten eraikuntzaren oinarria dira dauden bitartekoak aztertzea, turismo informazioa eskaintzea, azpiegiturak moldatzea, bitarteko turistikoetarako irisgarritasuna bermatzea eta azkenik, hauen promozio eta merkaturatzea. Behin produktu turistikoa osatuta, bigarren urratsa produktuari balio erantsia gehitzea izango litzateke berrikuntzaren, integrazioaren eta kalitatearen bidetik. Kontuan izanik badirela antzeko bitartekoak eskaini ditzaketen beste eremu batzuk ere, beharrezkoa ikusten da Durango erreferente bihurtuko duten produktu edo elementu berriak sortzea. Azkenik, hirugarren urratsa litzateke eskualdeko eta udalerriko eragileak koordinatzea.

2.3. Lan merkatua eta enplegua

Hurrengo taulan erakusten da Durangoko biztanleriaren banaketa jarduerarekin duten harremanaren arabera eta Durangaldeako, Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuekin alderatzen da. Durangok 2001ean 11.351 pertsona aktibo zituen eta 13.652 ziren ez aktiboak, biztanleriaren %45,4 eta %54,6 dira, hurrenez hurren. Biztanleria osoarekiko biztanleria aktiboaren portzentajea gainontzeko lurraldeetan baino txikiagoa da (Durangaldean %47a eta EAEn %46,9a), Foru herrialdean izan ezik (%45,4).

14. Taula. Biztanleria jarduerarekin duten harremanaren arabera eta lurraldeka. 2001.

	Guztira	LANE aktiboak		LANE ez aktiboak		
		Guztira	LANE okupatuak	LANE langabetuak		
				Guztira	Lehen enplegua	Lan egin dute
Euskal AE	100,0	46,9	41,4	5,4	1,2	4,2
Bizkaia	100,0	45,4	39,4	6,0	1,5	4,5
Durangaldea	100,0	47,0	42,9	4,1	1,0	3,1
Durango	100,0	45,4	41,2	4,2	0,8	3,3

Iturria: EUSTATEN datuetan oinarritua.

Langabetuak adinaren eta generoaren arabera banatuz gero, langabezia 25 eta 34 urte artekoen artean kokatzen da emakumezkoetan eta gizonezkoetan, gainontzeko lurraldeetan bezala. Generoaren arabera, emakumezkoen langabezia altuagoa da adin tarte guztietan.


15. Taula. Langabezian dauden pertsonen banaketa generoaren eta adin taldeen arabera lurraldeka. SISPE (2005-XII).

	Guztira	Gizonezkoak			Emakumezkoak		
		<25	25-44	>=45	<25	25-44	>=45
Euskal AE	100,0	5,8	20,8	16,5	4,8	30,2	21,9
Bizkaia	100,0	6,0	21,1	17,6	5,0	29,8	20,5
Durangaldea	100,0	5,6	21,6	11,3	6,4	35,6	19,5
Durango	100,0	4,8	24,6	10,9	6,4	35,0	18,3

Iturria: EUSTATEN oinarritua.

Jarduera ekonomikoaren arabera banatuz gero langabezia, Zerbitzuen jarduera da langabetu gehien dituen, gainontzeko lurraldeetan gertatzen den moduan. Industria da bigarren lekuan dagoena langabeziari dagokionean.


6. Grafikoa. Lan bila dabilten pertsonak lurraldearen eta sektorearen arabera. SISPE(XII-2005).



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Azken urteetako langabeziaren alderatutako garapenari dagokionez, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, 1997 eta 2004 artean langabezia asko murriztu da, aztertu diren gainontzeko lurraldeetan gertatu den moduan. Hala ere, 2005ean langabeziaren hazkundea jasotzen da. Zehazki, 2005ean Durangoko langabezia tasa %6,8an kokatzen da eta eskualdeko baino gorago jartzen da.

7. Grafikoa. Langabezia tasaren garapena lurraldeka.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

3. GIZARTE EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA

3.1. Laguntza, gizarte ongizatea eta zerbitzu sozialak

LAGUNTZA ZERBITZUAK

Durangoko Udalaren Oinarrizko Zerbitzu Soziala Durangoko Merindatearen Amankomunazgoaren baitakoa da, hamar udalerri osatzen dute (Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar).

Oinarrizko Zerbitzu Soziala udalerriz ezberdinetan dauden unitateetan aritzen diren sei Langile Sozialek, Gizarteratze Tekniko batek eta hiru laguntzaile administratzailek osatzen dute. Aldi berean, zerbitzu honi atxikita dago sei Hezitzaile Sozialek osatzen duten Esku-hartze Sozio-hezitzaileko Ekipoa.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

2003. urtean zehar etxez etxeko laguntza zerbitzua erabili duen pertsona kopurua 140koa izan da.

16. Taula. Etxez etxeko zerbitzua erabili duen pertsona kopurua.

Durango	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira
	Guztira	%	Guztira	%	
	113	80,70	27	19,30	140

Iturria: Durangoko Aukera Berdintasunen Saila.

Zerbitzu hau jaso duten pertsonen %80.70a emakumezkoak dira. Durangoko Aukera Berdintasunen Sailak eskainitako datuen arabera, honakoa da etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duen erabiltzailearen profila: Emakumea, alarguna, gehienez 80 urtetik gorakoa, bakarrik bizi dena, oinarrizko errenta baino diru sarrera txikiagoak dituen eta ezintasunen bat duelako arreta pertsonaleko zerbitzuren bat behar izaten duena.

OINARRIZKO ERRENTA (IMI ZENA)

Oinarrizko errenta laguntza izaera duen aldizkako laguntza ekonomikoa da, bizirauteko oinarrizko diru-sarrerak ez dituzten pertsonen beharrak asetzeko helburua du. Izaera subsidiarioa du eta egungo legedian aurreikusitako laguntza sozial eta ekonomikoen osagarria da, horiek erabili beharko dira oinarrizko errentara jo aurretik.

Udalak emandako datuen arabera, 2003an 245 pertsonak jaso zuten laguntza hau. Kasu honetan ere, emakumezkoen kopurua (179 emakume) handiagoa da gizonezkoena baino (66 gizon).

17. Taula. Oinarrizko Errenta jasotzen duen pertsona kopurua.

Durango	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira
	Guztira	%	Guztira	%	
	179	73,07	66	26,93	245

Iturria: Durangoko Udaleko Aukera Berdintasunen Saila.

LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZAK

Larrialdi Sozialeko Laguntzak EAEn bizi diren, edo bizikidetza unitateko kideak direnen, onurarako laguntzak dira, euren bitartekoak oinarrizko gastuei aurre egiteko adinakoak ez direnean, marjinazio soziala ekiditeko.

Udalak gai honetara 2003an bideratu zuen dirua 153.076,96 euro izan zen, dirurik gehiena emakumezkoen eman zitzaion (54.839,18 euro), eta jarraian pertsona etorkinei (32.001,11 euro).

GIZARTERATZE HITZARMENAK

Mankomunitateko Langile Sozialen ekipoak teknikoarentzat mugatu zuen lan eta gizarteratzea, formakuntzakoa eta komunitatekoa, baztertzeko arriskuan zen biztanleriaren sektore ororentzat, eta ez soilik Oinarrizko Errenta jasotzen dutenentzat.

Gizarteratze teknikariak landu beharreko eremu nagusiak egonkortasun pertsonala eta parte hartze soziala, osasun sistemarako sarrera, hezkuntza eta formakuntza ohiturak jasotzea eta enplegurako sarrera izango lirakeke.

Gizarteratze hitzarmenen onuradun izan dira 107 pertsona, hauetako %71,02a emakumeak dira. Gainera, Udalak eskainitako datuen arabera, urtez urte zerbitzu hauen beharra duen etorkin gehiago dago.

18. Taula. Gizarteratze hitzarmenen onuradun den pertsona kopurua.

Durango	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira
	Guztira	%	Guztira	%	
	76	71,02	31	28,9	107

Iturria: Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseilua.

EMAKUME ETA FAMILIA ZERBITZUA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekintza Sozialerako Sailak Emakume eta Familia Zerbitzuaren lan ordutegitik kanpo funtzionatzen duen zerbitzua eskaintzen du tratatu txarrak sufritu dituzten emakumeentzako, eta baita euren seme-alabentzako ere, Larrialdizko Zerbitzu

gisa ezagutzen dena. Larrialdizko Zerbitzuaren helburua tratu txarrak jaso dituzten emakumeei eta euren seme-alabei ostatu ematea da. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekintza Sozialeko Sailaren memoriaren arabera (2003) Durangoko udalerrian ezaugarri hauetako kasu bakarrari eman zaio arreta.

TELEALARMA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekintza Sozialeko Sailaren Telealarma programak segurtasuna eta berehalako laguntza eskaini nahi die oso gaixo edo ezintasun handia duten pertsoneri, oso zaila egiten baitzaie – baita ezinezkoa ere batzuei – larrialdietako telefono zenbakira deitzea. Arazo honi aurre egiteko euren eskutara jartzen da telefono aparatu berezi bat erabilpen errazekoa, fijoak edo eramangarriak izan daiteke aparatua. Erabiltzaileak larrialdizko egoeran – edo normala ez den egoeran – aparatuak duen botoiari ematen dio eta SOS DEIAK zerbitzuak jasotzen duen deia egiten du. Zerbitzu hau, onuradunaren eskaria jaso ostean, dagokion pertsona edo zerbitzuarekin harremanetan jartzen da arazoari aurre egiteko (medikua, anbulantzia, laguntzaile soziala,...)

Foru Aldundiak eskainitako datuen arabera (Ekintza Sozialeko Sailaren memoria, 2003) Durangoko udalerrian 33 pertsonak zuten zerbitzu hau.

Amaitzeko, esan daiteke zerbitzu honen beharra duten pertsona gehienak emakumezkoak direla, beraz, hauek dira txirotasunak eragindako arazoak gehien pairatzen dituztenak.

LAGUNTZA ZENTROAK

Laguntza zentro eta azpiegiturei dagokionez, hurrengo taulan ikus daiteke 2003an udalerrian zegoen laguntza zentro kopurua.

19. Taula. Zentro kopurua zentroaren izaeraren arabera. 2003.

Udalerria	Guztira	Elkarteak	Zerbitzu tekniko orokorrak	Aholkularitza zentroak	Eguneko zentroak	Egoitzak	EZB - ZO*	Besteak
Durango	17	4	2	-	4	4	-	3

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua. *:Enplegurako Zentro Bereziak eta Zentro Okupazionalak.

3.2. Osasun zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna

Durangoko biztanleriaren osasunari dagokionez, heriotza arrazoen inguruko datuek honakoa erakusten dute:

20. Taula. Bizileku eremuaren, generoaren eta heriotza arrazoiaren arabera heriotzak. 2003.

	Generoa			Heriotza arrazoiak					
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Tumoreak	Zirkulazio aparatua	Arnasketa aparatua	Lixeriketa aparatua	Istripuak	Beste gaixotasunak
Bizkaia	100,0	52,3	47,7	29,8	31,5	10,3	5,2	4,1	19,2
Durango	100,0	50,2	49,8	26,7	32,4	9,8	4,9	5,3	20,9

Iturria: EUSTATEN datuetan oinarritua.

Bizkaiko Lurraldearen alderatuz gero honako ondorioak jasotzen ditugu:

- Heriotza indize altuagoa emakumezkoen artean.
- Istripuek eta zirkulazio aparatua eta bestelako gaixotasunek eragindako heriotzen indize altuagoa.
- Tumoreek eragindako heriotza indize baxuagoa.
- Antzeko heriotza kopurua arnasketa eta lixeriketa aparatua eraginda.

Eustatek emandako datuen arabera, Durangon 6 osasun zentro daude:

21. Taula. Ospitalez kanpoko zentroak lurraldearen eta izaeraren arabera.

	Guztira	Anbulatorioak	Kontsultategiak	Osasun zentroak	Larrialdi zerbitzuak	Inguruko zentroak	Osasun mentaleko zentroak	Mutua laguntza zentroak	Besteak
Euskal AE	440	28	52	108	37	118	50	44	3
Bizkaia	234	17	34	63	19	54	26	19	2
Durangaldea	25	1	5	7	3	4	1	4	-
Durango	6	1	-	1	1	-	1	2	-

Iturria: EUSTATEN datuetan oinarritua.

Ospitale harrera, tratamenduaren izaeraren arabera, bertatik bertara dagoen eskualdeko ospitalean egiten da.

3.3. Etxebizitza


Dokumentu honen hirigintza planeamenduaren azterketaren puntuan aztertzen da gaia.

3.4. Hezkuntza eta kultura

3.4.1. Eskolatze mailaren garapena

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, Durangoko biztanleriaren eskolatze maila Durangaldeako, Bizkaiko eta EAEkoa baino altuxeagoa da. Izan ere, alfabetatu gabeko eta ikasketarik gabeko biztanleriaren garrantzia txikiagoa da eta bigarren eta goi mailako ikasketak dituztenen kopurua handiagoa da.


8. Grafikoa. 10 urte edo gehiagoko biztanleria lurraldearen eta eskolatze mailaren arabera. 2001.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Azken urteetako (1996-2001) datuen azterketak erakusten du hazkundera izan dela bigarren mailako, ertain-goi mailako eta goi mailako ikasketak dituzten biztanlerian, aldi berean, txikiagotu egin da ikasketarik gabeko eta lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen kopurua.

9. Grafikoa. Eskolatzeko mailaren garapena (10 urte edo gehiagoko biztanleria).



Iturria: EUSTATEN datuetan oinarritua.

3.4.2. Eskolatzeko maila generoaren arabera

Jakin behar dugu hezkuntza eta formakuntza direla, kapital eta lan faktoreekin batera, gizartearen kohesiorako, hazkunderako eta enplegurako. Generoaren arabera biztanleriaren eskolatzeko mailaren inguruan Udaleko Aukera Berdintasunen Sailak emandako datuen arabera pentsa dezakegu eskolatzeko maila baxuak, oraindik, emakumezkoen artean pilatzen direla. Azpimarratu behar da alfabetatu gabea den biztanleriaren %72,2a emakumeak direla. Ordu berean, ikasketarik gabeko eta lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino altuagoa da. Ikus dezakegu lanbide heziketak gizonezkoen nagusitasuna agerikoa den eremua izaten jarraitzen duela. Hala ere, ikus dezakegu diplomaturak eta lizentziaturak dituzten emakumezkoen kopurua handiagoa dela gizonezkoena baino.

22. Taula. Generoaren arabera eskolatzeko maila.

	Emakumea		Gizona		Guztira
	Guztira	%	Guztira	%	
ALFABETATU GABEA	104	72,2	40	27,8	144
IKASKETA GABEA	3.274	50,70	3.183	49,30	6.457
LEHEN HEZKUNTZA	5.690	54,55	4.739	45,45	10.429
LANBIDE HEZIKETA	1.559	38,09	2.533	61,91	4.092
BIGARREN HEZKUNTZA	1.387	52,93	1.233	47,07	2.620
DIPLOMATURAK	796	76,98	238	23,02	1.034
GOI MAILAKO IKASKETAK	1.653	54,77	1.365	45,23	3.018


Iturria: Aukera Berdintasunen Sailak eskainitako datuetan oinarritua. 2005eko errolda.

3.5. Euskara

Euskararen garpenaren maila euskal udalerri baten diagnostikoa egiterakoan kontuan izan beharreko beste faktore sozial nagusietako bat da. 2004ean egindako “Udalaren Egungo Egoeraren Diagnostikoa” azterketaren arabera udalerriko biztanle gehienak euskaldunak dira (%45,3), biztanleriaren %34,33ak bere burua elebakartzat zuen eta %20,4ak elebiduna zela zioen. 1981 eta 2001 artean elebakarrak diren pertsonen kopurua murriztu egin da eta hazi eginda euskaldunen eta elebidunen kopurua.

Alfabetatze mailari dagokionez, Eustaten datuek (2001) erakusten dute biztanleriaren %33,1a euskaldun alfabetatua zela eta biztanleriaren %28a erdalduna zela. Durangoko datuak gainontzeko lurralde eremuekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu euskarazko alfabetatze maila txikiagoa dela Durangon eskualdearekin alderatuz gero eta handiagoa probintziakoarekin eta Euskal Autonomi Erkidegokoarekin alderatuta.

10. Grafikoa. 2 urte eta gehiagoko biztanleria lurraldearen eta euskara maila orokorraren arabera. 2001.




Iturria: EUSTATEN datuetan oinarritua.

Hezkuntza orokor ez unibertsitarioko ikasleriari dagokionez, 2003-2004 ikasturtean 5.212 ikasle matrikulatu ziren, hauetako %58,75ak D eredua aukeratu zuen, %5,33ak A eredua hartu zuen eta gainontzekoak (%35,9ak) B eremuan abiatu zituzten ikasketak.

Hala ere, gaiaren azterketa osoagoa egiteko, komenigarria da kontuan izatea etxean Euskararen erabilerak izan duen garapena. Eustaten datuek erakusten dute euskararen erabilera bere horretan mantendu dela 1991-2001 epean. Baina, gaztelerak bere nagusitasuna mantentzen du, udalerriko etxeetan gehien erabiltzen den hizkuntza baita.

11. Grafikoa. Etxean erabilitako hizkuntzaren garapena.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

3.6. Gazteriaren egoera

2005eko irailean diagnostiko bat egin zen “Durangoko Gazteriaren egoera” aztergai zuena. Azterketa honen helburua zen 14 eta 30 urte arteko gazteen egoera aztertzea udalerriko Gazte Plana osatzeko.

Diagnostiko honek udalerriko gazteriak bizi duen egoeraren testuinguruaren gaineko irizpideak ematen dizkigu. Azterketaren gaiak honakoak izan dira: enpleguaren merkatua, etxebizitza, familia egoera, aisialdia eta astialdia, asoziazionismoa, Durangoren egokitzea gazteriaren beharretara, Udalaren lana gazte gaitan, droga kontsumoa Durangon, immigrazioa Durangon eta udalerriko problematikak.

Aipatutako diagnostikoan udalerriko gazteriari eragiten dioten problematikak eta kezkak zehazten dira. Enpleguaren merkatua eta etxebizitza dira gazteriaren kezka nagusiak, diote lana aurkitzea ez dela horren zaila, baina baldintzak eta ordainsaria txarrak direla (aldizkotasuna...). Aldi berean, azpimarratu behar da eskualdeko enplegua eremu tekniko-profesionalean oinarritzen da, beraz, profil hori ez dutenentzat zailtasunak areagotu egiten dira, eta gainera, profil hori batez ere mutilei lotzen zaie.

Etxebizitzarako sarrerari dagokionez, diote Durangoko gazte gehienentzat oso zaila dela etxebizitza lortzea, gainera alokatzeko aukera oso murrizta eta garestia da. Aldi berean, uste da dagoen BOE eskaintza eskasa dela. Hala ere, kontuan izan behar da euren familiekin bizi diren gazteen %47ak emantzipatu egin nahi duela.

Aisialdiari eta astialdiari dagokionez, ikusten den problematika astialdirako eta aisialdirako aldizkatze falta da. Zehazki, gazteriaren artean aisialdia asteburutako gauekora mugatzen gehienetan, eta alternatibak kirolean eta ekintza kulturaletara joatean aurkitzen dira, zinean eta musikan bereziki. Bestalde, ikusten da parte-hartzea eta asoziazionismoa gutxiengoarena dela udalerrian.

Udalaren jarduera gazteria alorrean oso eztabaidatua da. Gazteek eskatzen dute aisialdirako alternatiba gehiago eskaintzea eta egun daudenak ez murriztea (tabernen ordutegiak,...) Modu berean, gazte gehienek iritzia da Udala ez dela herriko gazteek nahikoa arduratzen. Bestalde, kolektibo garrantzitsu bat prest dago udalerriaren gai publikoetan elkarlanean aritzeko (bilerak kolektiboekin, Udaleko osoko bilkuretan parte hartzea...).

Azkenik, drogen problematikari dagokionez pertzepzio orokortua da alkohol eta droga ilegalen kontsumoa gazteen artean oso altua dela. Kezkagarriena da gazteen artean ez dela ikusten errealitate problematiko baten gisa. Gainera, ikusten da droga ilegalen kontsumoa geroz eta gazteagotan hasten dutela gazteek. Informazioa eta hezkuntza ikusten dira arazoari aurre egiteko soluzio posible gisa.

4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

4.1. Ingurune fisikoa eta naturala

4.1.1. Geologia, klima eta hidrologia

Geologia eta Geomorfologia

Durangok Ibaizabal ibaiaren ezker ertzeko eremu irekia hartzen du. Hegoaldera, antiklinal txiki, konprimitu eta zatitua du, kapa ia bertikalekin ekialdera Alluitz, Anboto eta inguruko tontorretara doan mendi ertza sorrarazten du.

Durangaldeako eta Durangoko erliebearen antolaketari dagokionez, azpimarratu behar da litologiaren, tektonikoaren eta agente geodinamikoen ekintza bateratua zonaldeko erliebea sorraraziz. Zonalde honetan ezberdindu daitezke honako unitate geologiko sailak: Sinklinorio Axiala edo Bizkaiko Sinklinorioa eta eskualdeko garrantzitsuena den Kanpoko Arku Antiklinorioa.

- Sinklinorio Axiala: berez nahiko sinplea den egitura da, nahiz eta konplexuago bihurtzen den Piriniora gerturatu ahala. Oiz menditik abiatzen den sinklinala Kretaziko Garaiko material eozenoek (hareharriek) eta flyshenak (kareharriek eta marregak) osatzen dute. Oizen ageri dira zokaloan arrakala garrantzitsuak daudela erakusten duten itsaspeko basalto interestratifikatuak.
- Kanpoko Arku Antiklinorioa: Deba-Ibaizabal ur-jarioaren artean kokatzen diren erliebe ez oso ugariak baina bai markatuak. Horien artean, azpimarragarria da Mañariak Anbotoko mendizerrarekin duen antiklinala. Zonaldearen tektonizazio altua dago, bai zeharkakoa eta baita luzekakoa ere.

Laburtzen, Nerbioi ibaiaren mendebaldera dauden ipar-ekialdetik hego-ekialderako norabideko alienazio menditsuek osatzen dituzte Durangoko eta Durangaldeako Haitzak.

Esan den moduan, bi alienazio paralelo daude: hegoaldera dagoenari antiklinala deitzen zaio eta Durangaldeako Gandorrak dira iparraldera daudenak. Durangaldeako Gandorretan garatzen da Dimako antiklinala eta Urkiolako multzo supraurgoniarra. IIM-HHE norabideko erradio zabaleko egitura gisa definitzen da, bere itxieran biratzen da eta ia-ia ekialdetik mendebalderako norabidea hartzen du, fazie wealdiko, aptiar eta albiarreko materialei eraginez. Egitura sinklinal bati lotuta dago, Indusikoa, erradio txikiagokoa. Bigarren tolesdura zorrotz eta estu batek multzo hau iparraldera mugatzen du: Mañariko antiklinalak. Durangaldean sinklinalak antiklinalen garrantzia izatetik urrun daude; Mañariko antiklinalari lotutako Aramotzeko mendizerrako sinklinalak soilik du behar adinako tamaina Durangaldeako erliebean garrantzia izateko. Gogortasun ezberdineko materiala egoteak (kare harri urgoniar oso gogorrak; hareharri nahiko gogorrak eta buztina, marregak eta limonitak, bigunak eta hauskorak) zehazten dute

Anbotoko mendi alienazio sailaren garapena, tartean aran multzoak sortzen dira, lbaizabalgoa bezala, bertako weald, cenomaniar eta aptiar-albaniarreko material bigunetan eragindako higadurek zulatua.

Durango kantauriar isurialdean kokatuko genuke, klima euritsua du eta temperatura epela, silizioan oinarritutako materialak dira nagusi eta aldapa handiak ditu, euren azidotasunak definitzen ditu lurrak (4,5-5 inguruko pHa) eta burdin eta materia organiko portzentajea handia izateak. Aranaren azpialdeko lur sakon eta emankorrak eta kareharridun mendi zonaldeetako litolur propioak soilik aldentzen dira joera horretatik.

Orokorrean, euskal mendietako lurrak gazteak direla esan daiteke, klima epel-hotz baten baitan sortu dira eta horrek berezko harriaren deskonposaketa eragiten du, hainbat osagaien (buztina, oxidoak, humusa) pilaketa geldoa bizi dute sakonera handieneko eremuetan. Ohikoa da pH baxuarekin aluminio toxikoa agertzea eta fosforo eskasia izatea. Arazo hauei modu tradizionalen egin zaie aurre, produktibitatea hobetzeko kareztatzeak eginez.

Klima

Euskal Herriko klima atlantiar eta mediterranearen klimen arteko trantsizio eremuan kokatzen da eta hainbat faktore dinamiko orokorrek baldintzatzen dute, horien artean azpimarratu behar dira Mendebaldeko korrantea eta Frente Polarra. Mendebaldeko korranteak berarekin dakartza masa lainotsuak, hezetasunez beteta iristen dira Euskal Herrira Atlantiar ozeanoa igaro ostean eta prezipitazio askoren eragileak dira. Tenperaturetan berebiziko garrantzia du Frente Polarra urrunago edo gertuago egoteak.

Bestalde, maila lokalean, Euskal Herriko klimak lotura estua du egoeraren baldintzatzaileak deitzen direnekin. Baldintzatzaileak dira erliebea eta ozeanoarekiko gertutasuna. Erliebeak pantaila orografiko gisa ekiten du ekialdetik mendebalderako kokapena baitu orokorrean eta ozeanoarekiko gertutasuna kontraste termikoen erregulatzailea da. Kantauriar isurialdeko baldintza klimatiko ozeanikoen ondorioz euria maiz egiten du eta tenperaturak epelak dira. Durangoko udalerrria kantauriar zonaldean dago, eta beraz klima atlantikoak eragiten dio, klima epel hezea da eta ez du urtaro lehorrik.

Prezipitazioei dagokionez urteko batez bestekoa 1.100 eta 1.800 l/m² baino gehiagokoa da. Euri egunak asko dira, urtean 180 inguru batez beste.

Tenperaturei dagokionez, neguko batez bestekoa 8° ingurukoa da eta izotz arriskua dago azaroa eta urtarrila bitartean. Urteko batez besteko tenperatura 14°C-koa da, nahiz eta neguaren eta udaren arteko ezberdintasunak Durangaldean nabaritu daitezkeen.

Haizea mendebaldeko eta iparraldekoa izan ohi da, udaran salbuespena bada ere, haize lehorrak eta beroak nagusitzen baitira, hego-ekialdekoak. Haize bolada handienak 100 eta 105 Km/o abiadurakoak izaten dira.

Hidrologia

- *Ibaizabal*

Deskribapena

Banalerroko mendiek, Garobel mendilerrotik Aralarko mendiguneraino, euskal lurraldea bi isurialdetan banatzen dute: kantauriarra, zuzenean itsasora isurtzen duena eta mediterranearra, ura Ebro ibaira bideratzen duena. Orokorrean, euskal-kantauriar ur sarea (Durango horren baitan dago) higadura maila handikoa da.

Ibaizabal ibaia Udalatx, Anboto eta Urkiolaren iparraldera eta Oiz mendiaren hego isurialdera sortzen da. Arroaren goi partean jariora presentzia demografiko eta industrial handi baten artetik doa, bertan baitira Elorrio, Abadiño, Zaldibar, Berriz eta Durango, besteak beste. Durangotik igarotzean, Mañaria ibaiaren (udalerrria iparretik hegora zeharkatzen du) eta Larrinagatxu errekaen emaria jasotzen ditu.

Garapen industrialak Durango inguruan elkartzen diren hiru ardatzen inguruan kokatzen da (Durango-Zaldibar, Elorrio eta ibaiaren paraleloan). Mantentzen da metal sektorearen eta bere eratorrien nagusitasuna, paperarena eta industria kimikoarena. Horregatik, Ibaizabalen Unitate Hidrologikoak asko pairatu du industriaren zigorra, eta isurketa gehienak industrietatik datoz (industria kimiko inorganikoa, plastikoen ekoizpena, metalekin egindako azaleko tratamenduak, kromika zianuratuak, hiltegiak, garbilekuak, metalurgia eta galdaketa...), portzentaje txikiagoa dute hiriguneko hondakin uren isurketek.

Uren kalitatea

Erkidego Autonomoko Ibaien Ingurumen Egoeraren Uren Kalitatearen Zainketarako Sareak zazpi kontrol estazio ditu.

Durango inguruan egiten den kutsadura aztertzeko daturik interesgarrienak udalerrriaren aurreko eta hurrengo estazioetan jasotakoak dira, IE-140, I-140 eta I-160.

I-140 (Smurfit Nervion SA papertegiaren gaineko urak) eta I-160 (Smurfit Nervion SA papertegiaren osteko urak) dira Ibaizabal ibaiak aurkeztzen dituen estazioak eta IE-140 da Elorrio ibaiarena (Matienatik igarotzean).

23. Taula. 2002ko laginketa.

IBAIAREN EKOSISTEMAKO INPAKTUA		
<i>Estazioa</i>	<i>Ekosistemaren Mantenuaren galeraren maila</i>	<i>Arrainen faunaren toxikotasuna</i>
I-140	99	N
I-160	100	B
IE-140	0	N

24. Taula. 2002ko laginketa.

<i>Estazioa</i>	<i>Ingurumen egoera</i>	<i>Ibai ertzen mantenua</i>	<i>Egoera ekologikoa</i>
I-140	E2	Eskasa	Eskasa
I-160	E1	Eskasa	Eskasa
IE-140	E4	Onargarria	Onargarria

1. Arrainen faunaren toxikotasuna:

N: Ur normalak

B: Efektu toxiko eta patologikoak eragiten dituen biometanizazioa duten urak.

I: Arrainen bizirako bideraezina

2. E indizeak zehazten du urek biodebirsitate ahalik eta handiena izateko probabilitatea. Terminologia: E1 Hipereutrofia-inguru oso gogorra, E2 Kutsadura; ur kutsatuak, inguru gogorra, E3 Eutrofizazioa-inguru gorabeheratsua, E4 Ur garbiak-inguru establea, E5 Ur oligomesotrofikoak; inguru oso heterogeneoa.

Datu hauetatik ondorioztatu daiteke Ibaizabal ibaiak mantenuaren %100eko galera duela, arrainen bizitzaren garapenerako inguru egoera oso gogorra da eta ibai-ertzaren mantenua oso baxua da bi estazioetan:

- EZEREZA I-140an, ertzean eraikuntzak daudelako, zuhaitzak sartu direlako eta zaborrak isurtzen direlako.
- BAXUA I-160 estazioan

Elorrio ibaiari dagokionez, ingurumenaren gainbehera bizi da ibaiaren ekosistemaren mantenu baxuarekin eta ingurumen heterogeneitate handia galtzen ari da. Hurrengo taulan ikus daiteke ingurumen egoeraren garapena:

25. Taula. Laginketa puntuen ingurumen egoeraren garapena.

INGURUMEN EGOERA						
Laginketa puntua	1993 udaberria/ udara	1994 udaberria/ udara	1995 udaberria/ udara	1996 udaberria/ udara	1997 udaberria/ udara	1998 udaberria/ udara
I-140	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E3	E2
I-160	E2/E3	E2/E3	E3/E3	E3/E3	E2	
IE-140		E3/E3	E3/E3	E3/E3	E4	E3

	INGURUMEN EGOERA			
Laginketa puntua	1999 udaberria/ udara	2000 udaberria/ udara	2001 udaberria/ udara	2002 udaberria/ udara
I-140	E3	E1	E1	E2
I-160	E2	E1	E1	E1
IE-140	E2	E2	E3	E4

Ikus daiteke ibaiaren arroaren ingurumen egoeraren galera 1997tik aurrera, garai honen aurretik I-140 eta I-160 estazioek E3 motako kalitate mailak erakusten zituzten maitasun handiagoz.

Europako Artezarauek ezarritako uraren kalitaterako mailen arabera, Durangotik igarotzean ikus daiteke ez direla erabilgarriak ur edangarria hornitzeko, ezta bainatzeko ere. Ur hauek kutsatuta daude eta zaildu egiten dute arrainen bizitza bertan.

26. Taula. Uraren kalitatea.

	EUROPAKO ARTEZARAUAK		
Estazioa	Horniketa¹	Bainua²	Arrainen Bizitza³
I-140	A4	Ez egokia	III
I-160	A4	Ez egokia	III
IE- 140	A4	Ez egokia	III

1. 75/440/CEE hornikuntza artezarauek: Hornikuntza (A1, A2, A3)

A4 ur edangarrirako erabilgarria ez den ura, salbuespen kasuetan izan ezik, tratamendu zehatzekin.

2. Kontseiluaren Artezarauek 76/160/CEE: Bainua (Egokia, Ez egokia)

3. Kontseiluaren Artezarauek 78/659/CEE: Arrainen Bizitza (S.C, III)

III Ur kutsatuak, kalitate txarra

Uraren kalitate fisiko-kimiko orokorra

Ibaizabalen arroa oso humanizatua dago, hirigune garrantzitsuak ditu (Durango bera) eta industrializazio handia bizi du, bi arrazoi horiek kutsadura handia eragiten dut, beraz, kalitate orokorra "Ez da iristen kalitate kimiko onera".

Urak dituen kutsatzaile organikoen presentzia handia da, azpimarratu behar dira zinka, kobrea, kromoa, burdina eta beruna:

- Elorrio ibaiko estazioan (IE-140) uraren kalitatea baxua dela esan daiteke. DBO5ak hobetzeko joera erakusten du, azken aldietan balio oso baxuak aurkitu dira. Hala ere, DQOk balio baxuak erakusten dituen arren ez du inolako joera argirik erakusten. Gatz kutsadurak aldi ezberdinak erakutsi ditu,

batzuetan kutsadura izan da eta beste batzuetan ez. Baina, 2001etik aurrera okertzeko joera ikusi da.

- Ibaizabal ibaiko estazioak (I-140 eta I-160): kromo presentzia handia erakutsi dute, industria handia duelako inguruan eta beste estazioetan baino arro inguratzaile txikiagoa duelako. DBO5 balioek (Oxigenoaren Eskaera Biologikoa gazteleraz – *Demanda Biológica de Oxígeno*, 5 egun) txikitzeko joera dute, baina DQO balioak mantendu egiten dira; honek badirudi esan nahi duela izaera biologikoko kutsadura gutxitzen ari dela (arazkatze instalazio berriak eraiki direlako), eta izaera kimikoa duenak garrantzitsua izaten jarraitzen du. Gatz kutsadura I-140 estazioan hobetu eginda, 1999tik ez dago kutsadurarik.

Arrainen komunitatearen osaketa

Arrainen bizitzari dagokionez Ibaizabal ibaiak komunitate oso urria erakusten du, ez dago espezien erreserbak kolonizatu ahalko lukeen ibaiaren berreskurapen kimikorik. Azken urteetako garapena aztertuz, Durangotik igarotzean izan dezakeen biztanleria aberastasuna arriskuan dago. Arrainen lau espezie detektatzen dira funtsean: amuarraina, lolina, zarboa eta ezkailua. Dibertsitate indizea oso baxua da. Gure ibaian gehien nabari den falta izokinarena da.

Arrainen komunitatearen Kontserbazio Diagnostikoa “Moderatu” gisa zehazten da, horrek esan nahi du azken urteetan bere horretan mantendu dela. “Faunaren osaketa eta ugartasunaren” diagnostikoak, berriz, balorazio hau dakar: Oso Txarra edo Oso Egoera Txarrekoa.

Kalitate fisiko-kimikoaren garapenari dagokionez:

- Elorrio ibaiko estazioan (IE-140) uraren kalitatea baxua dela esan daiteke. DBO5ak hobetzeko joera erakusten du, azken aldietan balio oso baxuak aurkitu dira. Hala ere, DQOk balio baxuak erakusten dituen arren ez du inolako joera argirik erakusten. Gatz kutsadurak aldi ezberdinak erakutsi ditu, batzuetan kutsadura izan da eta beste batzuetan ez. Baina, 2001etik aurrera okertzeko joera ikusi da.
- Ibaizabal ibaiko estazioak (I-140 eta I-160): kromo presentzia handia erakutsi dute, industria handia duelako inguruan eta beste estazioetan baino arro inguratzaile txikiagoa duelako. DBO5 balioek txikitzeko joera dute, baina DQO balioak mantendu egiten dira; honek badirudi esan nahi duela izaera biologikoko kutsadura gutxitzen ari dela (araztegi instalazio berriak eraiki direlako), eta izaera kimikoa duenak garrantzitsua izaten

jarraitzen du. Gatz kutsadura I-140 estazioan hobetu eginda, 1999tik ez dago kutsadurarik. Aldiz, I-160 estazioak gatz kutsadura erakusten du: 1993tik 1997ra hobekuntza aldiren batekin tartekatuz, baina, 1997tik 2001era kutsadura diagnostikoa erakusten du.

Ibai-ertzen kontserbazioa

I-140 estaziotik igarotzean ibai-ertzeko basoaren balorazioa eskasa da, batez ere industria eta etxebizitza eraikuntzak dituelako inguruan. Ibai-ertzean kalte gehien eragin duten inpaktuak baso-soiltzeak, nabarmentzeak eta ibaiaren arroaren gutxitzeak izan dira.

Iurretatik igarotzen denean, I-160 estazioaren paretik, ibai-ertzeko basoak degradatuak daude, euren ertzetan ezarri diren hiri eta industria erabilpenen ondorioz.

Ibaizabal ibaiaren balorazio orokorra

27. Taula. Ibaizabal eta Elorrio ibaien egoera.

	<i>Egoera biologikoa</i>	<i>Egoera ekologikoa</i>	<i>Diagnostiko orokorra</i>
<i>I-140</i>	Eskasa	Eskasa	Eskasa
<i>I-160</i>	Eskasa	Eskasa	Eskasa
<i>IE- 140</i>	Onargarria	Onargarria	Onargarria

4.1.2. Flora eta fauna

Flora

Kontuan izanik normalean landarediaren baldintzatzaile diren faktoreak (klima, litologia, topografia...) euskal lurraldearen potentzialitatea zuhaitz-duna da. Soilik gazitasunean, harkaitz gandarretan eta hidromorfia garrantzitsuko eremuetan dauden lurrek izan ditzakete bestelako landaredia komunitateak.

Hala ere, berezko zuhaiztiak aldatu egin dira denborak aurrera egin ahala, leku askotan gizakiarentzat ekonomikoki errentagarriagoak diren espeziekin ordezkatuak izan dira, eta bertan behera utzi diren lekuetan basoaren berezko etapa jarraituekin. Emaizta euskal paisaiaren dibertsifikazioa izan da; gaur egun, landaredi komunitate eta formazio aniztasuna eta aberastasuna dira emaitza. Beraz, Durangoko Jarduera Eremuaren baitako paisaiaren osagarri nagusiak koniferak eta zelai atlantikoak dira, potentzialki hariztiak eta ameztiak behar luketen lurretan.

Artadien eta pagadien kontserbazio egoera, hala ere, askoz ere hobea da. Nekazal balio txikiagoa duten lurrak hartzeak, batez ere artearen kasuan, eragin du bi baso formazio hauen zonalde handiak iristea gaur egun arte. Landaredia potentzialaren eta hauen kontserbazio egoeraren ingurukoak jarraian azaltzen dira modu laburrean.

Pagadiak

- *Espezie nagusia*: FAGUS SYLVATICA pagoa.
- *Espezie kideak*: gorostia eta otsalizarra pagadi oligotrofoetan. Hurritza, elorri zuria, hostazuria eta elorri beltza pagadi basofilo eta onbrofiloetan. Arrosa eta ezpel generoko espezieak pagadi basofilo eta xerofiloetan.
- *Txoko ekologikoa*: Pagoaren balio ekologiko zabalak izaera edafiko eta topografiko anitzeko biotopoak hartzeko aukera ematen dio, beraz, bi pago mota ikus daitezke. Eremu menditarreko zorurik sakonenetan landaredia nagusia pagadi basofilo eta onbrofiloak dira. Kareharri gogorrak dauden lurretan, aldapa handikoetan eta euriek 1.200 mm gainditzen ez dituztenetan pagadi basofilo eta xerofiloak ageri dira.
- *Kontserbazio egoera*: Altuera handi samarrean egotearen ondorioz, normalean 600 metrotik gora, pagadien kontserbazio egoera ona dela esan daiteke, gainontzeko osaketa naturalek zigor gogorragoa jasan dute.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Saxifraga hirsutae - Fageto S. Y Carici sylvaticae - Fageto S., Epipactido helleborines-Fageto S.

Pagadiak 600 metrotik gora egon ohi dira, atmosferako hezetasuna altua den lekuetan, batez ere laiotzean. Hauek kaltzikolak lirateke hego-mendebaldeko sektorean eta azidofiloak ipar-ekialdean.

Lur azidoetan, hauek substratutik zuzenean edo lixivazio naro batetik eratorriak izan, finkatzen da pagadi azidofiloa. Oihanpea ez da oso itxia eta erabat baldintzatzen du pagadien errezelak eragindako itzalak. Basoaren garbiguneetan garoa eta txilarra dira nagusi, baita otadiak ere. Nahikoa ohikoak dira urkia eta hostazuria ere. Pagadi hauen nagusitasuna agerikoa den eremua askotan bazkaleku bihurtu dira, eremurik altuenetan, eta bertan sartu dira oreina bezalako alpetar espezieak.

Kareharria nagusi den eta aldapa handiko egoerak jasotzen diren mendilerroetan, bada bigarren pagadi mota bat, "pagadi xerofiloa" deitzen dena. Bertan, berezko flora ezinean ibili ohi da hezetasunaren ondorioz; aldiz, espezie berriak sortzen dira eta horien artean azpimarratzekoak dira orkidearen hainbat genero. Lurralde eremu altu eta zailtan izan ohi denez, erabilpen aldaketa oso zaila da eta ondorioz, baso honen erakusgarri txukunak gordetzen dira.

Artadia

- *Espezie nagusia*: artea, QUERCUS ILEX karraska.
- *Espezie kideak*: karraskila, gurbitza, gogortxua, arrosa eta abaritzia.
- *Txoko ekologikoa*: harkaitza karedunei lotua azaldu ohi da ia beti, hauen gainean azaleko lurra sortu ohi da, urari eusteko gaitasun gutxikoa. Aldapa handiko edo gandor eta ezproi eremuetan, bestelako osaketak izateko eremu zaila.
- *Kontserbazio egoera*: iristeko eremu zailetan egoteak eta ez produktiboak izateak zaila egiten du lur hauek nekazaritzarako, abeltzaintzarako edo basogintzarako, horrek asko lagundu du kontserbazioan.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Lauro nobilis-Querceto ilicis S., Spiraeo ovobatae - Querceto rotundifoliae S. Y Querceto rotundifoliae S.

Kareharriko erdiaren baitan, berezko harria gogorra da eta lurra murrizta, beraz, artedi kalzikolak izango lirateke landaredi heldua osatuko luketenak.

Ameztiak

- *Espezie nagusia*: erkametza, QUERCUS PYRENAICA ametza.
- *Espezie kideak*: gorostia, elorri zuria, pagoa, otea eta txilarra.
- *Txoko ekologikoa*: ametza normalean ura eusteko gaitasun gutxi duen lurrean izan ohi da, eremu onbloklimatiko hezeetan (600-900 mm.), harea-lurretan.
- *Kontserbazio egoera*: Euskal Herrian ez dira oso ohikoak ameztiak, batez ere kantauriar isurialdean, normalean gandorretan eta mendi silizeoen egutera izan ohi dira.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Melampyro pratensis - Querceto pyrenaicae S. Y : Festuco heterophyllae-Querceto pyrenaicae S.

Ingurunean ametza beti bereziki lehorrak diren egoera edafotopografikoek baldintzatuta dago: hegoaldeko esposizioan, harea-substratuetan... Bere lore osaketa eta belaunaldiz belaunaldiko ordezkapenetan antza du harizti azidofiloena, are gehiago, ohikoa da bi espezien arteko hibridazioa.

Hariztiak

- *Espezie nagusia*: QUERCUS ROBUR.
- *Espezie kideak*: lizarrak, astigarra, hurritza, elorri zuriak, elorri beltzak, zuhandorra eta harizti mesotrofoen sasiak. Gaztainondoak, urkiak, gorostiak, eta zumalakarrak harizti oligotrofoetan.
- *Txoko ekologikoa*: harizti mesotrofoak baso higo-mesofitikoak, neutrofiloak edo basofiloak dira eta elikagaietan aberatsak diren lurretan osatzen dira. Bestalde, harizti oligotrofoak oinarrian txiroak diren lurretan osatzen dira.

- *Kontserbazio egoera*: Baso hauek oinarrian zuten lurraren etengabeko erabilpenak (normalean arantako eremu lauetan ziren) ekidin egin du hauen kontserbazioa eta eraldatu egin dira larretan eta labore-lurretan bilakatuz. Gaur egun, garai batean hartzen zutenaren zati txiki bat hartzen dute.
- *Kidego fitsoziologikoak*: Polysticho setiferi-Fraxineto excelsioris S., Hyperico pulchri-Querceto roboris S y Crataego laevigatae-Querceto roboris S.

Euskal Herriko kantauriar isurialdeko haranetan eta zelaian ezartzen dira hariztiak. Baso hauek lurzoru sakon eta aberatsetan osatzen dira, eta horrek lore sail jarraitu anitza sortzen du, bai basoan eta baita honen amaieretan ere. Harizti mestrofoak dira, “baso atlantiarak” deitzen direnak, eta espezie anitzeko zuhaiztiak dituzte (haritzak, astigarrak, lizarrak, gaztainondoak...). Euren egungo kontserbazio egoera prekarioa da, bere eremu potentziala laboreetarako eta sega zelaietarako erabili baita.

Bada harizki kantauriar hauen eratorri azidofilo bat, aberastasuna askoz ere txikiagoa den arren. Zuhaitz masetan nagusi da haritz kanduduna, nahiz eta oso ohikoa den zuhaizti ez horren itxiak aurkitzea, horietan ohikoak dira ote zurien, genisten eta txilarren moduko sastrakak izatea. Hartzen dituzten lurak oso txiroak diren arren, potentzialki hauen sorrerarako egokiak ziren lurretan gizakiak segarako zelaiak eta hazkuntza azkarreko espezieak ezarri ditu.

Aurrez aipatu den moduan, gaur egun haritz kandudunak eraldatutako eremu gutxitan daude eta ia azalera osoa zelai-labore atlantiarrek eta koniferen birpopulaketek hartzen dute.

Erriberako basoak

- *Espezie nagusia*: haltzak, zumarrak eta makalak. ALNUS GLUTINOSA.
- *Espezie kideak*: lizarrak, haritzak, sahatsak, hurritzak, ahien zuriak eta atxaparra.
- *Txoko ekologikoa*: lurzoru alubialen gainean garatzen dira eta hezetasuna, izaera heterogeneoa, porositate altua eta azalerako aire ona dira hauen ezaugarri nagusiak.
- *Kontserbazio egoera*: erriberako basoen landarediarentzako potentzialki egokiak diren ibarreko lur gehienak eraldatuak izan dira eta sega zelai edo laboreetarako lur bilakatu dira. Hala ere, oso ezaguna da baso mota honek uraren uholdekotasuna baretzeko lanean egiten duen lan ona. Beraz, harroen higaduran beherakada eragiten du egoerak eta uholde larriei aurre egiteko gaitasunean atzerapausoa dakarte; horregatik, gaur egun erriberako basoen berreskurapenari heltzen ari zaio.
- *Kide fitsoziologikoak*: Hyperico androsaemi-Alneto S., Rubio-Populeto albae S. eta beste batzuk.

Ibaien eta erreken erriberetako landaredia kantauiar isurialdean baso mistoak osatzen du, bertan zuhaitzen errezela haltzek, lizarrek eta haritzek elkarbanatzen dute. Behin hazitakoan baso itzaltsua eta oso hezea da, bertan iratzearen ugaritasuna agerikoa da.

Haltzadi kauntariarrek inguratzen dute ipar-mendebaldeko ur jarioa, baina ez dute garapen handirik hartzen. Bestalde, kareharriaren inguruan dauden ibaien ibarrean lizardi-zumardiak dira nagusi.

Hegoaldera dauden zonaldeetan, ibaiaren arroa handiagoa den eremuetan, garatzen dira makaldiak eta zumardiak. Nahiz eta badiren komunitate hauen eredu batzuk, erriberako baso hauek gaur egun oso eraldatuak daude, laboreetarako lur oso produktiboak direlako. Gainera, zumardiek kalte handia jasan dute zumarrak izan duen gaixotasun baten ondorioz, grafiosiaren ondorioz.

Ibaien ertzetan zelaiak eta baso landareak dira nagusi eta kasu askotan hirigintza lanak jasan dituzte. Ondorioz, erriberako basoak zuhaitz solteetara edo zuhaitz ilaretara mugatzen dira.

Bertako basoen desagertzearen ondorioz bestelako baso landareak ezarri ez diren eremuetan sastrakak edo belarkarak ageri dira. Lehenen alorrean otalur azidofiloa eta elorri-lahardia dira nagusi.

Osaketa belarkarek neurri handian egin diote ekarpena Durangoko Jarduera Eremuko paisaiaren osaketari, batez ere, guztietan aiagarrietan, zelai atlantiarrenari. Belar komunitate seminatural hauek, baso landareekin batera, altuera erti eta baxuko azaleretan elementu nagusienak dira. Altuera ertain-altuetan, pagadien nagusitan potentziala, aurreko belarkaren osaketen ordeztatik mendiko zelaiak dira nagusi.

Egungo landaketa (espeziea eta urtea) jabego publikodun mendietan

- BASOBALTZ
Pinus radiata, 1977
- LANDAEDERRA
Pinus radiata, 1962
- MENDIGANA
Larix, Picea eta beste batzuk, 1960
Cipr. Japonica, 1990
Pinus radiata, 1977
Quercus rubra, 1986
Sequoia sempervirens, 1945
Lawsoniana, 1972
Quercus rubra, 1986
Pinus radiata, 1964

Pinus pinaster, 1964

Pinus radiata, 1979

- SAN ROKE BURU

Larix, Picea eta beste batzuk, 1960

Cripto.Japonica, 1990

Pinus radiata, 1977

- ZUAZOLAKO GURUTZE SANTUA

Hostotsuak, 1966

Quercus rubra, 1945

Pinus radiata, 1989

Pinus radiata eta P. pinaster, 1987

- BIDEZELAIA

Pinus radiata, 1975

P. radita y P. pinaster, 1975

Pinus radiata, 1967

Pinus radiata, 1965

Pinus excelsa.pinaster, 1965

Pinus pinaster, 1987

Pinus pinaster, 1965

Pinus radiata, 1968

Fagus sylvatica, 1988

Fauna

Urkiolako Parke Naturaleko ornodunen fauna 126 espeziek osatzen dute, nagusiki jatorri edo / eta dispersio eurosiberiarrekoak. Horietako asko Mehatxupearan diren Espezien EAEko Katalogoan daude.

Anfibioen komunitatea aberatsa da eta balio handiko bi espezie aurkezten ditu: gailurretako uhandrea eta baso-igel jauzkaria, arabar hariztietako ezaugarri den anuroa. Bestalde, narrastien presentzia eskasagoa da, nahiz eta badiren kantauriar isurialdera zabaltzen diren espezieak: musker berdea, sugandila bizi-errulea, suge leuna eta sugedorri kantabriarra. Iberiar penintsula kontuan izan ezkerro arraroak direla esan daiteke.

Hegaztien artean harrapariak dira nagusi. Horien artean saia, aztorea, zapelatz liztorjalea eta belatz handia. Balio gehien duenetako, Euskal Herrian gutxi direlako, mendi-tuntuna da, gailur handietako harkaitz eta zelaietan soilik egon ohi da.

Ugaztunen faunaren ezaugarria dira intsektujale txikiak eta karraskariak, muturluze piriniarra bezalako bereziak dira aipagarriak, edo ur-satitsua eta satitsua. Haragijaleen artean lepahoria, bisoi europarra eta basakatua.

4.1.3. Paisaia eta ekologia intereseko guneak

Urkiolako Parke Naturalak Aramotzeko mendizerrako lursail altuenak biltzen ditu, modu horretan kareharri hesi handia sortzen du Arratia, Durangaldea eta Aramaioko aranaren artean, ibaien kauntariak eta mediterraneak arroak ere bereizten ditu. Mendi hauen posizio geografiko eta fisiografikoak paisaia malkartsua sortzen du, harkaitzak eta bazkaleku altuak dira nagusi, beheaxeago eta mendi hauen magalean pinudiak, artadiak eta pagadiak agertzen dira. Urkiolako paisaia multzoa hego-ekialdetik ipar-ekialdera doan ardatzean kokatzen diren kareharri mendizerra handiek osatzen dute; gandar zorroztko eta malda handiko harkaitz handiak daude. Gandor hauen behealde artadi ilunek, pagadiak eta landaketa zonalde handiek hartzen dute, paisaia aberasgarria eginez. Paisaian eraldaketa gehien egin dutenak azpiegiturak izan dira, azpimarragarria trafiko handia duen BI-623 errepidea, izan ere, parkea erdi-erditik zeharkatzen du iparraldetik hegoaldera; harrobiek egindako inpaktu bisuala ere oso handia da.

4.1.4. Paisaiaren eta biodibertsitatearen mantenuan eragina duten ekimenak

Aurrez esan dugun bezala, Durango udalerriak 10,79 Km² ditu azaleran, gutxi gora behera.

Lurraren erabilpen banaketari dagokionez, 1996an Durangoko lurraldearen %19,12a ez zen produktiboa; %22,01a zelaiek hartzen zuten; %2,42a bazkalekuak ziren; azaleraren %3,45a sastrakak ziren; %51,67a zuhaitz askoko basoei eskaintzen zitzaion; %1,21 zuhaitz gutxiko basoak ziren eta %0,09a laborantza intentsiborako zen. Beraz, esan dezakegu udalerriaren zati handiena basoek hartzen dutela eta horietan, garrantzitsua dela pinuak duen presentzia.

28. Taula. Lurraren erabilpenaren banaketa lurralde eremuen arabera (hektareak). 1996.

	<i>Ez produktiboa</i>	<i>Zelaiak</i>	<i>Bazkalekuak</i>	<i>Sastrakak</i>	<i>Zuhaitz askoko basoak</i>	<i>Zuhaitz gutxiko basoak</i>	<i>Laborantza intentsiboa</i>	<i>Guztira</i>
Euskal AE	45.259	111.078	25.378	53.971	359.547	30.458	97.790	723.481
Bizkaia	19.129	50.867	4.114	17.533	121.259	6.985	1.836	221.723
Durangaldea	2.630	6.571	347	1.188	20.238	760	68	31.802
Durango	205	236	26	37	554	13	1	1.072

Iturria: EUSTAT. Eusko Jaurlaritza. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Baso errolda 1996.

Hurrengo taulan ikus dezakegu bertako espezien aldean, nagusi direla koniferen basoak:

29. Taula. Zuhaitz-dun baso azalera lurralde eremuaren eta espeziearen arabera (hektareak). 1996.

	<i>Atlantiar basoa</i> (%)	<i>Artea</i> (%)	<i>Eukalipto</i> (%)	<i>Pagoa</i> (%)	<i>Radiata pinua</i> (%)	<i>Basapinua</i> (%)	<i>Erkametzak</i> (%)	<i>Beste koniferak</i> (%)	<i>Beste hostotsuak</i> (%)	<i>Konifera denak</i> (%)	<i>Hostotsu denak</i> (%)	<i>Espezie denak (hektareak)</i>
Durangaldea	4,90	2,30	0,15	9,33	77,45	0,48	0,009	8,68	2,17	86,61	13,36	20.998
Durango	5,29	0,17	-	5,46	83,59	-	-	2,11	3,35	85,71	14,28	567

Iturria: EUSTAT. Eusko Jaurlaritza. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Baso errolda 1996.

Basoen birpopulatzeak

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko datuen arabera, 2000-2005 urte artean Durangoko udalerriak honako birpopulaketak egin ditu: 56 Ha. radiata pinua, 3,0 Ha. pinaster pinua eta 0,50 Ha pago.

Baso suteak

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko datuen arabera, 1999-2005 urte artean Durangon 4 sute izan ziren eta izan 6.000 m²-tan zuen eragina.

30. Taula. Udaltalde 21en kide diren udalerrietan izandako suteak 1999 eta 2005 artean.

UDALERRIA	Suteak	Erretako azalera (m²)
Abadiño	10	19.800
Atxondo	1	3.000
Berriz	12	64.150
Durango	4	6.000
Elorrio	12	35.300
Garai	4	10.000
Iurreta	5	800
Izurtza	1	10.000
Mañaria	2	Alarma faltsuak
Otxandio	0	-
Zaldibar	10	29.000
GUZTIRA	61	178.050

Iturria: EUSTAT. Eusko Jaurlaritza. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila. .

Erauzteak

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren informazioaren arabera udalerrian ez dago erauzketarik.

4.2. Lurralde antolaketa eta planifikazioa

4.2.1. Lurraldean Antolaketarako Artezbideak (LAA) eta Lurraldearen Zatikako Plana

Lurraldearen Antolaketarako Artezbideak

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolaketarako Artezbideak (LAA) dira luraren legedietan aurreikusitako antolaketa planak eta luraren antolaketarako tresnak osatzeko erreferentziazko marko nagusia.

Artezbideek finkatzen dute jarduerarako eremu egoki gisa lurraldearen antolaketarako eskualdeko eremua, gure kasuan Durangoko Jarduera Eremua.

Lurraldearen Antolaketarako Artezbideek zonalde hauen mugapena “jarduera” irizpideen arabera zehaztu behar dira, eta bera osatu behar dute udalerri ardatzak eta bere eragin eremuan dauden udalerriek. Honako baldintzak jaso behar dira Lurraldearen Jarduera Eremu ezberdinen osaketa eta egituratze egokia egiteko:

- Homogenitate geografikoa
- Bere inguru geografikoarekiko hirigune baten edo gehiagoren lidergoa
- Osagarritasuna, barne mailako harreman handiagoa dagoenean kanpo mailakoa baino.

Irizpide horiek kontuan hartuz osatu da Durangoko Jarduera Eremua, Durango da eremuko ardatza eta berarekin batera dira honako udalerriak: Abadiño, Amorebieta - Etxano, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

LAA-ek proposatzen duten Lurralde Ereduak lurzorua kudeaketarako irizpideak ematen ditu bizitegitarako edo jarduera ekonomikorako luraren erabilpen gaitasuna definituz eta horretarako landuko diren eremuak zehazten ditu; bereziki Amorebieta-Etxano – Durango ardatza zehaztuz. Azken urtetako joera ikusita, ardatz hau zabaldu ahalko litzateke Amorebietatik Berriz, Abadiño, Atxondo eta Elorrio arte. Hala ere, azpimarragarria da eremuak Erkidego Autonomoaren jarduera industrialen baitan hartzen duen garrantzia. Bizitegitarako luraren erabilpenaren aurreikuspenei dagokionez, Durango-Abadiñoaren hazkunde garrantzitsua proposatzen da, eta bigarren etxerako erabilpena bezalako aukerei ez zaie garrantzirik ematen.

Ingurune Fisikoaren gaineko irizpideei dagokionez, Durangon ia-ia ez dute eraginik; izan ere landa lur gutxi dago Durangon, soilik, Mugarrara lotutako eremuak du paisaia eta natura interesa eta bere kontserbazioa Urkiolako Parke Naturaleko zati izateak bermatzen du.

Lurraldearen Zatikako Plana

Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearraren (EHSP) baitan eta Lurralde Antolamendurako Artezbidetean (Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, 12/2/97an EAO.-n argitaratuak) zehaztutako jardute eremuen barruan Durango ardatz gisa ageri da Durangoko Jarduera Eremuan.

Lurraldearen Zatikako Planek (LZP) LAA-ek zehazten dituzten udalerriz gaindiko guneen garapena dute xede, berak aurkeztutako irizpideak zehaztuz.

Durangoko Jarduera Eremua Lurraldearen Zatikako Plana lantzen ari da eta bere lehen bi faseak bete ditu: Informazioa eta Diagnostikoa egitea eta Aurrerakinaren osaketa.

Durangoko Jarduera Eremuko LZPren aurrerakina 2002ko otsailean osatu da eta COTPV-ra (Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Komisiora) bidaltzekotan da.

Bere Memorian proposatzen diren helburu nagusiak hauek dira:

- Durangoko Jarduera Eremua indartu Euskal Herriaren eta Bizkaiaren artikulaziorako gako gisa, bere kokapen estrategikoagatik.
- Aranaren amaierako urbanizazio handiaren eta baserrian oinarritutako nekazal jardueraren arteko elkarbizitza zaintzea.
- Lurraldearen erabilpen egoki horretan oinarritutako hiri garapena bultzatzea.
- Ibaizabalgo korridorearen konpetibitate eta birkualifikatze elementuak indartzea.
- Eusko Tren Jarduera Eremuaren elementu artikulatzailea: bikoizketaren ezaugarri baikorrak.
- Bitarteko naturalean eta landa paisaiaren babes aktiboa bermatzea, paisaia kalitatearen berme den baserriaren bideragarritasuna ziurtatuz.

Etxebizitzari dagokionez Abadiño, Durango, lurreta eta Izurtza hiri multzoa aztertzen da eta 2000-2003 urteen artean 4.914 etxebizitzaren eskaintzaren beharra aurreikusten da.

Garraioari dagokionez, lurraldeko errepide sareak, egituratze lanerako, Durangorekiko izaera periferikoa du. Tren garraioari dagokionez, Trenbide Sarearen sektoreko Lurralde Planean jasotzen da eta Durangoren hiri antolaketan eragina duten hainbat faktore ditu. Alde batetik, Eusko Treneen zerbitzuaren hobekuntza Amorebieta eta Eibar arteko trenbidearen bikoizketarekin eta Durangotik igarotzean bide lurperatzearekin. Eragin ezkorra du honek Larrinagatxun, eta batez ere, Tabira eta Izurtza artean.

Urkiolako Parke Naturalaren Erabilpen eta Kudeaketarako Gida Plana (EKGP)

Ingurumenaren eta Lurraldearen Antolaketarako Sailaren ekainaren 18ko 147/2002 dekretuaren bidez Urkiolako Parke Naturaleko Baliabide Naturalen antolaketarako plana onartu zen.

Urkiolako Parke Naturalaren lurraldeak zortzi udalerri hartzen ditu bere baitan, horien artean dago Durango. Beraz, Urkiolako parkearen baitan dauden lur eremuak Antolaketa Planaren irizpideen arabera antolatuko da.

Gida Planaren helburuak honakoak dira:

- Erabilpen eta jardueren kudeaketarako arauak definitzea eta garatzea eta eremu natural babestuen helburuak beteko direla bermatzeko baliabide naturalen mantenua ziurtatuko duten ekinbideak egitea. Horren baitan ulertzen dira natura fenomenoek interpretazioa, ingurumen heziketa, ingurune naturalaren erabilpen antolatua eta parkean edo inguruan bizi diren komunitateen garapen eta ikerketa sozioekonomikoa.
- Baliabide mota bakoitzarentzat babes araudia definitzea.
- Parke Naturalaren barruan garatzen diren izaera sozioekonomikodun jarduerak zehaztuko dituzten arau orokorrak definitzea.
- Eremuz eremu heziketarako eta aisialdirako zonalde batzuk izan dezaketen potentzialitatea eta eremuaren babesa bateragarri egingo dituen Erabilpen Publikoko Plana osatzea.
- Parkea eta bere inguruaren arteko harreman ona erraztuko duen markoa erraztuko duten neurriak bultzatzea.

4.2.2. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana

Behin betiko onartutako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planei dagokionez, Durangoko udalerriarentzako aurreikuspen zehatzak gutxi dira. Garrantzitsuenei erreferentzia motza egingo diegu:

- Ibaien eta Erreken hertzak antolatzeko Antolaketa Plana - . Isurialde Kantauriarra (Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak onartua). Ibaizabal ibaiaren eta bere isurkideen inguruan babes arau orokorrak aurreikusten dira.
- EAEko Errepideen Plan Orokorra, 355/1992 dekretuaren bidez onartua. Diagnostiko honen beste atal batzuetan garatzen dira aurreikuspenak.
- EAEko Trenbide Sarearen Plana (otsailaren 27ko 41/2001 dekretuak onartua). Udalerria zeharkatzen duen Abiadura Handiko Trenari eta Eusko Treni dagozkion aurreikuspenak jasotzen ditu. Proposatzen den ekinbideetako baten helburua Bilbo eta Durango arteko bidea hobetzea da. Ekinbide hau, hirigintza jarduera funtsezkoa da, ez tren jarduera, ekinbidearen ondorioz hiriguneko lur azalera handia lortuko bailitzateke.
- Hezeguneen Antolaketa Plana (uztailaren 27ko 160/2004 dekretuak onartua).
- Jarduera ekonomiko eta Merkatal Ekipamenduentzako Lurzoru Plana (abenduaren 21eko 262/2004 dekretuak onartua). Iaz egin zen LAAP-aren aurrerakineko

Durangoko Jarduera Eremuaren diagnostikoan hiri egituratzea eta jarduera ekonomikoa aztertzen dira, komunikazio sarea, kalifikatutako lur erretserbak eta eskariaren aurreikuspenak. Zehazki, okupatu gabeko lurren erretserba handienak Amorebietan daude, Durango, Iurreta, Abadiño eta Berriz ditu atzetik eta aurreikuspenak hurrengo 16 urterako 300-400 hektarea ingurukoak dira. Aipatutako erretserbetan 226 hektareako azalera berresten da, beraz, onena litzateke %50eko hazkundera izatea.

4.3. Hiri Egitura eta Planeamendua

Durangoko Arau Subsidiarioen II. Berrikuspena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2005eko apirilaren 25ean (77. zka.). Durangoko udalak, ikusirik azken urteetan izan den garapen urbanistikoa, eta bizitegitarako gordetako lurra ia osorik ahitu denez, Arau Subsidiarioen Bigarren Berrikuspena egitea erabaki du.

Lurzorua sailkapena

Arau Subsidiarioak B motakoak direnez modu honetan sailkatzen da lurzorua:

- Hiri-lurra
- Hirigintzarako erabili daitekeen lurzorua
- Hirigintzarako erabili ezin daitekeen lurzorua

- Hiri-lurra

Kanpo eraztunak ixten duen lurraren gehiena da hiri-lurra, Faustegoienarekin mugan dagoen sektorea izan ezik.

Bizitegitarako erabilitako hiri-lurra gehienbat Arauetan zehazten da, bertan aurreikusten da sektore batzuk zehaztea, barne erreformako plan berezietan garatu ahal izateko. Zehazki 4 PERI zehazten dira: trenbidea, San Fausto, San Roke eta Artabilla, Ibaizabalgo PERIa kontuan hartu gabe, izan ere, jada hirigune gisa landua dago eta ia osorik eraikitzen ari baita.

- Hirigintzarako erabili daitekeen lurzorua

Kanpo errepide eraztunaren baitan bizitegitarako erabili daitekeen hiri-lurdun sektore bakarra dago, Fauestegoiena deitzen dena eta ekialdetik lotzen zaiona aipatutako eraztunari. Faustegoiena San Fausto auzoaren hegoaldera libre geratzen diren lurrek osatzen dute, euren izaeragatik bizitegitarako eta merkataritza intentsiborako egokiak diren lurrak dira.

Eraztunetik kanpo Eguzkitza ingurua soilik geratzen da hirigintzarako erabiltzeko moduan, bertan eraikiko dira Eguzkitza III sektore industrialak behe aldean eta Eguzkitzagoiena erdialdean; ikuspegi ederreko zonaldea da, dentsitate txikikoa baina irisgarria. Bi zonaldeen artean eremu berdeak daude, jarduera industrialak berez ingurumen kalitate handikoa izan behar duen eremuari egin diezaiokeen kaltea ekiditeko.

- Hirigintzarako erabili ezin daitekeen lurzorua

Hirigintzarako erabili ezin daitekeen lurzorua oso mugatua da udalerrian, Mugarra aldera mendebaldean geratzen den eremua soilik dago, eta ia osorik basogintzarako erabiltzen

da, jarduera pribatu edo publikorako. Durangon ez dago ermita baten edo batzarrerako espazio publiko baten bueltan egongo litzatekeen baserri multzorik. Larrinagatxu hartu dezakegu mintzagai, baina, legez ezin da hirigune gisa aipatu.

Lurraldearen egituratze orokor eta organikoa

Errepide sarea

Durangoko errepide sarearen egituratze prozesua aurreko planeamenduak zehazten du, bertan zehazten dira bi eraztun zentrokide eta egitura erradial bat biak elkartzeko eta trafikoa kanpo eta barne norabidean jartzeko.

Berez, kanpo eraztuna estuegia da igarotzen den trafiko guztiari aurre egiteko. Garrantzitsua da kontu hau, izan ere arazo hori konpontzearen arabera ikusiko da nahikoa da udalerriz gaindiko gertueneko sarea. Durango-Beasain deitzen den korridorea, berez Lebarion jaiotzen dena Abadiño eta Atxondotik igarotuz Elorrioko saihesbideraino, eskualdeko sarearentzako funtsezko pieza da, eta baita sare horren gaitasuna nahikoa izan ala ez erabakitzeko ere.

Barne trafikoari dagokionez, saihestu behar da kalez kalekoa oinezkoen segurtasuna lehenetsiz eta gurpilezko trafikoa arinduz. Irizpide horren ondorioz zebrabideak espaloaren altuerara igo dira, hiri-barrerak gaindituz eta ibilgailuen trafikoa geldoagotuz. Aurreikusitako errepide egituratzeak ahalbidetzen du erdigunetik ardatz erradial eta eraztunen bidez sarrera-irteera bideak aukeratzea. Agian, beharrezkoa izango da hirigunean trafikoa egotea ekidingo duten aparkalekuak jartzea, izan ere, herrirako sarrera geroz eta mugatuagoa izan beharko baita.

Trenbide sarea

Durangorentzat izaera ezberdineko bi aurpegi ditu oinarritzko azpiegitura honek. Alde batetik, Bilbo-Donostia trenbide sarea, bere bidearen bikoizketa egina dago, jada, Durango eta Amorebieta artean, honek asko hobetuko du bidaiaren garraio maiztasuna.

Bestetik euskal Y-koaren bidea dago. Durangorentzat zuzeneko eragin baikorrik ez du izango eta Larrinagatzuko eta Tabirako igarobideetan inpaktu esanguratsua eragingo du.

Trenbide tradizionalari dagokionez, tailerren eta nasaren altxatzeak eta udalerritik igarotzean lurperatzeak, lurpeko geltokia eraikitzeak eta Ezkurdi inguruan Eusko Trenen eraikin nagusia eraikitzeak egungo mendeko Durangoren oinarria ezarriko duen ekintza izarra da.

Eremu libreak

Gaur egun, eremu librearen sistema orokorra bere baitan hartzen duen azalera 486.998 m² da, aurreikusitako biztanleko gutxieneko 5 m²-ko estandarra ziurtatzeko. Beraz, bidalitako planeamenduaren garapenean izaera lokaleko eremu libre asko lortuko dira, eta jarraituko dira lortzen, batez ere trenbidearen PERI-arekin, 2 hektarea lortuko baitira. Gainera, San Rokeburuko Baso Parke publikoak irisgarritasun handia du eta 116.546 m²-ko azalera du, Artabilla-Santikurutz bezala 263.378 m² dituen. Landaederra eta Neberondoko Baso Parkeetan bi eremu ireki daude eta parkeen sistema orokorra osatzeko prestatuak daude, 24.600 eta 36.100 m² -ko azalerarekin.

Ekipamenduak

Ekipamendu gisa Landako Erakustazoka azpimarratzen dugu, Elkartegiarekin eta ostalaritza ekipamenduarekin. Operazio hau hiriko zerbitzu zentroa dakar, eta ekintza anitz hartu ditzakeena. Harreman, erakusketa, merkataritza... azpiegitura honen osagarri gisa daude izaera pribatuko ostalaritza ekipoak: Hotel O'Camiño, Hotel Kurutziaga eta Gran Hotel Durango. Azkenik, ekipamendu pribatuak ere badaude hezkuntza sektorea osatzeko; izaera erlijiosokoak, gurasoen kooperatibak direnak edo Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolak.

Bizitegien eskaintza

Guztira 3.500 etxebizitzaren eskaintza dago, horietako 1.012 babes ofizialeko etxebizitzak dira.

Legeak gutxieneko gisa zehazten dituenak baino 161 etxe unitate gehiago eskaintzen dira Arau hauetan; oinarrian PERIlek eta etxebizitza kolektiborako Egikaritze Unitateak zehaztutakoa oinarri hartuz, hauek etxebizitzaren %30a babes ofizialekoa izan behar dela diote eta kasu batzuetan, %50era iristen da portzentaje hori.

Jarduera ekonomikoak

Hirugarren sektorea

Honezkero finkatuta dauden eraikinetatik haratago hirugarren sektoreko jarduera ekonomikorako lursail huts denak TS-3 Montorreta I sektorean daude. Zatikako Plan hori bi egikaritze unitatetan garatu zen, horietako lehena jada eraikia eta urbanizatua dago, neurri handi batean. 2. unitatearen kudeaketa orain abiarazten da 65.640 m²-ko azalera baten gainean eta hirugarren sektorerako 29.728,8 m²-ko azalera hartzeko gaitasuna izango du. Interesgarria da merkatal-zentro handien ugaritzea mugatzeko borondatea.

Industria

Eskaintza hirigintzarako erabili daitezkeen Eguzkitza II eta Eguzkitza III sektoreetara mugatzen da. Lehenak zatikako planeamendu onartua du eta hiru unitatetan dago banatua kudeaketarako egokituz, horietako batek urbanizazio eta birbanaketa proiektu onartuak ditu eta lanak enkantera jartzea besterik ez da falta. Arauek hirigintzarako erabili daitezkeen industria lurzoru gisa zehazten dute Eguzkitza III sektorea, 194.764 m² dituen. Sektore horretan Udalak bere jabetzako lur asko du, horrek industriarako lurzoruaren eskaintza babestea eragingo du, orain arte eskumen hori ez izateak azken urteetan halakorik izatea oztopatu baitu.

Etxebizitza eskaria udalerrian

Durangon dagoen etxebizitza eskariaren inguruko datuak biltzen dira hemen, 2006ko martxoaren 15a arteko daturik esanguratsuenak aipatzen dira jarraian.

31. Taula. Durangoko etxebizitza eskariaren datuak.

	ESKARIA								
	EROSKETA			ALOKAIRUA					GUZTIRA
	Berria	Erabilia	GUZTIRA	Soziala	BOE	Bizigune	Udal programak	GUZTIRA	
KUPOAK									
Ezinduak	11	6	12	5	3	5	2	6	14
Guraso bakarrekoak	32	17	32	40	25	32	14	46	61
Familia ugariak	11	7	12	5	5	4	2	4	14
4 urteko antzinatasuna	143	58	143	57	10	46	16	69	161
35 urtetik beherakoak	1.516	710	1.518	625	459	563	237	797	1.772
Kupo orokorra	397	219	407	294	223	237	95	348	542
UC-ko kide									
Bat	1.677	789	1.682	762	533	665	276	947	1.994
Bi	272	137	276	151	107	127	54	183	346
Hiru	78	40	79	44	37	43	14	61	105
Lau edo gehiago	83	51	87	69	48	52	22	82	119
TITULARREN SEXUA									
Emakumezkoa	590	289	591	352	239	303	136	422	774
Gizonezkoa	924	436	927	385	272	352	136	492	1.078
Emakumezkoa / Gizonezkoa	326	178	334	176	137	154	61	225	411
Daturik gabe	270	114	272	113	77	78	33	134	301
DIRU SARRERAK									
< 3.000	0	0	0	36	24	22	8	37	37
≥ 3.000 y ≤ 9.000	6	4	6	236	172	198	102	273	277
>9.000 y ≤ 15.100	713	385	721	350	241	299	135	413	822
>15.100 y ≤ 21.100	785	350	790	254	192	225	81	332	817
>21.100 y ≤ 27.100	455	212	456	123	76	113	34	173	459
>27.100 y ≤ 33.100	148	65	148	26	19	29	6	44	148
Eskatutako diru sarrerak egiaztatu gabe	3	1	3	1	1	1	0	1	4
GUZTIRA	2.110	1.017	2.124	1.026	725	887	366	1.273	2.564

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

Aurreko taulatik ondorioztatzen dugu 2.564 pertsonen etxebizitza eskatzen dutela Durangon. Ikus dezakegu eskatzaileen %83ak nahiago duela erostea alokatzea baino, aldiz, pertsonen ia %50 prest izango litzateke alokairuan etxebizitza hartzeko. Azken hauetatik gehiengoak etxebizitza sozialetara begira jartzen da (eskariaren %80,6a). Jabetzan etxebizitza nahi duten gehienek etxebizitza berria nahi dute, nahiz eta %48a prest izango litzatekeen erabilitako etxebizitza erosteko. Modu berean, ikus dezakegu eskatzaileen gehiengoak 35 urtetik behera duela, bai alokairuaren eta baita erosketaren kasuan ere. Eskatzaileen sexuari dagokionean, eskatzaileen %44 gizonezkoak dira eta %28a emakumezkoak. Etxebizitza beteko lukeen pertsona kopuruari dagokionez, ikus dezakegu kasu gehienetan pertsona bakarrak hartuko lukeela. Pertsonen gaitasun ekonomikoari dagokionez, jabetzan etxebizitza eskatu duten gehiengoaren diru sarrerak >9.000 eta ≤ 15.100 eta >15.100 eta ≤ 21.100 artean daude, horiek baitira eskatzaileen %71,13a; 21.100 eta 27.100 euro arteko diru sarrerak dituzten eskatzaileak ere asko dira, eskariaren %21,46a. Etxebizitza alokairuan jaso nahi dutenen artean errealitatea oso aldakorra da, pertsona hauen gaitasun ekonomikoa ere >9.000 eta ≤ 15.100 eta >15.100 eta ≤ 21.100 artean kokatzen baita (pertsonen %58,5a); nahiz eta 3.000 eta 9.000 euro arteko pertsona kopurua ere altua den (eskatzaileen %21,4a). Modu honetan, azpimarratzen dugu etxebizitza jabetzan eskatu duen inork ez duela 3.000 baino diru sarrera txikiagorik, aldiz, modu horretako etxebizitza eskatu duten pertsonen %3a egoera horretan dago. Bestalde, 27.100 eta 33.100 euro arteko diru sarrera duten pertsonak jabetzan eskatzen dutenen %7a dira, aldiz, alokairuan etxebizitza eskatzen duten pertsonen %3a egoera horretan dago. Azkenik, 14 pertsona ezindu erregistratzen dira etxebizitza sozialaren premian.

32. Taula. Udalerrian erroldatuta dauden etxebizitza sozialaren eskariaren datuak.

	ESKARI ERROLDATUA								
	EROSKETA			ALOKAIRUA					GUZTIRA
	Berria	Erabili a	GUZTIRA	Soziala	BOE	Bizigune	Udaleko programak	GUZTIRA	
KUPOAK									
Ezinduak	5	3	5	2	2	2	0	3	6
Guraso bakarrekoak	15	8	15	14	7	14	3	16	25
Familia ugariak	6	4	7	2	2	1	1	2	7
4 urteko antzinatasuna	32	13	32	13	3	10	2	16	37
35 urtetik beherakoak	470	218	470	183	136	162	42	232	549
Kupo orokorra	164	92	170	113	84	81	26	132	215
UC-ko KIDEA									
Bat	509	235	512	230	162	191	50	284	617
Bi	111	59	112	52	36	45	11	64	132
Hiru	31	13	31	13	13	11	3	17	37
Lau edo gehiago	41	31	44	32	23	23	10	36	53
TITULARREN SEXUA									
Emakumezkoa	186	82	186	106	78	88	26	126	247
Gizonezkoa	286	135	287	121	81	106	20	157	339
Emakumezkoa / Gizonezkoa	143	84	147	70	57	54	20	84	164
Daturik gabe	77	37	79	30	18	22	8	34	89
DIRU SARRERAK									
< 3.000	0	0	0	13	5	7	1	13	13
≥ 3.000 y ≤ 9.000	2	1	2	74	53	61	15	87	88
>9.000 y ≤ 15.100	246	134	250	103	75	88	32	120	278
>15.100 y ≤ 21.100	250	115	253	80	63	70	19	104	265
>21.100 y ≤ 27.100	151	66	151	48	32	35	7	64	152
>27.100 y ≤ 33.100	43	22	43	9	6	9	0	13	43
Eskatutako diru sarrerak egiaztatu gabe	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	692	338	699	327	234	270	74	401	839

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

Aurreko taulan udalerrian erroldatuta dauden pertsonen etxebizitza eskaria erakusten da. Durangon etxebizitza eskatzen dutenetatik (2.564) 839 udalerrian erroldatuta daudela ikusten dugu. Kasu honetan ere gehiengoek nahiago dute etxebizitza erosi alokatu baino. Eskatzaileen gehiengo (%65,43) 35 urtetik beherakoa da. Kasu gehienetan pertsona bakarrek beteko luke etxebizitza. Eskatzaileen diru sarrerari dagokionez, etxebizitza erosi nahi dutenen gaitasun ekonomikoa >9.000 eta ≤ 15.100 eta >15.100 eta ≤ 21.100 euro artean dago, nahiz eta altua den 21.100 eta 27.100 euro artean jasotzen dutenen

kopurua. Alokairua eskatzen dutenen artean gaitasuna txikitu egiten da, 3.000 eta 9.000 euro arteko sarrerak dituzten pertsona gehiago baitaude (eskariaren %25a). Azkenik, aipatu behar da gizonezkoen portzentajea handiagoa dela emakumezkoena baino (%40 eta %30).

4.4. Ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa

Arau Subsidiarioen II. Berrikuspenean interes kultureko elementuak, eraikinak eta eremuak zehazten dira eta uste da eraikuntza eta lurraren erabilpena mugatuko duten babes neurri bereziak behar dituztela.

Babes arkeologikoa duten eremuak

- Merkatuko Atariko Errota
- Zumardiko Atariko Errota
- Santanoste 8 etxea
- Muruetako Dorretxea
- San Bartolomeko aintzinako basiliza
- Tabirako San Pedro eliza eta Andre Maria Arrosariokoaren kapera
- Aranekoa burdinola
- Zuazolako Gurutze Santuaren basilizako orubea
- Santa Luzia antzinako basiliza eta baserria
- Artatxagako historiaurreko tumulua

Babestu beharreko eraikinen katalogoa

- Izaera erlijiosoa duten eraikinak:

- Uribarriko Andra Mariren basilika
- Santa Ana parrokia
- Tabirako San Pedoren eliza
- Magdalenaren basiliza
- Kurutze Santuaren basiliza
- San Rokeko basiliza eta baserria
- San Fausto parrokia
- Santa Susanaren monasterioa. Komentu kalea 1
- San Frantziskoren monasterioa. Balbino Garitaonandia plaza
- Siervas de Jesus komentua. Intxaurrondo 32
- Carmelitas Descalzas komentua. Intxaurrondo 17

- Izaera zibileko eraikinak

- Durangoko Udaletxea
- Etxezarreta Jauregia. Arte eta Historia museoa
- Larrizko dorrea
- Berriko etxea. Azoka kalea
- Mendizabalgo antzinako burdinola
- Eusko Trengo Transformazio zentroa. Alluitz kalea

- Murueta Torre baserria
- Arrizabalaga eskolak. B. Ertzilla kontserbatorioa
- Zumalakarregi kaleko 8, 10, 12 eta 14 etxeak
- Zumalakarregi kaleko 1 etxea
- Zumalakarregi kaleko 2 etxea
- Kurutziaga 11 etxea
- Garai Jauregia. Kurutziaga 13
- Gorostiza Jauregia. Ertzaintza
- Zalditegien Jauregia. Zeharmendieta 1
- Jauregia. Kurutziaga Hotela
- Kurutziaga 48 etxea
- Fause kalea 7ko Aranaga txaleta
- Uribarri erresidentzia. San Agustinalde
- Bruno Maurizio Zabalaren jaiotetxea
- Bruno Maurizio Zabala 5 etxea
- Bruno Maurizio Zabala 9 etxea
- Agirrebengoa etxea. Pinondo 1
- Astarloa etxea. Pinondo 4
- Etxe Zuria eta Orue Jauregia. Pinondo 5 eta 6
- Foralen etxea, Pinondo 8 eta 9
- Gasteiz Bidea 2 Jauregia. Gran Hotel Durango
- Arraibi Jauregi etxea. Goienkalea 28
- Ampuero etxea. Santa Ana plaza.
- Santanoste 8ko baserria
- Kalebarriako liburutegia
- Aranekoa burdinola. Tabira 47
- Antzinako hiltegia. Ibaizabal.

- Intereseko elementuak:

- Kurutziagako gurutzea
- Pinondoko gurutzea
- Tabirako gurutzbidea
- Ezkurdiko lorategiak, iturria, kioskoa eta eskulturak.
- Pinondoko lorategiak, iturria eta eskultura.
- Tabirako lorategiak.
- Castejon antzinako etxeko parkea
- Iturriak Kurutziaga kalean, Jesuiten parean eta Garai Jauregiaren alboan.
- San Roke iturria.
- Plleria iturria eta mugarria
- Gasteiz bideko mugarria
- Etxezarreta eskultura
- Tabirako estela

- San Anako arkua eta harzola
- Andra Mariko ataria
- Santa Anako zubia eta presa
- Pinondoko Agirrebengoa etxeko lorategia
- Ibaizabal ibaiko Arripausueta presa.
- Ibaizabal ibaiko Mendizabal presa.
- Arriluzea 3ko Tabirako atea
- Mañaria ibaiko San Agustin presa
- Mañaria ibaiko Uribarriko presa
- Murueta Dorreko Deabruaren Zubia
- Mañaria ibai gaineko trenbidearen metalezko zubia
- Intxaurren 9 eta 11ko San Bartolomeren estatua.
- Maria de la O-ren estatua. Udaletxea.
- Txatxienako Garai Jauregiko iturria eta garbilekua.
- *Ferretera Vizcaina*-ko burdinezko zubia.
- Neverondoko ingurua.
- San Rokeburu ingurua.
- Santa Luzia ingurua.

4.5. Mugikortasuna eta garraioa

4.5.1. Azpiegiturak: ezaugarriak eta proiektuak

Udalerria zeharkatzen duten azpiegiturak

Durangoko eskualdea lau errepide ardatz garrantzitsuk mugatzen dute. Horietako bi Euskadiko Oinarrizko Errepide Sarekoak dira: BI-623, Durango Vitoria-Gasteizekin lotzen duena eta BI-632, Elorriorekin lotzen duena; biak iparralde-hegoaldea norabidean. Hirugarren ardatza A-8 autopista da, iparraldera, ekialdetik hegoalderako norabidean doa eta Donostiarako norabidean paraleloan N-634a dago. Aipatutakoez gain, bada eskualdeko eta auzoarteko errepideen multzoa. Udalerriko sarearen baitan, BI-3333 eta BI-4331 errepideek Durango Matienarekin eta Orozketa norabidearekin lotzen dute, hurrenez hurren.

Trafikoaren intentsitatea

Durango zeharkatzen duten errepide nagusien intentsitate datuak Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio eta Herri lanen Saileko edukiera estazioek eskaintakoak dira.

A-8 autobideko eguneroko batez besteko intentsitatearen garapenak honako egoera erakusten digu:

33. Taula. A-8 autobideko Eguneroko Batez besteko intentsitatea. 2004.

Korridorea	Errepide tarteak	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko tasa pilatua (1999-2004)
			1999 EBI	2000 EBI	2001 EBI	2002 EBI	2003 EBI	2004		
								EBI	% Pisutsuak	
A-8 Autobidea	E. Basauri – E. El Gallo	5,2	29.505	31.226	33.418	34.508	36.725	33.308	12,2	2,5
	E. El Gallo – E. Erletxe	2,5	25.506	27.077	28.730	29.726	31.615	28.701	11,8	2,4
	E. Erletxe – Amorebieta O.	3,1	28.684	30.540	32.312	33.453	36.192	38.821	11,9	6,2
	Amorebieta O. – Amorebieta E.	3,7	22.893	24.269	25.557	26.412	28.292	30.476	11,9	5,9
	Amorebieta E. – E. Durango	8,2	23.815	25.291	26.653	27.545	29.597	31.936	11,9	6,0
	E. Durango – E. Ermua	13,4	17.603	18.559	19.385	20.027	20.945	23.124	15,1	5,6
	Guztira	36,1	22.769	24.117	25.447	26.300	27.985	29.080	12,9	5,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta herrilan Saila, 2004.

Informazio honetatik abiatuz ondorioztatu dezakegu eguneroko batez besteko intentsitatea %21,70 igo dela 1999-2004 epealdian. Azken urtean Amorebieta E. – E. Durango tartean jasotako trafikoa 31.963 ibilgailukoa izan zen, horietako %11,9a ibilgailu pisutsuak ziren. E. Durango – E. Ermua tarteari dagokionez eguneroko batez besteko intentsitateak 23.124 ibilgailu neurtu zituen eta horietako %15,1a ziren pisutsuak.

A-8ko beste edukiera estazioetako datuekin alderatuz gero, ikus daiteke zeharkatze bolumena eta EBI-aren garapena txikiagoa dela muga egiten duen probintziara gerturatu ahala.

Interes handieneko errepidea den N-634ko ibilgailu kopuruari dagokionez, azpimarratu behar dugu Durangotik igarotzen den zatian, 1999-2004 epealdian %12,40ko hazkundera izan dela eguneroko batez besteko intentsitatean. Gainera, horietako %15,4a ibilgailu pisutsuak dira.

34. Taula. Eguneroko batez besteko intentsitatea N-634 errepidean. 2004.

Korridorea	Errepide tarteak	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko pilatutako Tasa (1999- 2004)
			1999 EBI	2000 EBI	2001 EBI	2002 EBI	2003 EBI	2004		
								EBI	% Pisutsua k	
N-634	E. Ibarsusi – Iru Bide	4,0	40.65 6	43.71 6	44.12 9	45.74 1	46.65 4	45.07 2	6,0	2,1
	Iru Bide – Galdakao	1,9	40.17 9	42.88 4	42.83 9	42.68 0	41.15 0	40.70 8	8,3	0,3
	Galdakao – El Gallo	2,8	39.01 0	38.80 5	39.72 0	40.19 0	39.01 9	37.33 1	8,4	-0,9
	El Gallo – Erletxe	1,6	26.84 4	26.89 7	27.53 5	27.42 7	27.37 3	28.18 1	12,0	1,0
	Erletxe – Amorebiet a O.	3,2	21.96 3	23.40 4	23.50 3	23.16 1	22.10 5	23.85 1	14,0	1,7
	Amorebiet a O. – Amorebiet a E.	3,8	21.11 1	22.49 6	22.59 2	22.26 3	21.24 8	22.01 4	16,0	0,8
	Amorebie ta E. – Iurreta	8,5	23.32 6	26.35 4	27.14 4	27.63 0	26.41 5	26.63 0	15,4	2,7
	Iurreta – Matiena	2,9	20.29 2	21.66 3	21.04 5	20.54 6	21.14 1	20.78 1	8,5	0,5
	Matiena – Olakueta (Berriz)	3,7	12.65 7	12.98 6	12.76 8	12.87 6	12.45 2	12.03 9	10,8	-1,0
	Olakueta (Berriz) – Ermua	8,0	7.516	7.493	7.205	7.368	7.220	6.931	12,5	-1,6
	Ermua – L.P. Gipuzkoa (Eibar)	1,6	16.59 3	16.27 5	15.92 9	16.31 2	17.10 9	15.91 6	6,5	-0,8
	Guztira	42,0	22.19 7	23.55 4	23.72 3	23.96 0	23.48 5	23.31 7	11,1	1,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saila, 2004.

BI-636 errepideko ibilgailu kopuruari dagokionez, aipatu behar da udalerritik igarotzen den tartean 2004an batez besteko eguneroko intentsitatea 11.382koa izan zela eta horietako %10a zirela pisutsuak. Azpimarratu behar da jasotako datuetan intentsitatea errepidearen batez bestekoa baino handiagoa dela. Gainera, 1999-2004 epealdian %17ko igoera izan da. Gaintzeko errepide tarteekin alderatuz gero, udalerria zeharkatzen duen Durango-Abadiño tarteak trafiko intentsitate gehien jasotzen duenetakoa da.

35. Taula. Eguneroko Batez besteko Intentsitatea BI-636 errepidean. 2004.

Korridorea	Errepide tarteak	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko Pilatutako Tasa (1999-2004)
			1999 EBI	2000 EBI	2001 EBI	2002 EBI	2003 EBI	2004		
								EBI	% Pisutsuak	
BI-636	Durango – Abadiño	3,0	9.440	9.949	10.206	11.973	12.319	11.382	10,0	3,8
	Abadiño – Apatamonasterio	3,0	12.713	13.010	13.261	13.696	14.322	13.665	11,0	1,5
	Apatamonasterio – Vte. Elorrio O.	0,3	12.795	13.094	13.459	13.791	15.860	15.018	12,5	3,3
	Vte. Elorrio O. – E. Elorrio	2,0	5.352	5.477	5.630	5.769	5.722	5.518	17,0	0,6
	E. Elorrio – Vte. Elorrio S.	2,0	4.698	4.870	4.943	5.032	4.995	4.455	17,0	-1,1
	Vte.Elorrio S. – L.P. (Pto. Kanpazar)	5,6	5.923	6.266	6.232	6.344	6.464	5.880	16,0	-0,1
	Guztira	15,9	7.771	8.087	8.207	8.696	8.951	8.335	12,9	1,4

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saila, 2004.

1999-2004 epealdian, BI-623 errepideko Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI) honakoa izan zen:

36. Taula. Eguneroko Batez besteko Intentsitatea BI-623 errepidean. 2004.

Korridorea	Errepide tarteak	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko Pilatutako Tasa (1999-2004)
			1999 EBI	2000 EBI	2001 EBI	2002 EBI	2003 EBI	2004		
								EBI	% Pisutsuak	
BI-623	Iurreta (Durango) – Izurtza	3,0	11.536	12.607	13.672	13.286	15.906	16.463	10,0	7,4
	Izurtza – Mañaria	2,8	7.866	7.689	8.277	8.706	8.543	8.481	17,3	1,5
	Mañaria – Otxandio O.	13,0	3.238	3.550	3.716	3.715	3.676	3.776	10,0	3,1
	Variante Otxandio	1,4	3.144	3.337	3.493	3.492	3.458	3.482	10,0	2,1
	Otxandio O. – L.P. Araba	0,5	3.818	3.626	3.862	3.836	3.755	4.092	10,0	1,4
	Guztira	20,7	5.074	5.410	5.764	5.765	6.094	6.239	11,3	4,2

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saila, 2004.

Ikus daitekeen moduan, 2004an Durangotik igarotzen den tartean jasotako eguneroko batez besteko intentsitatea 16.463 ibilgailukoa da, 1999-2004 epealdian %30 hazi da. Gainontzeko tarteekin alderatuz gero, hau da trafiko gehien jasaten duena.

4.5.2. Hiribarneko eta hiri arteko mugikortasuna

Udalak, 2004ko Europako Mugikortasuna Jasangarriaren Astearen baitan durangarren ohiturak jasotzen dituen inkesta burutu zuen lehen aldiz.

Europako Mugikortasun Jasangarriaren Asteko Azterketa

Irailaren 16tik 22ra bitartean 2004ko Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astea ospatu zen, Durangok EAEko beste 85 herrirekin batera modu aktiboan parte hartu zuen.

Aste horretan egin beharrekoen artean hiritarrek mugikortasunaren inguruan zuten iritzia jasotzea zegoen. Azterketa horren bidez lagin bat lortu nahi zen, geroago Durangoko Tokiko Agenda 21 proiektuaren baitan gaia lantzeko eta inkestaren emaitzetan ateratako arazoei aurre egiteko ekimenak abiarazteko.

Inkestan parte hartu zuten Mugikortasun Jasangarriaren Astearen baitan Udalaren Bulego teknikora doako Creditransa jasotzera etortzen zirenek, 137 izan ziren orotara betetako txantiloia. 16 galdera zituen eta Durangon bertan eta inguruko udalerrien artean mugitzeko garaian jendeak zituen garraio ohituren ingurukoak ziren. Galderetan honakoak ageri ziren: inguruko udalerrietara joateko bidegorria edo herri arteko autobusa erabiliko ote luketen, Durangon ospatutako Europako Mugikortasun Jasangarriaren Asteaz zuten iritzia, lanera joateko normalean erabiltzen duten garraioa, autorik gabeko egunean (irailak 22) erabiliko zuten garraioa, eta Durangoko Tokiko Agenda 21 ezagutzen zuten ala ez.

Emaitzetatik azpimarratzen dugu inkesta egin zuten gehienak oinez ibiltzen direla udalerri barruan, nahiz eta 1000 metrotik gorako mugimenduetan autoaren erabileran hazkunde kezkagarria (%41) dagoen, oinezkoen kopurua berdinduz. Inkestatuen %81a prest legoke bidegorriak erabiltzeko Durango, baldin eta baleude. Udalerri arteko autobusaren erabilerari dagokionez, egotezkerotan, %50ak erabiliko lukeela erantzun zuen eta %36ak esan zuen ezetz.

Garraio publikoa

Durangoko garraio publikoaren eskaintza nagusia Bizkaibusen lineak dira:

- A3911: Durango - Amorebieta - Lemoa – Galdakao Ospt. - Bilbao. Ordu erdiz behin egunero.
- A3912: Eibar - Ermua - Durango - Galdakao Ospt. - Bilbao. Ordu eta egunero.
- A3913: Arrazola - Durango. Ordu eta egunero.
- A3914: Elorrio - Durango. Ordu eta egunero.
- A3915: Ondarroa - Markina - Durango - Bilbao. Ordu eta egunero.
- A3916: Ondarroa - Markina - Ermua – Bilbao. Ordu eta egunero.
- A3923: Elorrio – Durango – Bilbao. Ordu.
- A3934: Ermua - Durango -Leioa. Ordu lanegunetan.

- A3933: Durango-Bilbao. Orduro.

Eusko Trenek linea bat du Durango eta Deba artean eta honako udalerrietan geratzen da: Durango, Berriz, Zaldibar, Mallabia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deba.

Pesa autobusek hiru linea dituzte Durangon geratzen direnak:

- Donostia-Bilbao (Donostia- Lasarte- Andoain- Billabona- Tolosa- Alegia- Ikaztegieta- Ordizia- Beasain- Ormaiztegi- Zumarraga- Antzuola- Bergara- Elgeta- Elorrio- Durango- Bilbao) egunero bi zerbitzu eskaintzen ditu, jai egunetan izan ezik.
- Bergara-Arrasate-Durango-Bilbao (Oñati- Bergara- Arrasate- Elorrio- Durango- Bilbao) egunero bi zerbitzu ditu Bilboko norabidean eta hiru Bergarako norabidean.
- Oñati-Arrasate-Durango-Bilbao (Oñati- Arrasate- Elorrio- Durango- Bilbao) egunero bi zerbitzu ditu.

Arabarekin lotura Continental auto konpainiaren bitartez egiten da. Durango-Gasteiz lineak honako udalerriak hartzen ditu bere baitan: Durango, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Legutio, Urbina, Miñao, Gamarra eta Gasteiz. Lanegunean 7 zerbitzu ditu eta jaiegunetan eta larunbatetan 4.

Eusko Trenek geltokiak ditu Zaldibarren, Berrizen, Abadiñon eta Durangon. Bilbotik Donostia arteko bidea hartzen du. Durangaldeatik orduko bi tren ateratzen dira Ermu arte eta bakarra Donostia arte. Bere erabilpena interesgarria egoera zehatzetan soilik da, Gipuzkoako herri zehatzetara joateko, adibidez.

Parke mugikorra

Azpimarratu behar da Durangon dagoen automobil parke moderatua. 2005ean ibilgailu kopurua 11.582koa zen, ibilgailu kopuru honekin eta 26.900 biztanle izan da motorizazio indizea 1.000 biztanleko 430,5ekoa da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, 2002-2005 epealdian handitu egin da indize hori, azken lau urteetan hazkundea %6,5ekoa izan da. Azkenik, azpimarratu behar da udalerrian dauden kamioiek parke mugikorraren %10a osatzen dutela (2005).

37. Taula. Durangoko parke mugikorraren garapena.

	2002	2003	2004	2005
Autoak	9.163	9.403	9.545	9.666
Motorrak	328	334	337	365
Ziklomotorrak	311	333	342	354
Kamioiak	872	906	896	1.018
Traktoreak	70	81	76	86
Atoiak	78	80	80	88
Autobusak	6	6	5	5
GUZTIRA	10.828	11.143	11.281	11.582

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

TAO sistema Durangon

2006ko otsailaren 15etik martxan da Durangon TAO zerbitzua. Bi zonalde zehaztu dira: 1 zonaldea eta 2 zonaldea. 1 zonaldean 828 aparkaleku kolore urdineko ezarri dira eta 168 laranja kolorekoak. 2. zonaldean kolore urdineko 374 aparkaleku eta laranja koloreko 61 ezarri dira.

Sistemaren funtzionamenduari dagokionez, aparkaleku laranjak zonaldean bizi diren pertsonentzat dira. TAO guneko bizilagunek "bertako txartela" lortu dezakete urtean 49,95 € ordainduta. Bertakoak ez diren pertsonentzat TAO makinak daude zonalde bakoitzean dagokien tasa ordaindu ahal izateko; gehienez 4 orduz utzi dezakete autoa bertan eta behin denbora hori pasata zonaldeetik atera behar dute autoa eta ezingo dute itzuli hurrengo 3 ordutan.

Honakoa da TAO zerbitzuaren ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: Goizez 9:00etatik 13:30era / Arratsaldeaz 15:30etik 19:30era.
- Larunbatetan: 9:00etatik 13:30era.

Udalak udalerriko alde zaharreko oinezkoen zonalderako sarrera eta aparkamenduak arautzen dituen araua onartu du. Arau horrekin herriko hirigune historikoan egin beharreko zama-lanak arautu nahi dira. Bertakoak diren edo garajea duten bizilagunek sarrera txartela eskatu ahal dute. Baina, bertakoak izanda garajerik ez dutenentzat sarrera ordutegia ezarri da eta gehienera 20 minutu egon ahal dute; bertan garajea dutenentzat sarrera librea da baina ezingo dute bertan aparkatu. Merkatarien eta hornitzaileen kasuan, zonaldera nahi dutenean sartu ahal dute sarrera txartela lortuta, nahiz eta izendatze motaren arabera (ohiko hornitzailea, jarduera titularrak eta merkataria edo aldi-behingo hornitzaileak) sarrera ordutegia eta denbora aldakorrak izango diren.

4.5.3. Irisgarritasuna

Durango Udalerrak eraikin publikoetarako Irisgarritasun Plana du. Irisgarritasun Plan honen helburua da udalerriaren, eremu publikoen, eraikinen eta garraioaren egoera aztertzea abenduaren 20ko 20/97 Legean aurreikusitako irisgarritasun bermeak betetzeko.

Xedea da pixkanaka udalerria egokitzea bere baliabideen onuradunak ahalik eta gehien izateko. Ezin dira aldian behin eta zonalde batean aplikatu, beste guneei kalte eraginez. Udalerriaren egokitzea ez da jasangarria fase bakarrean. Beraz, ezinbestekoa da kostu hori aldi ezberdinetan banatzea.

Irisgarritasun Plana garatzen den eremu guztietan Udalerria ezagutzea ezinbestekoa da. Bideen egoera, udalaren eraikinak eta garraioa hartzen ditu bere baitan Irisgarritasun Planak.

Distrituen arabera banatzen da eta bideen, eremu publikoen eta interesguneen sektorizazioa eta zehaztapena ezinbestekoak dira Irisgarritasun Plana udalarentzat udalerriaren kudeaketa eta planifikazio tresna izateko.

5. INGURUGIRO SEKTOREAK

5.1. Uraren ziklo osoa


5.1.1. Uraren hornikuntza, kalitatea eta kontsumoa

Durangoko udalerriaren ur hornikuntza iturri nagusiak Gallandas sarea, Arria sarea eta Mañaria dira. Hauei beste sare batzuk gehitu behar zaizkio, baino oraindik proiektuak dira eta hornikuntza sarea handituko dute. Aitzina, Oiz mendiaren magaletara zeuden iturrietatik (Gallandas) hartzen zen ura. Orain, zundaketak egiten dira.

Egungo sarearen funtzionamendua eskumenei dagokionez bitan banatzen da: Altuko Sarea, Bilbao-Bizkaiako Ur Partzuergoak administratzen duena eta Baxuko sarea, Udalak mantentzen duena.

Zonaldeari zerbitzua ematen dion tratamendu estazioa Garaizarkoa da (lurreta). Dekantatzeko, iragazpenak egiteko eta desinfektatzeko sistema ditu. Gaur egun Durango, lurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar hornitzen ditu. Instalazio honekin, partzuergoaren baitan ez diren Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Mallabia eta Ermua ere hornitzen dira.

Udalerriko ur edangarriaren hornikuntzaren prozesu eskematikoa honakoa litzateke:



Ur Kontsumoa

Bilbao-Bizkaiaiko Ur Partzuergoak eskainitako datuen arabera, 2004ean Durangori 2.740.141 m³ ur eskaini zitzaizkion.

38. Taula. Bilbo-Bizkaiaiko Ur Partzuergoak hornitutako urteko uraren bolumenaren garapena (m³).

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Durango²	2.741.174	2.782.227	2.949.815	3.045.290	2.776.056	2.740.141

Iturria: Bilbo Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Datu horietatik ikus dezakegu 2000-2003 urte aldian hazi egin dela eskainitako ur kopurua, aldiz, 2004tik aurrera txikiagotzea ikusten da, 2005ean, azken urteetako kontsumo bolumen txikiena jasotzen da.

Ur Partzuergoak eskainitako datuen arabera, sektorekako uraren kontsumoa modu honetan azaltzen da:


39. Taula. Sektorekako Uraren Kontsumoa (m³). 2005.

	GUZTIRA	%
Etxeko kontsumoa	1.192.594	43,5
Kirol ekipamenduak	30.393	1,1
Industriak (ura lehengai dutenak)	159.701	5,8
Komertzioak / bulegoak	202.940	7,4
Udalaren egoitzak	3.710	0,13
GUZTIRA	1.589.339	58

Iturria: Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoaren datuetan oinarritua.

Ikus dezakegu 2005ean egiazko kontsumoa 1.589.339 m³ dela, nahiz eta, sarera hornitutako ur kopuruak (39. taula) erakusten duen Ur Partzuergoak 2.740.141 m³ hornitu dituela; beraz, esan dezakegu ur kopuru handia ez dela fakturatu.

² Hornitutako bolumen hauek soilik Ur Partzuergoaren Durangaldeko Oinarrizko Sarearen bitartez banatutakoak dira. Beraz, ez dute zertan bat egin udalerri bakoitzak kontsumitutako ur kopuruarekin; izan ere, udalerriaren baliabide propioak ere izaten dira; Ur Partzuergoak kudeatzen ez dituen datuak dira horiek.

12. Grafikoa. Uraren kontsumoa sektoreen arabera (m³). 2005.

Iturria: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren datuetan oinarritua.

Aurreko grafikoa kontuan hartuz, herrian ur gehien kontsumitzen den eremua etxea da, izan ere sarean kontsumitutako uraren %43,5a osatzen du etxeko kontsumoak. Aldi berean, merkataritza eta bulegoetako eta industriako kontsumoak bigarren eta hirugarren tokietan kokatzen dira, hurrenez hurren, %7,4 eta %5,8ko kontsumoarekin. Azkenik, bereziki aipatu behar da Durangoko udalerrian dauden ur galerak, 2005ean Partzuergoak sarean ezarri duen uraren %43a baita.

2005ean Durangoko udalerrian, urteko uraren etxeko kontsumoa 1.192.594 m³/urteko izan zen, beraz, 121,46 l/bzt./eguneko.

Uraren tasak eta batez besteko kostua

Ur kontsumoaren tarifak 2005ean honakoak dira:

40. Taula. Etxeko erabiltzaileentzat hornikuntzak, barneko zentralizatutako ur bero instalakuntzak barne.

	Ura	Saneamendua
90 eguneko kuota finkoa	4,1924 euro	3,9603 euro
100 m³/ hiruhileko arteko kontsumoentzat	m ³ 0,3594 euro	m ³ 0,3396 euro
100 m³/ hiruhileko baino kontsumo handiagoentzat	m ³ 0,7876 euro	m ³ 0,7440 euro

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

41. Taula. Ongintzako eraikinentzako hornikuntza, kontsumoa edozein izanik.

Ura	Saneamendua
m ³ 0,3163 euro	m ³ 0,2988 euro

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

42. Taula. Udalaren kirol ekipamenduentzako hornikuntza, kontsumoa edozein izanik.

Ura	Saneamendua
m ³ 0,3163 euro	m ³ 0,2988 euro

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

43. Taula. Ura lehengai edo ekoiztutakoaren parte duten industriak, edo komertzializazio edo lanen hornikuntzarako prozesuetan erabiltzen dutenak.

	Ura	Saneamendua
90 eguneko kuota finkoa, 40 m³-ko gutxieneko kontsumoarekin, kontsumoa edozein izanik.	25,2225 euro	23,8258 euro
Gehienezko m³ bakoitza	m ³ 0,7876 euro	m ³ 0,7440 euro

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

44. Taula. Gainontzeko industriak, merkataritza instalakuntzak eta zerbitzuetakoak, zentro ofizialak, erakunde autonomoak, suteen aurkako sareak eta aurrekotan ez dauden gainontzekoak.

	Ura	Saneamendua
90 eguneko kuota finkoa, 25 m³-ko gutxieneko kontsumoarekin, kontsumoa edozein izanik.	15,4804 euro	14,6232 euro
Gehienezko m³ bakoitza	m ³ 0,7876 euro	m ³ 0,7440 euro

Iturria: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa.

5.1.2. Uraren saneamendua eta arazketa

Durangoko hondakin-uren arazketa tratamendua Arriandiko Arazkailuan egiten da, Durangaldeako gainontzeko herrietakoekin (Iurreta, Izurtza, Mañaria, Zaldibar, Abadiño, Atxondo eta Berriz) eta sistemara lotutako industriein batera, horien artean isurketaren tamainagatik azpimarratu behar da Smurfit paper-fabrika.

Etxeko hondakin-urak

Arazketa sareak Durangoko biztanleriaren %93ari eskaintzen dio zerbitzua. Arriandiko Arazkailuak 2004an 6.076.324 m³ tratatu zituen eta horietako 3.432.413 m³ (%56,4a) Durangokoa zen.

45. Taula. Etxeko emarien banaketa.2004.

Udalerrriak	Etxeko emariak (m³/ urteko)
Abadiño	989.013
Atxondo	151.980
Berriz	642.911
Durango	3.432.413
Iurreta	390.068
Izurtza	35.295
Mañaria	67.395
Zaldibar	367.248
Guztira	6.076.324

Iturria: Bilbo Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Industriako hondakin-urak

2003an arazkailuan jasotako industriako hondakin-urak, Udalaren datuen arabera, 95.000 m³ izan ziren.

Durangon C motako 4 enpresa daude, Biltegirako Isurketen Araudiaren arabera: Durangoko hiltegia, Bruss Federal Mogul, Laminación y Derivados eta J. Oñate y Hnos. Gaur egun, Durangoko C motako lotutako enpresa guztiek isurketa osagarriko baimena dute. Gainontzeko industrien isurketa hirikoaren parekoa dela uste da, ez dago isurketa baimenik gabeko industrietatik.

5.2. Atmosferaren eta akustikaren kalitatea

Atmosferaren kutsadura mundu osoak aurre egin beharreko ingurumen arazo serioenetakoa da. Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) berriki egindako azterketek erakusten dute kutsadura maila ez oso altua pairatzen duten pertsonen osasunean ze eragin duen.

5.2.1. Igorpen atmosferikoak eta airearen kalitatea


Durangoko Udala 2005eko maiatzetik lanean da udalerriko airearen kalitatea aztertu ostean, eta Durangoko airearen kalitatea hobetzeko, noski, balioko duen ekintza plana osatzeko.

2005ean Durangaldeako atmosferaren kutsaduraren inguruko diagnostikoa osatu da. Diagnostikoaren helburua izan da $PM_{2.5}$, PM_{10} eta NO_x isurketen balorazioa osatzea, ingurumenean dauden PM_{10} eta NO_x kontzentrazioak aztertzea eta eskualdeko PM_{10} isurketa fokuak identifikatzea. Modu honetan, eskualdeko atmosferaren kalitatea hobetzeko Ekintza Planaren oinarria eraiki da.

Durangoren ezaugarri da jarduera industrial handia, galdaketa sektorean, batez ere. Industria jarduera handiaz gain, udalerriak trafiko handia pairatzen du, udalerria zeharkatzen duten hiriko eta hiriarteko loturen ondorioz eta eskualdean dagoen mugikortasun handiaren ondorioz. Airearen kalitatearen diagnostikoan, trafikoa eta industria identifikatzen dira eskualdeko airearen kutsadura eragile handienak bezala.

Diagnostikotik atera ditugun grafikoetan ikus daitekeen moduan, emaitzek industriari egozten diote parkitulen (PM_{10}) igorle nagusia izatea eskualdean. Zentzu horretan, gainontzeko bi sektoreekiko (garraioa eta bizitegi-zerbitzuak) ezberdintasuna handia da. NO_x igorpenei dagokionez garraioa da igorle nagusia eta atzetik du industria, izan ere, eskualdeak trafiko handia du bere baitan (A-8 autobidea, N-634a, eskualdeko BI-623, BI-632, BI-635...)

13. Grafikoa. Jasotako PM_{10} eta NO_x igorpenak Durangaldean.




Iturria: "Atmosferaren Kutsaduraren Diagnostikoa" 2006. IHOBE, Ingurumen Sailburuordetza, Ihohe eta Labein zentro teknologikoa.

1073/2002 ED-arekiko airearen kalitateaz egiten den baloraziotik (Errege Dekretu honen xedea da alerta muga suposatzen duten neurriak zehaztea honako kontzentrazioetan: sofre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa eta eta nitrogeno oxidoak, partikulak, beruna, bentzenoa eta karbono monoxidoa), diagnostikoaren emaitza da PM_{10} partikulen kasuan araua ez dela betetzen, Zelaietako laginketa estazioan eta Durangon, igorpenek baimendutako balioa gainditzen baitute.

Aldi berean, hurrengo grafikotik ondorioztatzen dugu PM_{10} kutsatzailearen joera hazkuntza jarraikorrekoa dela, beraz, beharrezkoa da kutsatzaile honen igorpen fokuekiko ekinbideak abiatzea.

14. Grafikoa. PM_{10} en urteko batez bestekoak Durangaldeako hiru laginketa estazioetan.



Iturria: "Atmosferaren Kutsaduraren Diagnostikoa" 2006. IHOBE, Ingurumen Sailburuordetza, Ihobe eta Labein zentro teknologikoa.

Muga balioak gainditzearen arrazoi gisa ikusten da hirigunea eta industria elkarrengandik gertuegi egotea, baita, hirigunearen inguruan trafiko askoko errepide korapilo garrantzitsua dagoela ere.

Diagnostiko honen emaitza gisa Durangoko Udala Airearen Kalitatea Hobetzeko Ekintza Planaren diseinuan ari da. Ekintza Plan horrek hiru ardatz nagusi ditu:

1. Trafikoa (ibilgailuen hobekuntza teknologikoan eta trafikoa txikiagotzeko zirkulazioan eragiteko ekinbideak).
2. Industria (Igorpenak txikiagotzeko teknika hobekuntzen inplantazioa eta horretara behartuta dauden enpresek Integratutako Ingurumen Baimena lortzea).
3. Lanak eta kaleen garbiketa (lanetan praktika onak ezartzea eta metodo heheen erabilera kaleen garbiketari).

Atmosferaren kutsadura eragiten duten iturriak

Industria

Durangoren kasu zehatzean, aipatu behar da hirigunetik gertu jarduera industrial handia dagoela. Gainera, diagnostikoan zehazten den moduan, industria jarduera udalerrian kontuan hartu beharreko kutsaduraren iturrietako bat da. Bestalde, diagnostikoan zehazten da gehien eragiten duten fokuak Hego-ekialdeko haizeekin datozela, Tabirako zonaldean sortutako igorpenak dira, beraz.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Antolaketa, Parte Hartze eta Kontrolerako Zuzendaritzako informazioaren arabera Durangoko industria hauek "Potenzialki Atmosferaren Kutsatzaileak diren Jardueren Katalogoan" daude, otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak ezarria, Atmosferaren Ingurumenerako Babeserako 38/1972 legea garatzen duena.

46. Taula. Atmosferaren kutsatzaileak diren fokuak dituzten industriak eta foku kopurua.

ENPRESA	FOKO KOPURUA
Fundifes, S.A.	1
Jesús Oñate y Hnos, S.A.	9
Ona-Electro-Erosión, S.A.	5
Bruss Juntas Técnicas, S.L.	6
Jesús Oñate y Hnos, S.A.	4
Fundiciones Fumbarri, S.C.L.	7
GUZTIRA	32

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Antolaketa, Parte Hartze eta Kontrolerako Zuzendaritzako.

Aldi berean, Lurraren Antolaketa eta Ingurumen Sailak abian jarri du Euskadi EPER inbentarioa, tresna horren bidez modu normalizatu baten lortu nahi da IPPC gisa ezagutzen den Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrolerako uztailaren 1eko 16/2002 legearen lgo eranskinaren baitan dauden euskal entitateen igorpenen eta horien fokuen ingurumen informazioa.

EPER Euskadiren lana da substantzia kutsatzaileen datuak modu sistematizatuan biltzea jakinaraziak izan behar baitute 2000ko uztailaren 17ko 2000/479/CE Erabakian zehaztutakoaren arabera; IPPC Legearen lgo eranskinarekin lotutako jardueraren baterako instalakuntzak dituzten entitateek osatzen duten Europako Igorpen Kutsatzaileen Inbentarioa osatzeko.

Durangoko honako enpresak daude EPER Euskadi 2003ko inbentarioan (Europako Igorpen Kutsatzaileen Inbentarioa):

- Fundiciones Fumbarri
- Fundiciones San Antonio de Urkiola, SL
- Fundifres, SA
- Jesús Oñate y Hermanos, S.A.

Azkenik, aipatu Montorreta SA enpresak udalerriko atmosferaren kalitatean duen eraginaren ondorioz, bere egoera aztertzen ari direla Udala eta Eusko Jaurlaritza.

Garraioa

Garraioa da Durangaldean NOx igorpen gehien egiten dituen. Kontuan hartu behar da eskualdeak kokapen estrategikoa duela loturentzako, bertan elkarlotzen dira ibilgailu ugari jasaten duten azpiegitura asko. Zehazki, Durango udalerria zeharkatzen dute hurrengo errepideek: A-8 Autobidea, N-634, Durango – Vitoria-Gasteiz BI-623 eta BI-632, Elorriorekin lotzen den errepidea.

Bizitegien eta Zerbitzuen iturriak

Diagnostikoaren datuen arabera bizitegien eta zerbitzuen sektorea da kutsadura gutxien sortzen duena, industria eta garraioak osatzen duten beste bi bloke handiekin alderatuz gero.

Etxeko igorpen kutsatzaileen iturri dira, gehien bat, berogailuak eta uraren berotzea. Erabilitako erregaiaren arabera aldatu egiten da igorritako gas mota, zentzu horretan, petroliotik eratorritako likido erregaien ordeztasun gas naturala erabiltzeak txikiagotu egin du kutsatzaile batzuen igorpena, karbono monoxidoa eta sufre dioxidoaren kasuan, esate baterako.

Besteak

Garrantzitsua da lanetatik eta ibilgailuek eragindako birsuspentsioetatik eratorritako hautsen ekarpen negatiboa. Eusko Jaurlaritzarekin batera lantzen ari den Ekintza Planak lanetarako praktika egokien irizpideak aholkatzen ditu.

Badira aldikako izaera duen kutsatzaile biotiko batek eragindako arazo eratorriak ere: polenak eragindakoak. Garai zehatzetan (bereziki, martxoa eta ekaina artean) atmosferan euren ugalketa funtzioa betetzeko aurkitzen diren landare organo biziak dira, eta arnasketa arazoak eta prozesu alergiko eta asmatikoen bizitzea eragin dezakete. Gaur egun, ez dago inolako laginketarik atmosferan duen presentziaren eta giza osasunean duen efektuaren inguruan.

Beste ezaugarri garrantzitsua “energiaren formek” eragiten duten airearen kutsadura da, hotsaz eta bibrazioez gain (beste atal baten lantzen dira) irradiazio ionizanteak eta uhin elektromagnetikoak ere bere baitan hartzen ditu.

Uhin elektromagnetikoen arazoa konplexuagoa da osasunarekiko eta ingurumenarekiko duen eraginaren inguruan dagoen eztabaida zientifikoarengatik eta ez dagoelako behar bezalako lege arautzailerik. Tentsio altuko sare elektrikoen eta antenen izateari lotuta dago (hazten ari den arazoa, telefonia mugikorraren hazkundearen ondorioz).

Azkenik, argiaren kutsadura dago, argiak zeruan egiten duen distira, argi artifizialak atmosferako gasetan eta partikularretan eragiten duena. Distira honek, kanpo argiztapeneko instalakuntzetako argiak sortzen duena, zeruaren berezko distira handiagoz du. Ez dago Durangoko neurketarik, baina eremu batzuetan gehiegizko kutsadura nabari da.

5.2.2. Hotsa eta akustikaren kalitatea

Hotsa gizakiaren osasunerako kaltegarria den hotsa da (gorreria, zefalea, irritabilitatea, loaren galaraztea... sortu ditzake) eta akustikaren kutsadura eragiten du.

Biztanleria batek pairatzen duen hots maila hotsa sortzen duten agente ezberdinen konbinaziotik ondorioztatzen da. Hotsaren sortzaile ohikoenak honakoak dira: industriak, herri lanak, merkataritza establezimenduak eta ibilgailuen joan etorria, azken hau da denbora eta espazio intzidentzia orokortuena duena. Esan daiteke mugikortasunaren eta hotsaren arteko harreman handia dagoela, hotsaren azterketa batek mugikortasunarekin lotutako kontuen berri ere ematen du.

Puntu bati eragiten dion soinu maia dBtan (dezibetan) jasotzen da, baina dBA-k ere erabiliko dira, gizakiak entzuten duenarekiko gertuago baitaude. Leq-a (ordu betean izandako soinu maila jarraitua) da erabilitako magnitude akustikoa.

Hotsaren intentsitatearen araberrako dezibel terminoekin gidatzeko, hurrengo taulak hotsa (dBtan) eta ahozko komunikazioa harremantzen ditu:

47. Taula. Entzute atariak.

0-20	Entzumen ataria
20-50	Komunikazio erraza
50-80	Komunikazio balekoa
80-110	Arrisku muga 8 orduko lan egunean
110-140	Komunikazio ia ezinezkoa
>140	Mina

Durangok ez du udalerriko akustikaren kalitatea ezagutzeko aukera emango lukeen hotsen maparik edo azterketa zehatzik. Hala ere, EAEko hotsen Mapak, Eusko Jaurlaritzako Lurraren Antolaketa eta Ingurumen Sailak egindakoak, udalerrian dauden hots foku nagusiak azaltzen ditu.

- Errepide sarea:

Durangok udalerriz gaindiko errepide sarea du eta hortik honakoak azpimarratuko ditugu euren soinu mailaren arabera:

- A-8 autobideak eta N-634 errepideak 70 dBA baino 10 metro goragoko soinu mailak dituzte.
- BI-632 errepideak, Durango eta Abadiño artean 65-70 dBA –ko soinu maila hartzen du.
- BI-623 errepidea Durango eta Izurtza artean 70 dBA baino goragoko mailak ditu 10 metroko distantzian.

- **Industria jarduera:**

Industria hots mota oso menpekota da sortzen duen industriarekiko. Frekuentziarik desatseginena duten hotsak (haizagailuak, sirenak, makina errotatibak, transformatzaile handiak...) dira deserosoenak biztanleriarentzat. EAEko Hotsen Mapak azaltzen du Durango inpaktu akustikoren bat duten udalerrien artean dagoela. Gainera, zehazten da honako industrietan soinu maila garrantzitsuak sortzen dituztela gauez: Fundiciones Funbarri, Brus Federal Mogul eta Formes (La Ferretera Vizcaína, SA)

- **Trenbidea:**

Trenbideak soinu maila altuak sortzen ditu trenbidetik gertu dauden etxebizitzetan. Momentu zehatzetan 90 dB-ko maximak hartzen dira eta gauez ez da maila hori jaisten. Hala ere, 10 metrotik gorako distantzietan hotsak ez du sekula 70 dB-ko maila gainditzen, beraz, oso gertuko etxebizitzetan kasuan izan ezik, trenbidea ez da arazo foku gisa ikusten.

Durangoren kasuan, garraiobide honek duen eragina Eusko Trenek Donostia eta Bilbo artean duen lineara mugatzen da. Trenbide horrek 55 eta 60 dBA arteko mailak sortzen ditu Amorebieta eta Durango artean, Durango eta Berriz artean, berriz, 60 eta 65 dBA artekoa da.

Udalerriko hotsen mapa

Aurrez esan dugun moduan, udalerriak ez du hots maparik, hala ere, Udalak 2005ean hori osatzeko 24.000 euroko aurrekontua onartu zuen. 2006an espero da udalerriko hotsen mapa osatzeko lehiaketa publikoa aurkeztea eta bi urteko tartea izango da egiteko. Hotsen mapa horren helburua honako puntuak aztertzea izango da:

- Udalerriko hotsa zonaldeka banatzea
- Hotsaren zehaztapena (kaleak, errepideak, trena, industria)
- Hotsen mapa osatzea
- Hotsen mapa estrategikoa osatzea, etorkizuneko proiektuetan irizpide nagusiak kontuan hartzeko.
- Hotsaren indikatzaileak zehaztea

Hotsen salaketak

Udalaren datuen arabera, 1990-2005 urtealdian jasotako hots salaketa gehienak ostalaritzagatik eta industriagatik eragindakoak dira, nahiz eta badiren komertzioetako makinariak edo bizilagunen arteko hotsak sortutakoak ere. Salaketa guztiak hirigunean jasotzen dira.

48. Taula. Durangon jasotako salaketa kopurua.

Urtea	Jasotako salaketa kopurua
1990	10
1991	9
1992	4
1993	6
1994	7
1995	5
1996	25
1997	25
1998	13
1999	9
2000	9
2001	8
2002	9
2003	17
2004	17
2005	21

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

5.3. Energia

Energia industrializatutako edozein herrialdetako ekonomiaren oinarrizko sektorea da eta garapen ekonomikoaren eremu guztiekin harremanetan dago: etxebizitza, industria eta zerbitzuak, trafikoa eta garraioa... Gainera, eragin zuzena du gizakiaren ekinbidearen ingurumen aspektu guztiekin.

Energiaren kontua udalerriko politikaren mugetatik haratago doan arren, eremu horretatik ere ezarri daitezke energiaren kudeaketa orekatua eta jasangarriagoa eragingo duten politiken garapenean lagunduko dute programak. Bi jardute ardatzetan:

- Zuzena, Udala bera energia kontsumitzaile gisa ikusita, udalaren zerbitzu eta instalakuntzetan energiaren aurrezteak bultzatuz, erregai garbiagoak erabiliz eta iturri berriztagarriengandik datozen energiak erabiliz.
- Zeharkakoa, hiritarren sentsibilizazio eta kontzientziazio lana eginez eta kontsumo energetikoaren beharrak kontuan izango dituen hirigintza garapenerako neurriak hartuz (etxebizitzaren garapenean eta garapen ekonomikoan, hiriko mugikortasunean...)

Udalerri baten kontsumo energetikoa ikuspegi ezberdinetatik aztertu daiteke:

- Kontsumitzen den energia mota, bere jatorriaren edo kontsumo moduaren arabera.
- Udalerrian gauzatzen diren eta energia kontsumitzaileak diren aktibitate sozial eta ekonomikoak.

Lehenengoaren zentzuan, kontsumo energetiko nagusiak lehengaien konbustio zuzenaren bidez (petrolioak edo bere eratorriak, gas naturala eta erregai solidoak) edo lehengai horiek berak edo beste prozesu batzuk (nuklearra, ura, haizea, eguzkitikoa...) erabiltzen dituzten ekoizpen zentralerako elektrizitate kontsumoaren bitartez egiten dira. Energiaren sorrerako prozesu hauetako edozeinek ingurumen inpaktu handia du, inpaktu hori ekoizpen edo kontsumo eremuan sor daiteke.

Udalerriko energia kontsumitzaile diren jarduerak, modu honetan banatu daitezke:

- Etxebizitzakoak
- Industrialak
- Zerbitzuak
- Besteak

Energia kontsumoak

IBERDROLAk eskaintako datuen arabera, Durangoko kontsumo elektrikoak, sektore ezberdinen arabera eta 2000-2004 epealdian honakoak dira:

49. Taula. Energia kontsumoaren garapena.

ENERGIA FAKTURATUA (kWh)										
Sektore Ekonomikoa	2000		2001		2002		2003		2004	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Etxebizitza	28.635.240	29,7	27.762.748	29,5	29.423.820	30,8	29.444.026	30,2	31.438.330	30,6
Industria	43.998.064	45,7	42.573.917	45,2	41.886.504	44,9	41.604.551	42,6	43.970.988	42,8
Zerbitzuak	21.552.685	22,4	22.100.108	23,4	22.552.279	23,6	24.925.981	25,5	25.732.758	25,0
Ez sailkatua	1.988.523	2,06	1.646.826	1,75	1.557.602	1,63	1.488.506	1,52	1.478.239	1,44
GUZTIRA	96.174.511	100	94.083.599	100	95.420.205	100	97.463.063	100	102.620.315	100

Iturria: IBERDROLAren datuetan oinarritua.

2000-2004 epealdian kontsumoaren %6,3ko igoera ikus daiteke orotara, 2000. urtean 96.174.511 kWh-eko kontsumo orokorretik 2004ko 102.620.315 kWh-tara igaroz.

Industriaren sektorea Durangoko energia elektrikoaren kontsumitzaile nagusia da. 2004an kontsumo guztiaren %42,8a zen, etxebizitzetako kontsumoa du atzetik (%30,6a).

Etxeko kontsumoari dagokionez, esan dugun moduan 2004an udalerriaren %30,6a zen, azken urteetan goranzko garapen hau erakutsiz:

- 2000: 1.150,4 kWh urteko biztanleko.
- 2001: 1.099,2 kWh urteko biztanleko.
- 2002: 1.145,5 kWh urteko biztanleko.
- 2003: 1.120,6 kWh urteko biztanleko.
- 2004: 1.191,3 kWh urteko biztanleko.

Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa

Durangoko Udalak 2005eko apirilean Udalaren eta EEE-ren arteko Elkarlanerako Hitzarmen Markoa sinatu zuen energiaren erabilpen arrazionala eta energia berriztagarrien erabilpena bultzatzeko, eta ondorioz, udalerriko inguruan hobekuntza eragiteko. Hitzarmenaren oinarria dira Udalaren eta EEEren arteko informazio teknikoaren elkartrukea, programen eta finantziazioen inguruko aholkularitza teknikoa, sentsibilizazio politikak bultzatzea Energiaren Erabilpen Arrazionalari eta asistentzia teknikoari dagokionean. Beraz, diagnostiko energetikoa landuko da eta aurrez, ekintzen aurrerapen txostena osatuko da Durangoko Udalak energia hobekuntzak txertatu ditzan argiztapen publikoa eta Batzordeak egoki ikusten duen gainontzeko egoitzetan

(interesgarritzat ikusten dira Udaletxea, Landakoko polikiroldegia, igerileku berria...) Gaur egun kontsumoen diagnostikoa osatzen ari da.

Udalerriko energia berriztagarrien instalakuntzak

Energiaren Euskal Erakundeak (EVE-EEE) emandako datuen arabera, udalerrian dauden energia berriztagarrien instalakuntzak honakoak dira:

- Energia eolikoa:
 - Instalakuntza kopurua: 2
 - Potentzia (kW): 0,4
 - Ekoizpena (kWh/urteko): 430
- Eguzkitiko energia fotovoltaikoa:
 - Instalakuntza kopurua: 5
 - Potentzia (Wpico): 11.250
 - Ekoizpena (kWh/urteko): 11.250
- Biomasa
 - Enpresa kopurua: 18

Bestalde, udalerrian badira 17 etxebizitza behin behineko eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria dutenak.

5.4. Lurzorua

5.4.1. Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa

Batzuetan, gizakiaren jarduerak lurzuaren konposaketa eraldatzen du, kutsatzaileak txertatuz eta denbora askoan eusten dutenak direlako edo kontzentrazio altua ematen delako deskonposatzen ez direnak. Kutsatzaile hauen pilaketak, izaera kimikodunak normalean, lurzuaren funtzioan eragin dezake, lurzoru kutsatua deitzen dena sorraraziz.

Lurrari eragiten dioten kutsatzaile nagusienak metal pisutsuak, atmosferak baztertutako elementu azidoak, fitosanitarioak eta ongarriak. Industrietatik, nekazaritzatik eta trafikotik iritsi ohi dira lurrera.

Azken urteetan EAEko Udalek daramaten hirigintza berrikuntzaren prozesuak agerian utzi du lur kutsatu asko dagoela. Horregatik, eta ondo landu ostean, Euskadiko Ingurumenaren Babeserako Lege Orokorrak 1998an lehen aldiz lurra airearen eta uraren pare jarri zuen babesari dagokionez.

Arazoak identifikatzea ezinbestekoa da inolako hirigintza garapen eman aurretik, ez soilik giza osasuna eta ingurumena babesteko, baita eskura dauden baliabide ekonomikoak optimizatzeko ere.

Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen sailarentzat IHOBEk egindako "EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioan" erakusten da informazio historikoaren pilaketa egin ostean posible dela denbora luzez lurzoru zehatz batek izan duen jarduerak baldintzatzea potentzialki lur horri zegokion jardueraren jarraipena.

Definizio hori abiapuntu harturik, potentzialki lurraren kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak (industrialak edo isurketak) jaso dituzten lurak biltzen dira. Darabiltzaten material eta substantzien eraginez giza osasunarentzat, ingurumenarentzat, azpiegiturentzat edo lurzuaren produktibitatearentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituztenak.

Laginak hartzeak eta aztertzeak, soilik, berretsi dezake kutsadura dagoen ala ez.

Inbentarioaren helburua izango da kutsatuta egoteko probabilitate handiena duten kokapenei kasu egitea.

Potentzialki kutsagarriak diren jarduerak orokorrean lau kokapen motatan banatzen dira, guztiak inbentarioan jasotzen dira, eta jarraian aipatzen dira epe motzean landu beharreko garrantziaren arabera, handitik txikira:

Kokapen ez aktiboak: aurrez potentzialki kutsagarria izan zitekeen jardueraren bat jaso ostean orain erabiltzen ari ez diren eremuak dira. Posible da hiru azpi-talde definitzea: orubeak, eraikuntza zantzurik ez dutenak; aurriak, egoera kaskarrean dauden eraikinak dituztenak; eta azkenik, industria ez aktiboak, jarduera amaitu arren, euren eraikuntzak berriz erabiltzeko moduan mantentzen dituztenak.

Hondakindegia: aktiboak eta ez aktiboak barnebiltzen dira, baimenduak edo ez, hemen biltzen dira hondakindegia kategorian izan ez arren, hondakinak isurtzen diren eremuak. Kokapen ez aktiboekin batera, kutsatutako lurrikiko politikaren lehentasunezko helburua dira; izan ere, askotan arriskutsuak izateaz gain, berriz erabiliak izan daitezke erabilpen berrien segurtasuna bermatu gabe. Talde honetan daude hondakindegia berreskuratuak ere, askotan kokapenean hondakinak mantentzen baitira, kutsadura foku garrantzitsua izanik.

Kokapen aktiboak: Gaur egun potentzialki lurraren kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten eremuak. Hasteko, inbentariatuak egon behar dute, beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartu behar direla ez ahazteko, eta gainera, jardueraren amaieran lurraren kalitatearen azterketa eskatu behar da, eta beharrezkoa balitz baita berreskurapena ere. Talde honen barruko kasu bereziak dira etxabeetan egindakoak. Hauek, orokorrean, ondo babestutako lurren gainean garatutako tamaina txikiko jarduerak dira.

Kokapen eraldatuak: Bere garaian potentzialki kutsagarriak ziren jarduerak jaso ostean eraldatu eta gaur egun kutsatzaileak ez diren jarduerak dituzten lurzoruk. Ez dira jasotzen inguruko jarduerak eraginda kutsatu diren zoruak. Beraz, sailkapen honetatik kanpo daude kutsadura zehatza jaso ez dutenak (atmosfera baztertutako hondakinak, plagen aurkako trataera intentsiboak jasan dituztenak eta abar).

IHOBEk eskainitako "EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioko" datuen arabera udalerrian potentzialki kutsagarriak diren kokapenak 13 dira eta 6,14 hektarea hartzen dituzte.

5.4.2. Jardute aukerak

IHOBEk osatutako "EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioak" abiapuntu gisa du inbentarioan bildutako kokapen asko ez direla, azkenean, kutsatuta izango, beraz, helburua da lurzoruaren kudeaketa eraginkorra izatea eta ingurumenarekin errespetuan aritzea. Inbentario honek oinarritzko informazio eta tresna gisa balio behar du Udaleko teknikarientzat hirigintza planteamendua eta hiriaren kudeaketa egiteko eta horien baitan lurzoruaren kalitatearen faktorea kontuan hartzeko.

Inbentarioan kapitulu berezi bat dago Udaleko teknikariari ekinbide bakoitzean lurzoruaren kalitatearen faktorea barnebiltzeko irizpideak jasotzen dituenak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Batzordeak 2004ko martxoan Lurzoruaren Kutsaduraren Prebentzio eta Zuzenketarako Lege proiektua onartu zuen, geroago eztabaidatu eta onartzeko.

Lege horren helburua da EAEko lurzoruaren babeserako politika oinarritzen den hiru helburuak betetzea:

- Lurzoruko alterazio berriak aurreikustea
- Kasurik larrienei konponbidea ematea
- Epe ertain eta luzean gaur egun urgentziazkoa ez den lur kutsatuen berreskurapena planifikatzea.

Jarraian aipatzen dira udalerrian 2000-2005 urte arteetan kutsatutako kokapen batzuen berreskurapenerako gauzatutako jarduerak:

- Durangoko Zaborteia: Aitzinako zaborteia bat aztertu da. Azterketa EAEko Udal eta Mankomunazgoentzako lur kutsatuen Berreskurapenerako Programaren baitan gauzatu da.
- AMILIBIA. Nagusiki garai bateko Garaje Moreno eta Amilibia y De la Iglesiaren eremuetan lurzoruaren kalitatearen inguruko lehen azterketa bat egin da. Jarraian, ikuskatze azterketa bat egin da etxebizitzak, merkataritza lokalak eta garajeak eraiki asmoz.
- BERRIO SA: Ikuskatze azterketa bat egin da garai bateko Berrio SA enpresaren eraikuntza dagoen lekuan etxebizitzak eraikitze.

Azkenik, aipatu behar da Durangon kontrolik gabeko berreskuratutako hondakindegia 11 direla.

5.5. Hondakinen kudeaketa

5.5.1. Hiriko hondakinak

Durangon sortutako hiriko hondakinak euren kudeaketa moduaren arabera sailkatzen dira:

50. Taula. Hiriko hondakinen sailkapena.

IZENA	HONDAKINAK/JATORRIA	HELMUGA
Zaborra	Hiriko etxeko hondakinak; merkataritzako hiriko hondakinak; hiriko industriako hondakinak; Eguneroko garbiketako hondakinak; herriko merkatuko hondakinak.	Igorre eta Jatako zabortegia (Garbiker)
Papera eta kartoia	Etxekoak, merkataritzakoak, bulegoetakoak eta zerbitzuetoakoak.	Papeles Nervión
Beira	Etxekoak, merkataritzakoak, bulegoetakoak eta zerbitzuetoakoak.	Ecovidrio
Ontzi arinak	Latak, plastikozko ontziak, Tetra brick-ak, etxekoak, merkataritzakoak, bulegoetakoak eta zerbitzuetoakoak.	BZB (Garbiker)
Handiak	Linea zuria, Linea marroia eta grisa. Altzariak eta lanabesak, etxeko jatorria duen zura.	Igorreko zabortegia eta GARBIGUNE
Hondakin arriskutsuak	Auto-mozio olioak, Fluoreszenteak, Iraungitako botikak, Pilak, Tinta kartutxoak eta tonerrak, etxekoak eta merkataritzakoak.	Birziklapena edo / eta segurtasun biltegietan inertizatzea (GARBIGUNE)
Ehunak	Etxekoak eta merkataritzakoak.	GARBIGUNE
Olio begetala	Etxekoak	BIONOR
Pneumatikoak	Etxekoak	Birziklapena (GARBIGUNE)
Obra-hondakinak	Etxekoak	Birziklapena (GARBIGUNE)
Lorezaintzako hondakinak	Etxekoak eta parke eta lorategien Udaleko zerbitzutik.	-----
Bertan behera utzitako ibilgailuak	Etxekoak	-----
Metalak	Etxeko jatorria duten bizikletak, bonbonak, su-itxalgailuak,...	Birziklapena (GARBIGUNE)

Iturria: Durangoko Udala.

Azken urteetako datuek erakusten dute gora egin duela hiriko hondakinen kopuruak eta baita honen birziklapenak ere.

Hurrengo taulako datuen arabera, ikus dezakegu azken hiru urteetan igo egin dela sailkatutako bilketa (papera, ontziak eta beira).


51. Taula. Hondakinen sorreraren garapena.

	RSU (Kg)	Handiak		Beira (Kg)		Papera (Kg)		Ontziak (Kg)		Olioak (kg)	Guztira (Kg)	Biztanleak
		KG	% guzti areki ko	KG	% guzti areki ko	KG	% guztia ekiko	KG	% guzti areki ko			
1.995	5.858.370			273.040	4,2	357.430	5,5				6.488.840	23.354
1.996	6.682.650			267.460	3,6	447.140	6,04				7.397.250	23.909
1.997	7.514.420			269.530	3,3	449.650	5,46				8.233.600	23.985
1.998	7.269.220			306.450	3,8	434.140	5,42				8.009.810	24.260
1.999	7.158.400			371.840	4,5	494.130	6,08	95.880			8.120.250	24.726
2.000	8.054.807			379.220	4,2	533.870	5,87	121.630			9.089.527	24.891
2.001	8.232.730	230.980	2,4	429.280	4,5	536.987	5,61	135.820			9.565.797	25.257
2.002	7.819.190	224.850	2,4	438.434	4,8	561.250	6,10	150.691			9.194.415	25.687
2.003	7.999.490	165.940	1,7	474.931	5,05	581.613	6,19	170.772			9.392.746	26.275
2.004	7.940.516	159.270	1,7	496.437	5,3	606.090	6,4	201.527		270	9.404.110	26.375
2.005	8.012.880	177.090	1,8	485.217	5	812.233	8,35	233.998		3.620	9.725.038	26.900

Iturria: Durangoko Udala.

Hurrengo grafikoan ikus dezakegu hondakinen sorrera nolakoa izan den 1995 eta 2005 artean. Aurrez esan dugun moduan, hazi egin da sortutako hondakin kopurua.

15. Grafikoa. Hondakinen sorreraren garapena 1995-2005 artean.



Iturria: Durangoko Udala.

Durangoko biztanleko eta eguneko hiriko hondakinen sorrera 2005ean 0,834 Kg/bizt./eguneko da, batez besteko horretan ikus dezakegu biztanle bakoitzak eguneko sortzen duen hiriko hondakin kopurua. Batez besteko hau Bizkaikoa (1,09 Kg/bizt./eguneko) baino txikiagoa da. Hurrengo taulan ikus daiteke 1995-2004 urtealdian

biztanle bakoitzak urteko duen hondakin sorreraren garapena. Bertan azpimarratu behar da hiriko hondakinen sorreran izan den hazkundea.

52. Taula. Biztanleko sortutako hiriko hondakin kopurua.

Urtea	RSU (Tn)	RSU (Kg/bizt/urteko)	RSU (Kg/bizt/urteko)	Bizt
1.995	5.858,37	250,85	0,687	23.354
1.996	6.682,65	279,50	0,766	23.909
1.997	7.514,42	313,30	0,858	23.985
1.998	7.269,22	299,64	0,821	24.260
1.999	7.158,40	289,51	0,793	24.726
2.000	8.054,87	323,61	0,887	24.891
2.001	8.232,73	325,96	0,893	25.257
2.002	7.819,19	304,40	0,834	25.687
2.003	8.165,43	310,77	0,851	26.275
2.004	8.099,79	307,10	0,841	26.375
2.005	8.189,97	304,46	0,834	26.900


Iturria: Durangoko Udala.

Sailkatutako bilketak

ONTZIAK

Ontzien berreskurapen indizeak txikiak dira oraindik beirarekin eta paperarekin alderatuz gero. Hala ere, kontuan izanik hurrengo grafikoak 1999 eta 2005 artean erakusten digun garapena berreskurapen indizeak haziz joan dira pixkanaka, azken urtean izan ezik, atzerapen txiki bat ikusten baita. 2005ean, ontziak etxean sortutako hiriko hondakinen %2,4a osatzen zuten.


16. Grafikoa. Ontzien bilketaren garapena.



Iturria: Durangoko Udala.

BEIRA


Durangon eduki ontzietan jasotako beira tona kopurua hazi egin da modu jarraituan 1995-2005 urte aldian. 2005ean etxean sortutako hondakinen %4,9a osatzen dute.

17. Grafikoa. Beiraren bilketaren garapena.

Iturria: Durangoko Udala.

PAPERA ETA KARTOIA

Eduki ontzietan 1995-2005 urte aldian jasotako paper eta kartoi tonak hazi egin dira urtez urte. 2005ean etxean sortutako hondakinen %8,35a izan dira.

18. Grafikoa. Paperaren bilketaren garapena.

Iturria: Durangoko Udala.

Hondakinen trataera, garraio eta bilketarako azpiegiturak

Durangoko bideen garbiketa eta hiriko hondakin solidoen bilketa eta garraio zerbitzuak azpikontrata baten bidez egiten dira: CESPA, SA

ZABORRA

Udalerri guztian banaturik 208 zabor-ontzi daude eta 26.900 biztanleri ematen diote zerbitzua; astean 7tan jasotzen dituzte bi zabor-kamioiekin eta 10 langilerekin, hondakinak zabor-ontzietatik jasotzeaz gain, zabor-ontzien ingurua eta zabor-ontziak eurak (neguan hilean behin eta udaran hamabostero) garbitu behar dituzte eta izorratutakoak konpondu eta berriak jarri behar dituzte.

Bilketa sistema alboko kargazkoa da. Bada atzetik egindako karga sistema ere, albotik egin ezin daitekeen eremuetarako.

Behin eguneroko ibilaldia amaituta bildutako hondakinak Durangoko Transferentzia Plantara eramaten dira eta azkenean Jata eta Igorreko zabortegira eramaten dira.

PAPERA ETA KARTOIA

Udalerrian banatuta daude 3m³-ko 94 eduki-ontzi eta 1100 m³-ko hiru papera eta kartoia jasotzeko. Zerbitzuaren kudeaketa CESPASA azpikontrataren bitartez egiten da, berak jartzen ditu eduki-ontziak, hondakinak jasotzen ditu eta Amorebietan dagoen Papeles Nervion SA enpresa birziklatzailera eramaten ditu.

Gaur egun, astean bostetan jasotzen da papera eta kartoia eduki-ontzietatik.

2004ko uztailetik, atez ateko kartoi eta paper bilketa zerbitzua dago merkatalguneentzat. Zerbitzu hau astekaria (asteartetan) eta doakoa da dendentzat. Sistema honen bitartez 6.000 Kg inguru jasotzen dira hilean herriko 95 dendetatik.

Durangoko udalerriak, gainera, Garbigune bat edo Hondakinen Biltegi Alternatiboa du herriko biztanleek sortutako paper eta kartoi hondakinak jasotzen dituen.

BEIRA

101 eduki-ontzi daude 26.900 biztanlerentzat.

Zerbitzuaren kudeaketa Ecovidrio (Laudio) enpresak darama. Bere lana da eduki-ontziak jartzea, hondakinak jasotzea eta birziklaketarako bere egoitzara eramatea. Astean bitan jasotzen da beira. Durangoko udalerriak, gainera, Garbigune bat edo Hondakinen Biltegi Alternatiboa du herriko biztanleek sortutako beira hondakinak jasotzen dituen.

ONTZI ARINAK

Udalerri guztian 108 eduki-ontzi daude, 26.900 biztanleri zerbitzua eskainiz. Bilketa hau 1999ko azaroan abiarazi zen.

Zerbitzuaren kudeaketa Garbiker enpresak gauzatzen du. Bere lana da eduki-ontziak jartzea, garbitzea, hondakinak biltzea eta Amorebieta-Etxanoko Bizkaiko Zabor Birziklategira (BZB) eramatea. Astean bitan jasotzen dira eduki-ontziak. Bertan bereizten dira eduki-ontzi horitik iritsitako plastiko, metal eta tetra brick-ak eta sailkatu ostean bildu eta birziklatze enpresa ezberdinetara eramaten dira.

HANDIAK

Hondakin handien bilketa astean behin egiten da, asteazkenero. Zerbitzua CESPAS enpresaren kargu dago eta hondakin hauek Igarreko zaborte-gira eramaten dira. Durangoko udalerriak, gainera, Garbigune bat edo Hondakinen Biltegi Alternatiboa du herriko biztanleek sortutako hondakin handiak jasotzen dituen, behar bezala sailkatuta.

HONDAKIN TOXIKOAK

Guztiak udalerriko Garbigunean jasotzen dira eta 833/1998 Errege Dekretuak dioenaren arabera kudeatzen dira. Honakoak sailkatzen dira hondakin toxiko gisa: karter olioak, aerosolak, auto-mozio bateriak, disolbagarriak eta pinturak, pilak eta fluoreszenteak, botikak...

Pilekin, Garbiguneko bilketa zuzena egiteaz gain, udalerri guztian banatutako 17 bilketa puntu daude.

EHUNAK

Durangoko Garbigunearen bitartez kudeatzen da; bertan jaso eta biltzen dira. Ondoren, Rezikletari ematen zaizkio berrerabiltzeko edo birziklatzeko.

Caritasek ere egiten du bilketa berrerabiltzeko, beharra duen jendeari eman. 4 kanpaina egiten dituzte (urtarrila, martxoa, ekaina, urria) urtean eta kanpaina bakoitzean 3.000 kg inguru jasotzen dituzte. Modu berean, Durangoko biztanleek berrerabilgarria den arropa JAED elkarteari eman diezaiokete.

OLIO BEGETALA

2005eko azarotik abian da etxeko olio jasotzeko zerbitzua, hilabete bakoitzeko 2. eta 4. larunbatetan egiten da. Olio Rafrinor SA enpresak jasotzen du honako lekuetan:

- Hilabeteko 2. zapatuetan: Andra Marin (arkupe parean) 10etatik 12tara; San Fauston (Nafarroa plazan) 12tatik 13tara eta Txibitenan (Gallanda kalean) 13tatik 14tara.
- Hilabeteko 4. zapatuetan: Andra Marin (arkupeen parean) 10etatik 12tara; Askatasun etorbidean (iturriaren parean) 12tatik 13tara eta FJ de Zumarraga kalean (Institutu parean) 13tatik 14tara.

Bildutako olioak Berantevilan (Araba) dagoen Bionor enpresara eramaten da Biodiesel erregeaiean birziklatzeko.

PNEUMATIKOAK

Durangoko Garbigunearen bitartez kudeatzen da; bertan jaso eta biltzen da. Ondoren Neuciclaje enpresari ematen zaizkio birziklatzeko.

OBRA-HONDAKINAK

Etxeko konponketa eta eraikuntza lan txikietatik datozen hondakinak udalerriko Garbigunearen bitartez kudeatzen dira. Bertatik, La Orkonerako (Ortuella) hondakin inerteen zaborteigiko eraikuntza hondakinen birziklapenerako plantara eramaten dira. Kudeaketaz arduratzen den enpresa Bizkaiko Txintxor Birziklategia (BTB) da.

LORAZAINTZAKO HONDAKINAK

Parke eta lorategien mantenu lanak Udaleko langileek eta Lantegi Batuak enpresek daramatzate. Enpresa honek lorazaintzako hondakinak konpostean eraldatzeko erabiltzen ditu gehienbat eta belar hondarrak udalerriko zonalde ezberdinetan banatzen ditu.

BERTAN BEHERA UTZITAKO IBILGAILUAK

Zerbitzu hau Udaltzaingoa kudeatzen du eta doakoa da. Bertan behera utzitako ibilgailuak desegite eremura eramaten dituzte.

HILDAKO ETA ABANDONATUTAKO ANIMALIAK

Bada enpresa bat hildako eta abandonatutako animalien bilketa lanak egiten dituen. Tamaina txikiko hildako animaliak udalerriko garbiketa zerbitzuak jasotzen ditu.

Udalerrian dagoen edukiontzi kopurua

Hurrengo taulan jasotzen da udalerrian dagoen edukiontzi kopurua, gainera, zehazten da zein den edukiontzi bakoitzeko biztanle kopuruaren ratioa. Durangoko udalerriak Hiriguneko Hondakinen Plan Nazionalak ezarritako helburuekiko duen ratioa, 2006rako edukiontzi bat 500 biztanleko ratioa proposatzen duena, betetzen du, pilen bilketarako edukiontzien kopuruan izan ezik.

53. Taula. Instalaturako edukiontzi kopurua.

	<i>Unitateak</i>	<i>Bizt/edukiontziak</i>
<i>Bilketa masiboa</i>	208	129
<i>Papera eta kartoia</i>	94	286
<i>Beira</i>	101	266
<i>Ontziak</i>	108	249
<i>Pilak</i>	17	1582

Iturria: Durangoko Udalaren datuetan oinarritua.

Hiriko hondakinen bilketa eta tratamenduaren kostua eta tasak

Zaborren bilketa, tratamendu eta birziklaketa gastuak 2004an 1.020.520,36 €-koa izan da; beraz gastua urteko 38,69 € / biztanleko da.

Bidearen garbiketa eta hiriguneko hondakinen bilketa udalerrian

Durangoko Udalak orain gutxi lehiaketa publikora atera du hiriko Hondakin Solidoen Bilketa eta Garraioa eta Hirigunearen Garbiketa Publikoa.

Gaur egun udalerrian gauzatzen den zerbitzua eskasa dela uste da, bereziki, paper / kartoi bilketari dagokionean, bidearen garbiketa okupatu berriak diren guneeetan eta garbiketa lanak asteburuan. Beraz, zerbitzu ezberdinak gauzatzeko, kontuan izanik kontratatzen diren zerbitzuak nolakoak diren, honako kanona zehaztu da: 2.132.403,15 euro.

Kanon berri honekin honako hobekuntzak lortu nahi dira, besteak beste: bideen garbiketa areagotu astelehenetik ostiralera eta asteburu eta jai egunetan erratzez garbituta; baldeo ekipoen presentzia areagotu aste egunetan; arratoien aurkako zerbitzua hobetu; saneamendu zerbitzua hobetu; ibilgailu modernoak eskuratu eta lurpeko edukiontzien mantenuari aurre egin.

5.5.2. Hondakin industrialak eta arriskutsuak

Ingurumen Sailburuordetzako Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuak eskainitako datuen arabera hondakin arriskutsuak sortzen dituzten enpresak honakoak dira: Bruss Juntas Técnicas SL, S. Com; Jesus Oñate y Hermanos, SA; Fundifes SA; Amilibia y De la Iglesia, SA; Laminación y Derivados SA eta Formex Metals, SL.

Hurrengo taulan ikus dezakegu 1998-2003 urtealdian sortutako hondakin arriskutsuen neurria.

54. Taula. Durangoko hondakin arriskutsuen sorreraren garapena.

1998	1999	2000	2001	2002	2003
7.338.548	7.262.500	7.981.926	6.375.139	6.533.052	6.972.133

Iturria: Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza.

2003an Durangon sortu ziren hondakin arriskutsuak 6.972.133 Kg izan ziren, neurri handiko emaitza da eta erakusten du industria sektore zehatz batzuk daudela udalerrian (mekanika, auto-mozioa, siderurgia) eta hondakin asko sortzen dutela.


1998 eta 2003 artean hondakin arriskutsu horien sorrerak izan duen garapenari begiratuz gero txikiagotze xume bat ikus daiteke bosturtekoaren azken zatian; 1998an 7.338.545 Kg sortzetik 2003an 6.972.133 Kg sortzera pasa baita. Kontuan izan behar da 2000. urtean hazkunde handia bizi dela 2001ean berriz txikituz.

5.6. Jardueren ingurumen eragina eta arriskua

5.6.1. Jarduera ekonomikoen ingurumen eragina

Durangoko jarduera ekonomikoen inguruko datuak Eustaten bidez lortu dira. 2004. urteari dagozkionak erakusten dira jarraian:

19. Grafikoa. Udalerriko establezimendu kopurua jarduera adarraren arabera. 2004.



Iturria: Eustaten datuetan oinarritua.

Diagnostiko honen beste kapitulu batzuetan aztertzen da industriak ingurumen naturalaren elementu ezberdinetan duen eragin nagusia: atmosferan, hotsak, ur arroetan, lurzoruan... laburbilduz, azpimarratu ditzakegun inpaktu nagusiak honakoak dira:

- Airea eta hotsa. Dokumentu honen beste atal batean azaltzen da dagoen akustikaren eta atmosferaren kutsadura. EAEn orokorrean, esan behar da industriak utzi diola, jada, atmosferaren kutsadurarako faktore nagusia izateari. Airearen kontrol eta jarraipen etengabea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak egiten du.
- Ura. Ibaien egoerarekiko utzikieriazko historia tradizionalaren orde z uraren babes eta kontserbazio kultura ari da nagusitzen. Hala ere, saneamendu planak atzeratuta dabilta eta erabilpen industrialerako uraren hornikuntzaren kontrola eskasa da, horrek arazoak sortu ditzake etorkizun hurbilean. Udalaren esku-hartzea eskasa da, eskumen nagusiak Eusko Jaurlaritzarenak (Uren Zuzendaritza) eta Ur Partzuergoarenak dira.

Ingurumen kudeaketarako sistemadun enpresak (ISO 14001, EMAS eta Ekoscan)

Hauek dira ingurumen kudeaketarako sistemak dituzten enpresak:

- ISO 14001: Lau enpresek dute ISO 14001: Compañía General de Sondeos (CGS), SA; Fremap, Jesus Oñate y Hnos. SA eta Ona Electroerosión SA
- EKOSCAN: Ona Electroerosión SA

Arrisku natural eta industrialak eta horien kudeaketa

2003ko EPER-Euskadi inbentarioaren arabera, Durango lau enpresek dituzte IPPC Legearen barnean dauden jarduerak:

55. Taula. Fundiciones Fumbarri-ren igorpenak.

Enpresa	Igorpenak	Kopurua (Kg/urteko)	Atariko balioa (Kg/urteko)
Fundiciones Fumbarri	AZIDO ZIANHIDRIKOA	186,8	200
	AMONIAKOA	20,3	10000
	ARTSÉNIKOA eta bere konposatuak	3,033	20
	BENTZENOA	329	1000
	KADMIOA eta bere konposatuak	1,42	10
	KROMOA eta bere konposatuak	11,12	100
	KARBONO DIOXIDOA	5870758,4	100000000
	METANOA	44,8	100000
	KARBONO MONOXIDOA	4371	500000
	NIKELA eta bere konposatuak	5,055	50
	NMVOC(Konposatu Organiko Hegazkor Ez Metanikoak)	2379,1	100000
	OXIDO NITROSOA (N ₂ O)	32	10000
	SUFRE OXIDOAK	94	150000
	NITRÓGENO OXIDOAK	2680,8	100000
	BERUNA eta bere konposatuak	73	200
	PM ₁₀ (PARTIKULAK FRAKZIÓ ARNASGARRIAK)	4080,153	50000
	ZINKA eta bere konposatuak	50,6	200

Iturria: EPER Euskadiko Gidaren datuetan oinarritua.

56. Taula. Fundiciones San Antonio de Urkiola enpresaren igorpenak.

Enpresa	Igorpenak	Kopurua (Kg/urteko)	Atariko balioa (Kg/urteko)
Fundiciones San Antonio de Urkiola	AZIDO ZIANHIDRIKOA	123,6	200
	AMONIAKOA	13,44	10000
	BENTZENOA	217,73	1000
	KADMIOA eta bere konposatuak	0,0405	10
	KROMOA eta bere konposatuak	0,825	100
	KARBONO DIOXIDOA	832045	100000000
	HIDROCARBURO AROMATIKO POLIZIKLIKOAK (PAH)	9,75	50
	METANOA	20,9	100000
	KARBONO MONOXIDOA	149,1	500000
	NIKELA eta bere konposatuak	0,38	50
	NMVOC (Konposatu Organiko Hegazkor Ez Metanikoak)	1542,92	100000
	OXIDO NITROSOA (N ₂ O)	14,9	10000
	NITRÓGENO OXIDOAK	924,5	100000
	BERUNA eta bere konposatuak	1,13	200
	PM10 (PARTIKULAK FRAKZIO ASNARGARRIA)	21043,62	50000

Iturria: EPER Euskadiko Gidaren datuetan oinarritua.

57. Taula. Fundifes enpresaren igorpenak.

Enpresa	Igorpenak	Kopurua (Kg/urteko)	Atariko balioa (Kg/urteko)
Fundifes	AZIDO ZIANHIDRIKOA	6,7	200
	AMONIAKOA	2,9	10000
	ARTSÉNIKOA eta bere konposatuak	1,798716	20
	BENTZENOA	519,6	1000
	KADMIOA eta bere konposatuak	1,03496	10
	KROMOA eta bere konposatuak	8,8604	100
	KARBONO DIOXIDOA	7016725,44	100000000
	HIDROKARBURU AROMÁTIKO POLIZÍZLIKOAK (PAH)	8,83675	50
	METANOA	0,2	100000
	KARBONO MONÓXIDOA	435382,3	500000
	NIKELA eta bere konposatuak	3,322	50
	NMVOC (Konposatu Organiko Hegazkor Ez Metanikoak)	2707,56	100000
	OXIDO NITROSOA (N ₂ O)	0,3	10000
	SUFRE OXIDOAK	94,1	150000
	NITRÓGENO OXIDOAK	1131,7	100000
	BERUNA eta konposatuak	45,4408	200
	PM10 (PARTIKULAK FRATZIO ARNASGARRIAK)	26122,5145	50000
	ZINKA eta bere konposatuak	29,82	200

Iturria: EPER Euskadiko Gidaren datuetan oinarritua.

58. Taula. Jesús Oñate y Hermanos, SA enpresaren igorpenak eta isurketak.

Enpresa	Igorpenak	Kopurua (Kg/urteko)	Atariko balioa (Kg/urteko)
Jesús Oñate y Hermanos, S.A.	KARBONO DIOXIDOA	1596,83	100000000
	METANOA	0,0346	100000
	KARBONO MONOXIDOA	0,2823	500000
	NMVOC(Konposatu Organiko Hegazkor Ez Metanikoak)	0,146	100000
	OXIDO NITROSOA (N ₂ O)	0,0259	10000
	NITRÓGENO OXIDOAK	1,77	100000
	ZINKA eta bere konposatuak	9	200
	Isurketak	Kopurua (Kg/urteko)	Atariko balioa (Kg/urteko)
	KARBONO ORGÁNICO TOTALA (TOC)	354,47	50000
	KLORUROAK	6203,25	2000000
	FLUORUROAK	2,02	2000
	ZINKA eta bere konposatuak	35,44	100

Iturria: EPER Euskadiko Gidaren datuetan oinarritua.

Nekazaritza-abeltzaintza eta basogintzako jardueren eragina

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak ingurumenean duten eraginari dagokionez, honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Hondakinen trataera eta sorrera, batez ere abeltzaintzatik datozenak. Beste atal batean garatzen da.

Basogintzako jarduerari dagokionez, hauek azpimarratzen ditugu inpaktu nagusi gisa:


- Koniferen birpopulatzeen gehiegikeriak, lurzoruen gaitasun produktiboaren txikitze garrantzitsua eragiten dute.
- Baso hustutzeek larriagotu egiten dute, gainera lurzoru produktiboaren galera eragiten dute, prozesu erosiboak eta isurketen areagotzea.
- Baso ustiapenak, gainera, baso pistak egitea dakar; eta horrek lurzoruaren mugimendu handiak eragiten ditu aldapa handiko lekuetan, paisaia inpaktu handia eragiten dute eta ez dira behar bezalako hustubideak egiten.

5.5.2. Arrisku natural eta industrialak eta arriskuaren kudeaketa

Durangoko Udalak "Larrialdien Kudeaketa" xede duen apirilaren 3ko 1/1996 Legearekin eta Euskadiko Babes Zibileko Plana "Larrialdiei Aurre egiteko Bidea – LABI" onartzen den ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuarekin bat datorren 1999ko otsaileko Udalerriko Larrialdietarako Plana du.

Larrialdietarako Planak udalerrriaren barruan gertatzen den hondamendiei behar bezala erantzutea du xede, beti ere modu horretako egoeren aurrean behar bezala prestatua egoteko asmoarekin.

Herriko larrialdi egoerek eragiten dutenez Udalaren zerbitzuek ohikoan bezala ez funtzionatzea, beharrezkoa da egitura berria, aginte ordena eta ondorioz, euren misioak eta ekite eremuak zehaztea. Jarraian modu honetako egoeren aurrean ekiteko organigrama Funtzionala erakusten da:



59. Taula. Udalerriko Larrialdietarako Planaren aurreikusitako arriskuak.

Arriskuak Durangon	
Naturalak	Teknologikoak
• Uholdeak • Suteak	• Istripu kimiko industrialak • Merkantzia arriskutsuen garraioa

Iturria: Udalerriko Larrialdietarako Planaren datuetan oinarritua.

Uholde arriskuak

Uholde arrisku gisa izendatzen direnen artean bi sailkapen egiten dira: uholde arriskua eta putzutarako arriskua. Biak, arazo hidrologikoen ondorio dira. Durango uholdetarako arriskua honako eremuetan kokatzen da: Alde zaharra eta Larrinagatxu eta Ibaizabalen arteko lotura (Aramotz auzoa).

Istripu kimiko industrialen arriskua

Jarraian aipatzen dira istripurik izan ezker inguruan eragina izango luketen industriak: Ona Electro- Erosión, Jesus Oñate y Hnos., Laminación y Derivados, Fundifes, Funsan Scoop., Bruss- Juntas Técnicas SL, Odi Bakar SA, Fumbarri SCL, Montorretas SA, Sabeco gasolindegia, Eroski gasolindegia.

Merkantzia arriskutsuen garraioa

Merkantzia arriskutsu gehienek udalerrria BI-623 saihesbidetik igarotzen dute, soilik. Ez da posible modu honetako arrisku bat zein puntutan gerta daitekeen aurreikustea, baina, probabilitate handiagoa dagoen zonaldeak aipatu daitezke. Aipatu daitezke garraioarentzat bereziki arriskutsuak diren puntuak: Magdalena plaza, Alluitz Kaleko maila bereko igarobidea, Juan Mari Altuna kaleko maila bereko igarobidea, Olleria kaleko maila bereko igarobidea, saihesbidearen errotonda.

Sute arriskua

Kasu honetan hiriguneko eta basoko suteak aurreikusten dira. Hiriguneko suteei dagokionez, zonalde arriskutsuena alde zaharra da, izan ere, bertako eraikuntza gehienak egurrezkoak dira. Baso suteei dagokionez, zonalderik arriskutsuenak udalerraren hego-ekialdean daude; izan ere, bertan dago basorik gehien.

6. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA

6.1. Gizartea eta hiritarren parte-hartzea

Tokiko Agenda 21en garapenean planteatzen den erronka handienetakoa eragile sozialen eta ekonomikoen parte-hartzearekin Ingurumen Ekintza Plan bat osatzea da, modu horretan bermatzen da tokiko komunitateko kideen parte-hartzea.

Udal bakoitzaren ingurumen informazioa, ingurumen hezkuntza jarduerak eta egun martxan dauden ingurumen arloko parte-hartzerako organoak Udalaren ingurumen komunikazio politikari lotzen zatzaizkio.

Hiritarren parte-hartze honek garrantzia du Agenda 21n prozesu osoan, baita Diagnostikoaren fasean ere, horregatik, Iraunkortasun Foroa deitzea espero da. Bertan, udalerriko eragile eta elkarteek aukera izango dute prozesuan modu aktiboan parte hartzeko eta Durangoko ingurumen egoeraren eta errealitate sozio-ekonomikoaren gainean eztabaidatzeko.

6.2. Ingurumen informazioa eta sentsibilizazioa

Udalerriko ingurumenaren gaineko informazioa

Udalerrian ingurumenarekin lotutako ekintza ugari egin da. Hedapen kanpaina ugari egin da:

- 1.- Tokiko Agenda 21-en aurkezpen kanpaina.
- 2.- Hiritarren arteko zakurren jabeentzako kanpaina (2004). Prestatzen ari da bigarren kanpaina 2006ko urtarrilerako.
- 3.- Etxean erabilitako olio jasotzeko zerbitzua ezartzeko kanpaina.
- 4.- Dendetako kartoia biltzeko kanpaina.
- 5.- Energia Biziren kanpaina. 1.100 pertsonen ikusi zuten erakusketa 2005eko irailean.
- 6.- 2006ko lehen hiruhilekoan birziklatzeko ontzien banaketa.

Zakur gorotzak biltzeko kanpaina

2004an zakurrak dituzten pertsonen begirako kanpaina egin zen, animalia hauekiko dituzten betebeharrak eta eskubideak azaltzeko. 2006an beste kanpaina bat egin da “Ez utzi kale gorrian, batu itzazu” izenburupean. Zakurren gorotzak jasotzeko beharra lantzeko izan da kanpaina eta hiru hilabete iraun ditu. Beste gauza batzuen artean gorotza jasotzeko 25.000 poltsa banatu dira, informazio eskuorriak banatu dira (5.000),

500 CD interaktibo banatu dira, TB-ko iragarkia egin da, prentsan iragarkiak jarri dira eta lotura bat jarri da Udalaren webgunean.

Egindako kanpaina baloratu asmoz inkesta bat burutu da eta abere klinika eta dendeak modu oso baikorrean baloratu dute, esan dute jendeak geroz eta kontzientzia handiagoa duela kontu honekiko. Hainbat ekarpen ere jaso dira, horien artean zakurren *pipican*-ak jartzekoa udalerriko zonalde estrategikoetan.

Durango Bandera Berdea – Hiri Iraunkorra izendapena jaso du; izendapen hori Ingurumen Ministerioarekin elkarlanean Erabiltzaile eta Kontsumitzaile Independenteen Federazioak ematen du. Izendapen horrekin, honako baldintzak betetzen dituzten Udalak saritu nahi izaten dituzte:

- Udalerriaren garapen iraunkorraren alde egiten dutenak, udalerriaren antolaketan iraunkortasun irizpideak txertatuz, hiriaren garapenak ingurumena arriskuan jarri ez dezan eta hiriguneek okerrera egin ez dezaten.
- Aktiboki euren hiriak garbi izatearen alde egiten dutenak.
- Energia eta baliabide naturalak aurrezteko ekinbideak dituztenak, bai eraikin publikoetan eta baita hiritarren artean ere murriztu-berrerabili-birziklatu hirukoari jarraituz.
- Herritarren parte-hartzea bultzatzeko prozesuak garatzen dituztenak.
- Naturaren kontserbaziorako jarduerak dituztenak.

6.3. Udal egitura

6.3.1. Udalbatzaren osaketa

EGITURA POLITIKOA:

- *DURANGOKO GOBERNU BATZORDE LOKALA*
 - Juan Jose Ziarrusta Campo (EAJ-PNV/EA), **Alkatea**.
 - Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ-PNV/EA), **1go alkateordea**.
 - Ander Gorrotxategi Legarra (EAJ-PNV/EA), **2. alkateordea**.
 - Juan José Agirre Barruetabeña (EAJ-PNV/EA), **3. alkateordea**.
 - Sara Oveja Salazar (EAJ-PNV/EA), **Zinegotzia**.
 - Maria José Balier Orobiourrutia (EAJ-PNV/EA), **Zinegotzia**.
 - Juan Ignacio Martínez Orea (EAJ-PNV/EA), **Zinegotzia**.
- *DURANGOKO UDALEKO INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRAK*
 - Kontuen Batzorde Berezia (Hazienda eta Barne Erregimena).
 - Hirigintza, Obrak eta Ingurugiro Batzordea.
 - Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordea.
 - Gizarte Ekintza Batzordea.
 - Gazteria eta Kirolak Batzordea.
 - Berdintasun batzordea.

DURANGOKO UDALARRI LOTUTAKO ERAKUNDE ETA ELKARTEAK:

- *ERAKUNDE AUTONOMOAK*
 - “Uribarri” Egoitza Fundazioa.
 - “Bartolome Ertzilla” – Musika Eskola Fundazioa.
 - “UKE” Udal Kirol Erakundea.
 - Arte eta Historia Museo Fundazioa.
 - Durangoko Udal Euskaltegi Fundazioa.
- *UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK*
 - Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa.
 - Durango Eskualdeko Hiltegia.
 - Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- *BESTE ERAKUNDE BATZUK*
 - Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL).
 - Urkiolako Parke Naturaleko Patronatua.
 - Mendi Nekazaritza Elkarte.

- Bilbao Bizkaia Kutxa Batzar Nagusia.

6.3.2. Udalaren ingurumen aurrekontua

Udalak eskainitako datuen arabera, Udalaren 2005eko Udalaren gastuen aurrekontuak 21.974.192,05 euro jasotzen zituen eta horietako 2.691.974,85 euro (aurrekontu osoaren %12,25a) honako kontuetan xahutu ziren: Ingurumena eta Garapen Iraunkorra, errepideen garbiketa eta bilketa lanak, zaborraren deusezteia eta tratamendua.

60. Taula. Aurrekontuaren banaketa.

GAIA	Euroak orotara	%
Ingurumena eta Garapen Iraunkorra	214.880,94	7,98
Errepideen garbiketa	1.171.455,93	43,51
Zaborren bilketa, deusezteia eta tratamendua	1.055.637,98	39,21
GUZTIRA	2.691.974,85	100

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

Ingurumenari eta Garapen Iraunkorrari zuzendutako diru kopurua Ingurumenera Udalak bideratu duen aurrekontuaren %7,98a da, hauen baitan errepideen garbiketa eta bilketa, zaborren deusezteia eta tratamendua dira garrantzitsuenak, izaera iraunkorreko gastuak dira. Hala ere, Ingurumena eta Garapen Iraunkorra garatzeko aurrekontuak aztertzen baditugu, langile gastuek guztiaren %44,81a osatzen dute (96.290,94 euro); beraz, proiektu, zerbitzu eta gainontzekoentzat 118.590 euro geratzen dira, erdia baino pixka bat gehixeago.

6.4. Herritarren ingurumen pertzepzioa

Atal honetan biltzen ditugu Tokiko Agenda 21 osatzeko prozesuaren baitan Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerri guztietan egin den galdeketa Durango hiritarrek iraunkortasunaren problematikari buruz azaldu dituzten iritziak,.

Informazioaren bilketa egiteko galdera-sorta modu honetan antolatzen zen: arazo sozioekonomikoen, ingurumenezkoen eta sozialen inguruko asebetetze maila jakin nahi zen, baita Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrietako hiritarrek zein balorazio egiten duten hauetaz ere, administrazioaren sentsibilizazioa, bizitzaren kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna, jarduera ezberdinak abiatzeko beharraz duten iritzia eta Tokiko Agenda 21 prozesuaren garapenaz duten ezagutza eta problematika horren gaineko foroetan parte hartzeko prestutasuna.

Galdeketa prozesu hau telefono bidez osatu da Durangaldeako Udaltalde 21 udalerrietan bizi diren 834 pertsonako lagin batekin, 2006ko urtarrila eta otsaila artean egin dira elkarrizketak. Horretarako Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrien eta eskualdearen iraunkortasunarekin lotutako gai sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoen inguruan zituzten kezka, iritzi eta jarrerak jasotzen zituen galdeketa egituratua erabili da. Durangon 375 elkarrizketa egin dira:

61. taula. Inkesten banaketa genero eta adinaren arabera.


	Gizona				Emakumea				GUZTIRA
	18-25 urte	26-40 urte	41-64 urte	≥65	18-25 urte	26-40 urte	41-64 urte	≥65	
Durango	16	56	78	32	17	59	83	34	375

Jarraian udalerrian galdekatuak izan diren pertsonen emandako datu esanguratsuenak biltzen ditugu, eta alderatzeko, kide den udalerri taldearenak eta laginketaren osotasunarenak.

Udalerriak eta eskualdeak bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa sortzen dien asebetetze maila

Hurrengo taulan alde batetik Durangoko herritarrek euren udalerriarekiko eta eskualdearekiko duten asebetetze maila jasotzen dugu (1etik 4rako eskalan); eta aldi berean, Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrietan lortutako batez bestekoarekin alderatu dugu. Durangoko herritarrek udalerriarekiko eta eskualdearekiko bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa duten asebetetze maila 2,99koa³ da. Eskualdeari dagokion lan egiteko eta bizitzeko asebetetze mailari dagokionez, batez bestekoa 3,03ra igotzen da; beraz, esan dezakegu pertsonak asebetetze maila altuagoa dutela bizitzeko eta lan egiteko eskualdearekiko udalerriarekiko baino. Bestalde, ikus dezakegu Udaltalde 21 osatzen duten udalerrietako asebetetze mailaren batez bestekoa altuxeagoa dela (eskualdearekiko eta udalerriarekiko) Durangon baino.

20. Grafikoa. Asebetetze maila eskualdearekiko eta udalerriarekiko.



³ 1etik 4ra jasotako erantzun guztietatik osatutako batez bestekoa.

Hiritarren asebetetze maila txikiena izan duten gaiak

Hurrengo taulan Durangoko pertsonentzat kezkarrienak diren gaiak zerrendatzen dira.

62. Taula. Asebetetze maila txikiena jaso duten lehen 10 gaiak.

<i>Asebetetze maila txikiena jaso duten lehen 10 gaiak</i>	Batez beste	Eremua
1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa	1,20	Soziala
2. Dauden txirrindu bideak	1,63	Ingurumena
3. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen egoera	1,94	Sozioekonomikoa
4. Enpresek sortutako kutsadura maila	1,97	Ingurumena
5. Gazteentzako zerbitzuak eta hauen kalitatea	2,03	Soziala
6. Nekazaritza ekologikoaren egoera	2,13	Sozioekonomikoa
7. Enplegu aukerak	2,16	Sozioekonomikoa
8. Norberaren autoaz egiten den erabilera	2,16	Ingurumena
9. Mugitzeko ezintasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna	2,17	Ingurumena
10. Eskolako porrotaren problematikari aurre egiteko arreta	2,17	Soziala

Hiritarren ustearen arabera, gaur egun Durangon kezka handiena sortzen duen arazoa etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa da. Ingurumenari dagokionez, azpimarragarriak dira txirrindu bideak falta direla eta enpresek sortzen duten kutsadura maila. Gai sozioekonomikoei dagokionez nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearen egoera, eta honi lotuta, nekazaritza ekologikoaren egoera dira durangarren kezka-iturri.

Hauetako ingurumen eremuan asebetetze maila txikiena erakutsi duten gaiak:

63. Taula. Asebetetze maila txikiena izan duten ingurumen gaiak.

<i>Asebetetze maila txikiena izan duten ingurumen gaiak</i>	Batez beste	Eremua
1. Dauden txirrindu bideak	1,63	Ingurumena
2. Enpresek sortutako kutsadura maila	1,97	Ingurumena
3. Norberaren autoaz egiten den erabilera	2,16	Ingurumena
4. Mugitzeko ezintasuna duten pertsonen irisgarritasuna	2,17	Ingurumena
5. Ibaietako uraren kalitatea	2,30	Ingurumena

Ikus dezakegu txirrindu bideen gabezia dela inkestatuak izan diren pertsonen iritziz arazorik handiena edo asebetetze maila txikiena duena. Aldi berean, udalerrian dauden enpresek sortzen duten kutsadurarekiko kezka ere badago. Norberaren autoaz egiten den erabilera gehiegizkoa dela uste da, eta hortik eratoritzen da hiritarrek kezka dutela Durangoko pertsonen mugitzeko ohituren inguruan. Ikus daiteke, udalerriak ez duela

bermatzen ezinduentzako irisgarritasuna. Azkenik, udalerria zeharkatzen duten ibaietako uraren kalitateak ere kezka sortzen du.

Eremu sozialean, durangarren artean asebetetze maila txikiena sortzen duten gaiak honakoak dira:

64. Taula. Asebetetze maila txikiena duten gai sozialak.

<i>Asebetetze maila txikiena duten gai sozialak</i>	<i>Batez beste</i>	<i>Eremua</i>
1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa	1,20	Soziala
2. Gazteentzako zerbitzuak eta hauen kalitatea	2,03	Soziala
3. Eskolako porrotaren problematikarekiko arreta	2,17	Soziala
4. Emakumearen bazterketa egoerarekiko arreta	2,20	Soziala
5. Txirotasunari, desberdinkeria sozialei eta bazterketa sozialari egiten zaion arreta	2,20	Soziala

Aurreko taularen arabera, etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa dira bertakoen artean kezka gehien sortzen dutenak. Bestalde, ikusten da gazteentzako zerbitzuen eta hauen kalitatea ez dela nahikoa edo ez diola erantzuten hiritarrek espero dutenari. Gainera, eskolako porrotaren problematikarekiko arreta gabeziak kezkatzen du. Aldi berean, emakumearen bazterketa egoerarekiko arretak ere kezka sortzen du. Azkenik, txirotasunari, desberdinkeria sozialei eta bazterketa sozialari egiten zaion arreta ez da behar bezalako inkestatutako pertsonen ustez.

Azkenik, eremu sozioekonomikoaren baitan, hauek dira asebetetze maila baxuena duten gaiak:

65. Taula. Asebetetze maila txikiena duten gai sozioekonomikoak

<i>Asebetetze maila txikiena duten gai sozioekonomikoak</i>	<i>Batez beste</i>	<i>Eremua</i>
1. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen egoera	1,94	Sozioekonomikoa
2. Nekazaritza ekologikoaren egoera	2,13	Sozioekonomikoa
3. Enplegu aukerak	2,16	Sozioekonomikoa
4. Industriaren egoera	2,46	Sozioekonomikoa
5. Turismoaren egoera	2,51	Sozioekonomikoa


Kezkagarria da Durangoko herritarrentzat nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen egoera, baita nekazaritza ekologikoaren egoera ere. Bestalde, inkestatuak izan diren pertsonak ez daude gustura eskaintzen diren enplegu aukerekin. Gainera, udalerriko industriaren eta turismoaren egoera ere kezka iturri dira.

Zer hondakin mota birziklatzen duzu?

Biztanleriak birziklatzen dituen gaien inguruko pertzepzioa jaso asmoz, inkestan galdera-sorta bat egin zen birziklapenaren inguruan duten ustea jaso asmoz.

Hurrengo grafikoan jasotzen dira gai honetako erantzunak, bertan Durangoko batez bestekoa erakusten da eta baita Durangaldeako Udaltalde 21eko kide diren udalerrietakoak ere, 1 “inoiz ez” da eta 3 “normalean bai”.

21. Grafikoa. Birziklatzen diren hondakinak.




Ikus dezakegu papera, plastikoa, beira eta baita pilak ere normalean birziklatzen direla. Beraz, esan dezakegu biztanleriaren portzentaje altu batek birziklatu egiten dituela material hauek. Zehazki, %74,4ak pilak birziklatzen ditu ohikoan, %84,90ak plastikoak birziklatzen ditu eta %88,60ak beira eta papera. Olioak ohikoan soilik %38,9ak birziklatzen du eta pintura eta disolbagarriak bezalako likido arriskutsuak, soilik Durangon bizi direnen %7,60ak birziklatzen ditu. Aldi berean, Durangoko hondakinen birziklatzearen batez bestekoa Udaltalde 21en batez bestekoaren antzekoa da, are gehiago, pila eta plastiko birziklapenaren kasuan Udaltalde 21ekoa baino altuagoa da Durangoko batez bestekoa.

Ez dago ezberdintasun esanguratsurik erantzunetan gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Bere inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna

Galdera-sortari erantzuten dioten pertsonen euren inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak zein neurritan aldatzeko prest egongo ziren erakusten dute, hurrengo grafikoan jasotzen da emaitza. Bertako biztanleen erantzunak honako eskalan zehaztu ditugu: 1etik “inoiz ez” 3ra “maiz”.

22. Grafikoa. Biztanleen ohiturak aldatzeko prestutasuna.



Aurreko grafikoaren arabera, Durangoko udalerrian ohiturak aldatzeko batez bestekoa eskualdekoa baino pixka bat altuxeagoa da. Bestalde, hauek dira aldatzeko prestutasun gutxien sortzen duten ohiturak:


- Garapen iraunkorrean inbertitzeko tasa edo zerga gehiago ordaintzea.
- Mendien eta ibaien garbiketakako kanpainetan parte hartzea.
- Iraunkortasunaren inguruko bileretan aktiboki parte hartzea.
- Ekoizpen ekologikoak kontsumitzea edo erabiltzea, nahiz eta hauek garestiagoak izan.

Aldi berean, ikus dezakegu ez dagoela ezberdintasun esanguratsurik emakumezkoen eta gizonezkoen erantzunen artean.

Jarrera iraunkorra eguneroko bizitzan

Inkestari erantzuten dioten pertsonak euren inguruko bizitza kalitatea hobetzeko iraunkortasunaren mesedetan zein neurritan jarduten duten zehazten dute. Jarraian azaldu dugu Durangoko pertsonak hainbat eremutan iraunkortasunaren mesedetan jarduten duten neurria 1etik (inoiz ez) 3ra (maiz).

Hurrengo grafikoan jasotzen dira datu horiek.

23. Grafikoa. Iraunkortasunaren mesedetan jarduten du egunerokoan.


Ikus dezakegu pertsona gehienek maiz iraunkortasunaren mesedetan jarduten dutela energiaren eta uraren kasuan. Aldiz, maiztasun hori txikiagotu egiten da erosketak egiterako garaian. Aldi berean, esan dezakegu Durangoko maiztasunaren batez bestekoa Udaltalde 21eko batez bestekoa baino handiagoa dela eremu guztietan.

Bere udalerrian Tokiko Agenda 21 garatzen ari den badaki

Hurrengo grafikoaren arabera, biztanleriaren ia %9,80ak badaki Durangon Tokiko Agenda 21 prozesua bultzatzen ari dela. Aldiz, %42,5ak prozesu hori Durangon egiten ari denik ez daki.

Gizonezkoen %14,2ak badaki bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari dela eta emakumezkoen %7,5a da prozesuaren berri duena.


Aipagarria da portzentaje altu batek, zehazki %47,70ak, ez diola galderari erantzuten, segur aski gaiaz ideiarik ere ez dutelako.

24. Grafikoa. Badaki bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari dela.

Zerbitzuen gertutasuna oinez joanda

Hurrengo grafikoan Durangon bizi diren pertsonen oinez 15 minutu baino gutxiagora dituzten zerbitzuak jasotzen dira.

25. Grafikoa. Oinez 15 minutu baino gutxiagora biztanleek dituzten zerbitzuak.



Grafikoan jasotako datuetatik azpimarratzen da bertan bizi diren pertsonen %99,2ak badituela birziklatzeko edukiontziak oinez 15 minutu baino gutxira eta %39,2ak soilik dituela parke pribatuak 15 minutu baino gutxiagora. Durangoko pertsonen %45,2ak badu gazteentzako lokalen bat 15 minutu baino gutxiagora. Modu berean, ikus dezakegu oinez 15 minutu baino gutxiagora zerbitzu hauek dituztenen portzentajea Udaltalde 21eko batez bestekoa baino altuagoa dela. Hori, batez ere, Durango eskualdeko ardatza delako da, berak biltzen baitu zerbitzu gehien.

Hurrengo taulan portzentajeen arabera biltzen ditugu zerbitzuak 15 minutu baino gutxiagora dutela erantzuten duten pertsonak.

66. Taula. Oinez 15 minutu baino gutxiagora dauden zerbitzuak.

	15 minutu baino gutxiago %
Osasun sorospen zerbitzuak (medikua, anbulatorioa, farmazia...)	89,8
Garraio publiko zerbitzuaren geltokia (autobusa, trena...)	91,5
Haur eta derrigorrezko hezkuntzarako zentroak	88,4
Elikadura komertzioak	94,1
Hondakinen birziklaketarako edukiontziak	99,2
Garbigunea	46,7
Aurrezki kutxak eta bankuak	96,1
Kirol eremuak (polikiroldegia, estalitako igerilekuak, estalitako frontoiak)	69
Kultur Etxea	73,2
Liburutegia	81,8
Zinema	82,9
Gazte lokala	45,2
Parke, lorategi edo espazio publiko irekiak (oinezkoentzako eta aisialdirako plazak)	93,2
Doako erabilpeneko estali gabeko kirol instalakuntzak (publikoak)	63,3
Guztientzat doako sarrera duten zonalde pribatuak (parke pribatuak)	39,2

Taularen irakurketatik ikus dezakegu zerbitzu gehienak biztanleriaren gehiengoarentzat 15 minutu baino gutxiagora daudela, honakoak azpimarratzen ditugu: hondakinen birziklaketarako edukiontziak, aurrezki kutxak eta bankuak, elikadura komertzioak eta garraio publikoaren geltokiak.

Durangon bizi direnen joan-etorriak

Hurrengo taulan Durangon bizi diren pertsonen aste egun batean egiten dituzten joan-etorriak azaltzen dira eta datuak jaso ditugu Durangaldeako Udaltalde 21 osatzen duten udalerriekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoekin alderatuta.

Bertako pertsona batek eguneko egiten duen batez besteko bidaia kopurua bi da, joan-etorri bakoitzean egindako batez besteko distantzia 7.2 km da, eta batez beste 16,2 minutuko iraupenekoak dira.

Egunero pertsona bakoitzak egiten duen batez besteko distantzia 13,74 km-koa da eta joan-etorrietan pertsona bakoitzak hartutako denbora 38,19 minutukoa da batez beste.

Datu hauek Udaltalde 21ekoekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoarekin alderatuta (2004ko Ekobarometro Sozialean jasoak) honako ezberdintasunak lortzen ditugu.

Bidaia kopurua Udaltalde 21ekoaren parekoa da (2 bidaia), nahiz eta EAEkoa baino txikiagoa den (2,55 bidaia). Joan-etorri bakoitzean egindako batez besteko distantziari dagokionez, Durangon 7,2 km-koa da, Udaltalde 21ekoa (8,2 km) eta EAEkoa (10,34 km) baino txikixeagoa da.


Joan-etorrien denbora txikiagoa da Durangon gainontzeko lurraldeetan baino, gauza bera gertatzen da pertsona bakoitzak egunero egindako distantziarekin, ez, ordea, egunero joan-etorrietan iragandako denboraren kasuan; izan ere, Udaltalde 21en iragandako denbora txikiagoa da hurrengo taulan ikus daitekeen moduan.

67. Taula. Durangon, Durangaldeako 21en eta EAEn bizi direnen joan-etorriak.

<i>Indikatzaileak</i>	<i>Durango</i>	<i>Udaltalde 21</i>	<i>EAE</i>
<i>Pertsona bakoitzak egiten duen bidaia kopurua</i>	2	2	2,55
<i>Joan-etorrien batez besteko distantzia</i>	7,2	8,2	10,34
<i>Joan-etorrien denbora</i>	16,2	16,55	20,0
<i>Pertsona bakoitzak egunero egindako distantzia</i>	13,74	14,86	26,37
<i>Joan-etorrietan pertsona bakoitzak iragandako denbora</i>	38,19	35,05	51,0

Garraioaren arabera joan-etorriei dagokionez, hurrengo grafikoan ikus ditzakegu Durangoko datuak.


26. Grafikoa. Joan-etorriak garraioaren arabera.



Durangoko biztanleriaren ia %60ak bere joan-etorriak oinez egiten ditu. Aldi berean, norbere autoan egiten diren joan-etorriak (%30) garrantzitsuak dira. Beraz, esan dezakegu bi bitarteko horiek direla Durangoko biztanleriak gehien erabiltzen dituenak. Autobusa (%4,2) eta trena/metroa (%3,8) neurri txikiagoan erabiltzen dira. Gainontzeko garraiobideen erabilpena oso txikia da.


Hurrengo grafikoan Durangoko biztanleen joan-etorriak erakusten dira arrazoiaren arabera.

27. Grafikoa. Joan-etorriak arrazoiaren arabera.



Joan-etorrien arrazoi nagusia lana da. Aisialdia eta eguneroko erosketak, ordena horretan, dira hurrengo arrazoi nagusiak, atzetik dira asteroko erosketak eta ikasketak.

28. Grafikoa. Joan-etorriak iragandako denboraren arabera.



Aurreko grafikoaren arabera, 5 minutu baino joan-etorri txikiagoak egiten ditu Durango biztanleriaren %28,6a. 6 eta 10 minutu arteko joan-etorrien portzentajea txikiagoa da (%25,5a). Beraz, esan dezakegu joan-etorrien gehiengoa minutu bat eta 10en artekoa da.

7. DURANGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA, ONDORIOAK ETA INTERPRETAZIOAK

7.1. Diagnostikoaren Laburpena

Demografia eta Biztanleria

- **Biztanleriaren garapena.** Biztanleriaren azken bi hamarkadetako joera hazkorra da eta gaur egun arte irauten du. Jaiotzen areagotzeak eragiten du hori gehienbat, gainera migrazio mugimendu positiboak daude, bai barne mailakoak (eskualdeko landa zonaldeetatik) eta baita kanpokoak ere (Estatutik eta atzerriko herrialdeetatik). 2005eko abenduan, Durangoko biztanleria 27.085ekoa da.
- **Biztanleriaren egitura.** Udalerriko biztanleriaren adinaren arabeko egituraren garapenak biztanleriaren zahartzea erakusten du eta aldaketa sakonak biztanleriaren adinaren arabeko egituratzean. 2005ean Durangoko biztanleriaren egitura modu honetan osatzen zen: biztanleriaren %19,22a 19 urtetik beherakoa zen, %64,92ak 20 eta 64 urte artean zituen eta %15,86ak 65 edo gehiago. Gainera, ikusten da adina igo ahala, emakumezkoen portzentajea ere hazi egiten dela.
- **Berezko mugimenduak eta migrazioak:**
 - 1996-2003 urtealdian, berezko hazkunde tasako datuen azterketatik joera positiboa ondorioztatzen da, horrek esan nahi du jaiotza gehiago izan direla heriotzak baino.
 - Migrazio saldoari dagokionez, 1991-2003 urtealdia hartzen duten urte guztietan saldoa positiboa izan da eta ikusten dugu udalerrira bizitzera etorri diren gehienak eskualdekoak direla. Gainera, atzerritar kopurua azken lau urteetan (2002-2005) ia bost aldiz biderkatu da. Bestalde, Durangon presentzia gehien duten naziotasunak honakoak dira: Ekuador, Errumania, Kolonbia, Bolivia, Maroko eta Brasil. Azkenik, aipatu behar da etorri diren atzerritarren erdia baino gehiago gizonezkoak direla (%53,27).

Ekonomia eta Enplegua

- **Jarduera eta egitura ekonomikoa.** Udalerriak bere burua tamaina erdiko zerbitzu hiri gisa definitzen du. Ikus dezakegu Durangoko ekonomia hirugarren sektorerako bidean joan dela modu jarraituan. Industria eremuko enplegua txikitu egin da zerbitzuetakoa hazi den neurrian, nahiz eta oraindik bigarren sektorearen pisua garrantzitsua

den. Beraz, zerbitzuen sektorea da Durangoko jarduera sektore nagusia, bai balio erantsiari dagokionez eta baita enpleguari dagokionez ere. Azpimarratu behar da eskualdean bigarren sektorearen inguruko hausnarketa egiten ari dela, udalerrian berriz, turismo sektorearen analisi bat egin da. Lehen sektoreari dagokionez, esan behar da ez dagoela apenas nekazal ustiapenik udalerrian.

- **Langabezia.** Azken urteetako langabeziaren garapen alderatuari dagokionez, langabezia tasa asko jaitsi da 1997 eta 2004 artean, hala ere, 2005ean hazkundea izan da eta eskualdeko tasa baino gorago jarri da. Zerbitzuen jarduera da langabetu gehien dituen. Adinaren arabera pertsona langabetuen banaketari dagokionez, gehienak 25 eta 34 urte arteko tartean daude, bai gizonezkoen kasuan eta baita emakumezkoen kasuan ere. Azkenik, azpimarratu behar da emakumezkoen langabezia altuagoa dela gizonezkoenaren aldean.

Gizarte ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna

- **Zerbitzu sozialak.** Ikus dezakegu nagusiki emakumeak direla zerbitzu sozialen erabiltzaileak. 2003an Etxez etxeko laguntzaren, Oinarrizko Errentaren, birgizarteratze hitzarmenen... onuradunen %70 baino gehiago emakumezkoak ziren (laguntza batzuetan portzentaje hau gairitu egiten da). Egoera honen eragileak honakoak dira: faktore demografikoak (bizitza esperantza), faktore sozio-ekonomikoak (emakumezkoen lan baldintza prekarioak, emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familien hazkundea, bereizialak...), eraso sexualak edo etxeko indarkeria fisiko eta psikikoa pairatzen duten emakumeak, emakume etorkinak... Beraz, esan dezakegu emakumezkoen beharrak gizonezkoenak baino handiagoak direla.
- **Osasuna.** Gizonezkoen artean heriotza gehiago dago emakumezkoen kasuan baino, nahiz eta ezberdintasuna oso txikia den (2003ko datuak: gizonezkoak %50,2 eta emakumezkoak %49,8). Heriotza arrazoiei dagokionez, %32,4a zirkulazio aparatuari lotutako gaixotasunen ondorioz dira eta %26,7a minbizi tumoreen ondorioz. Hauek dira dauden osasun zentroak: Berezitasunen Anbulatorioa, Landakoko Osasun Gunea eta Osasun mentaleko zentroa.
- **Hezkuntza eta kultura.** Durangoko biztanleriaren formakuntza maila orokorra Durangaldeako, Bizkaiko eta EAEko batez bestekoa baino altuagoa da, izan ere, alfabetatu gabeko eta ikasketarik gabeko biztanleriak pisu txikiagoa du eta bigarren eta goi mailako ikasketak dituztenen kopurua handiagoa. Hala ere, oraindik ikusten dira formakuntza maila baxuak, batez ere emakumeengan. Generoari dagokionez, esan dezakegu alfabetatu gabeko biztanleen %72,2a emakumezkoak direla. Gainera, lanbide heziketan gizonezkoek jarraitzen dute nagusi izaten. Hala ere, diplomaturak eta lizentziaturak

dituzten pertsonen artean emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira.

- **Euskara.** Udalak egindako azterketa baten arabera, 2001ean biztanle gehienak euskaldunak ziren (%45,3), biztanleriaren %34,33ak bere burua elebakartzat definitzen zuen eta %20,4a elebiduna zen. Ikusten da 1981 eta 2001 urte artean elebakarrak diren pertsonak geroz eta gutxiago direla eta euskaldunen eta elebidunen kopurua hazi egiten dela, hala ere, Durangoko etxeetan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelera da.
- **Gazteak.** 2005eko irailean "Durangoko Gazteriaren Egoera"-ren inguruko diagnostikoa egin zen Gazte Plana osatzeko.

Lurraldea

- **Ingurune fisikoa.** Durangok Ibaizabal ibaiaren ezker ertzeko eremu irekia hartzen du. Hegoaldera, antiklinal txiki, konprimatu eta zatitua du, kapa ia bertikalekin ekialdera Alluitz, Anboto eta inguruko tontorretara doan mendi ertza sorrarazten du.
- **Hidrologia.** Durango zeharkatzen duten ibai nagusienak Mañaria eta Ibaizabal dira. Ibaizabal Udalatxen, Anbotoren eta Urkiolaren iparralderako eremuetan eta Oiz mendiaren hego isurialdean jaiotzen da. Arroaren goi partean jariora presentzia demografiko eta industrial handi baten artetik doa, bertan baitira Elorrio, Abadiño, Zaldibar, Berriz eta Durango, besteak beste. Durangotik igarotzean, Mañaria ibaiaren (udalerria iparretik hegora zeharkatzen du) eta Larrinagatxu errekaen emaria jasotzen ditu. Ibaizabal ibaiaren uren kalitateari dagokionez bi laginketa estazioetako datuak ditugu, lehena Smurfit Nervion SA paper-fabrikatik gorago dago eta bestea Smurfit Nervion SA paper-fabrikaren ostean, azken hau lurretan dago. Ibaiaren egoera biologiko eta ekologikoaz egiten den balorazio orokorra eskasa da.
- **Flora.** Gaur egun Durangoko landaredia potentzialki behar luketenetik oso ezberdina da, bere inguruan izan den gizakiaren jardura intentsuaren ondorioz. Landaredia baldintzatzen du, nagusiki, lurraren beraren altuerak, hala ere, gizakiaren jardunbideak garai bateko paisaia aldatu du. Basorik gehienak radiata pinuak hartzen ditu.
- **Fauna.** Urkiolako Parke naturaleko ornodunen fauna 126 espeziek osatzen dute; bereziki jatorri eurosiberianiarrekoak dira. Horietako asko Mehatxupean dauden Espezien EAEko Katalogoan daude. Anfibioei dagokionez, esan daiteke aberatsa dela eta balio handiko bi espezie erakusten dituela: gailurretako uhandrea eta baso-igel jauzkaria, arabar hariztietako ezaugarri den anuroa. Bestalde, narrastien presentzia eskasagoa da. Hegaztien artean harrapariak dira nagusi. Horien artean saia, aztorea, zapelatz liztorjalea eta belatz handia. Balio gehien duenetako, Euskal Herrian gutxi direlako, mendi-tuntuna da, gailur handietako harkaitz eta zelaietan soilik egon ohi da. Ugaztunen

faunaren ezaugarria dira intsektujale txikiak eta karraskariak, muturluze piriniarra bezalako bereziak dira aipagarriak, edo ur-satitsua eta satitsua. Haragijaleen artean lepahoria, bisoi europarra eta basakatua.

Lurraldearen antolaketa

- **Lurraldearen Antolamendurako Artezbideak (LAA).** LAA-etatik proposatzen den Lurralde Eredua, luraren politika orokorrerako irizpideekin, erabilpen ekonomikorako edo bizitegitarako gaitasuna definituz, horretarako guneak zehazten ditu eta bereziki zehazten dute Amorebieta-Etxano – Durango ardatza. Bizitegitarako aurreikusitako luraren erabilpenari dagokionez, Durango-Abadiñoako hazkunde garrantzitsu samarra aurreikusten da, nahiz eta bigarren etxebizitza bezalako aukerek ez duten bertan garrantzirik.
- **Lurraldearen Zatikako Plana (LZP).** Lurraldearen Zatikako Planen (LZP) helburua da LAA-k garatzea azken tresna honek zehaztutako udalaz gaindiko zonaldeetan, berak zehaztutako irizpideak indartuz. Durangoko Jarduera Eremuaz Lurraldearen Zatikako Plana egiten ari da eta honezkero lehen bi faseak osatu ditu, informazioa eta diagnostikoari dagokiona lehena eta aurrerakinarena bigarrena. Durangori dagokionez, etxebizitzaren kontua Abadiño, Durango, Iurreta eta Izurtzak osatzen duten hiri jarraitu egituraren aztertzen da, 2000-2003 lau urterako 4.914 etxebizitzaren eskaintza beharra aurreikusten da.
- **Urkiolako Parke Naturalaren Erabilpen eta Kudeaketarako Gida Plana (EKGP)** Ingurumenaren eta Lurraldearen Antolaketarako Sailaren ekainaren 18ko 147/2002 dekretuaren bidez Urkiolako Parke Naturaleko Baliabide Naturalen antolaketarako plana onartu zen. Urkiolako Parke Naturalaren lurraldeak zortzi udalerri hartzen ditu bere baitan, horien artean dago Durango.
- **Jarduera ekonomikotarako eta merkatal ekipamenduetarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana.** Durangaldeako Jarduera Eremuak 757 Ha ditu kalifikatuta, horietako 510 Ha. okupatuta daude eta 247 Ha ez okupatuta. Lur ez okupatuko erretserba nagusia Amorebietarena da 117 Ha. (70 Ha. Boroan), Durangok, berriz, 48 Ha. ditu.
- **EAEko Trenbide sarearen Plana.** Plana hau otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartu zen (9/4/01 Euskadiko Aldizkari Ofiziala). Eusko Trenen eta Abiadura Handiko Trenaren bidearen inguruko aurreikuspenak biltzen ditu. Plan horretako proposamenetako batek Bilbo eta Durango arteko bidea hobetzea du helburu. Durangon, trenbidea eta geltokia lurpera sartzea aurreikusten da. Ekintza hau funtsezko hirigintza operazio gisa definitzen da, ez trenari lotutako, horren ondorioz hiriguneko lur eremu handia libre geratuko da.

- **Egun indarrean dauden arau subsidiarioak.** Durangoko arau subsidiarioen II. Berrikuspena 2005eko apirilaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (77. zka) argitaratu ziren.
 - *Bizitegitarako eskaintza osoa* 3.500 etxebizitzakoa da, horietako 1.012 babes ofizialeko etxebizitzak dira. Hirigunean 4 PERI zehazten dira: trenbidea, San Fausto, San Roke eta Arabilla, kontuan hartu gabe Ibaizabalgo PERIa, honezkero guztia eraikitzen ari baita eta urbanizatua baitago. Hirigintzarako lurzoruan, sektore bakarrean dago bizitegitarako hirigintza lur bihurtu daitekeena, Faustegoiena deritzona. Bertan badira libre utzitako eremuak, San Fausto auzoaren hegoaldera, topografia onuragarria dutenak eta bertan izaera intentsiboa luketen bizitegitarako eta merkataritzarako erabilpena egokia litzateke.
 - *Lurzoru industrialaren eskaintza* hirigintzarako erabili daitezkeen Eguzkitza II eta Eguzkitza III sektoreetara mugatzen da. Lehenak zatikako planeamendu onartua du eta hiru unitatetan dago banatua kudeaketarako egokituz, horietako batek urbanizazio eta birbanaketa proiektu onartuak ditu eta lanak enkantera jartzea besterik ez da falta. Arauek hirigintzarako erabili daitezkeen industria lurzoru gisa zehazten dute Eguzkitza III sektorea, 194.764 m² dituen. Sektore horretan Udalak bere jabetzako lur asko du, horrek industriarako lurzoruaren eskaintza babestea eragingo du, orain arte eskumen hori ez izateak azken urteetan halakorik izatea oztopatu baitu.
 - *Hirigintzarako erabili ezin daitezkeen lurzoru* oso mugatua da udalerrian, Mugarra aldera mendebaldean garatzen den eremua soilik dago, eta ia osorik basogintzarako erabiltzen da, jarduera pribatu edo publikorako.
- **Etxebizitza sozialen eskaria.** 2005ean 2.382 pertsonak eskatu zuten etxebizitza soziala. Eskatzaileen %70a 35 urtetik gorako pertsonak ziren. Azpimarratu behar dugu etxebizitza soziala eskatzen duten pertsonen gaitasun ekonomikoa urteko >9.000 eta ≤ 15.100 eta >15.100 eta ≤ 21.100 eurotako dela (eskatzaileen %64,9aren kasuan).

Mugikortasuna eta garraioa

- **Errepide sarea.** Durangoko eskualdea lau errepide ardatz garrantzisuk mugatzen dute. Horietako bi Euskadiko Oinarrizko Errepide Sarekoak dira: BI-623, Durango Vitoria-Gasteizekin lotzen duena eta BI-632, Elorriorekin lotzen duena; biak iparralde-hegoaldea norabidean. Hirugarren ardatza A-8 autopista da, iparraldera, ekialdetik hegoalderako norabidean doa eta Donostiarako norabidean paraleloan N-634a dago. Aipatutakoez gain, bada eskualdeko eta auzoarteko errepideen multzoa. Udalerriko sarearen

baitan, BI-3333 eta BI-4331 errepideek Durango Matienarekin eta Orozketa norabidearekin lotzen dute, hurrenez hurren.

- **Parke mugikorra.** Azpimarratu behar da Durangon dagoen automobil parke moderatua. 2005ean ibilgailu kopurua 11.582koa zen, ibilgailu kopuru honekin eta 26.900 biztanle izan da motorizazio indizea 1.000 biztanleko 430,5ekoa da.
- **Irisgarritasuna.** Durangok badu Irisgarritasun Plana

Ingurumen Sektoreak

URA

- **Ur hornikuntza eta kontsumoa.** Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak eskainitako datuen arabera, 2005ean Durangori 2.740.141 m³ ur eskaini zitzaizkion. Azken 3 urteetan txikitu egin da kontsumoa. Kontsumo altuena duen sektorea etxekoa da. Azkenik, ikus dezakegu hornitutako uraren %41,9a ez dela fakturatu.
- **Saneamendua.** Saneamendu sareak Durangoko biztanleriaren %93ari eskaintzen dio zerbitzua. Arriandiko arazketa estazioak 2004an 6.076.324 m³ tratatu zituen, horietako 3.432.413 m³ (%56,4) Durangotik jasotakoak ziren.

AKUSTIKAREN ETA ATMOSFERAREN KALITATEA

- **Atmosferaren kalitatea.** 2005ean Durangaldeako atmosferaren kutsadurari buruzko diagnostikoa osatu da. Diagnostikoaren helburua PM_{2,5}, PM₁₀ eta NO_x igorpenak baloratzea zen eta PM₁₀ eta NO_x kontzentrazioak aztertzea, eta baita denboraren poderioz zein aldaketa izan diren eta zein diren eskualdean PM₁₀ igorleak.
 - Emaitez erakusten dute industria dela partikulen (PM₁₀) igorle nagusia eskualdean. Gainontzeko bi sektoreekiko (garraioa eta bizitegi-zerbitzuak) aldea oso handia da. NO_x igorpenei dagokionez, garraioa da igorle nagusia eta atzetik du industria, izan ere, eskualdeak trafiko handia pairatzen du (A-8 autobidea, N-634 nazionala eta BI-623, BI-632, BI-635 eskualdekoak).
 - 1073/2002 ED-arekiko airearen kalitateaz egiten den baloraziotik (Errege Dekretu honen xedea da alerta muga suposatzen duten neurriak zehaztea honako kontzentrazioetan: sofre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa eta nitrogeno oxidoak, partikulak, beruna, bentzenoa eta karbono monoxidoa), diagnostikoaren emaitza da PM₁₀ partikulen kasuan araua ez dela betetzen, Zelaietako laginketa estazioan eta Durangon, igorpenek baimendutako balioa gainditzen baitute.

- **Akustikaren kalitatea.** Durangok ez du udalerriko akustikaren kalitatea ezagutzeko aukera emango lukeen hotsen maparik edo azterketa zehatzik. Hala ere, EAEko hotsen Mapak, Eusko Jaurlaritzako Lurraren Antolaketa eta Ingurumen Sailak egindakoak, udalerrian dauden hots foku nagusiak azaltzen ditu.
 - Errepide sarea: A-8 autobideak, N-634 errepideak eta BI-623 errepideak Durango eta Izurtza artean 70 dBA baino soinu maila altuagoa hartzen dute 10 metroko distantzian. BI-632 errepideak, berriz, Durango eta Abadiño artean 65 eta 70 dBA arteko soinu maila hartzen du.
 - Industria: EAEko hotsen mapan Durango akustika inpakturen bat duten gune industriadun udalerrien artean azaltzen da. Gainera, aipatzen da honako industriek gau partean soinu maila altuak sortzen dituztela: Fundiciones Funbarri, Brus Federal Mogul eta Formes (La Ferretera Vizcaína SA).
 - Trenbidea: Durangoren kasuan garraiobide honen eragina Eusko Trenek Donostia eta Bilbo artean duen lineari lotzen zaio. Linea horrek 55 eta 60 dBA arteko mailak sortzen ditu Amorebieta eta Durango artean, eta maila hori areagotu egiten da Durango eta Berriz artean 60 eta 65 dBAko arteko mailarekin.

ENERGIA

- **Energia kontsumoa.** IBERDROLA konpainiak emandako datuen arabera, 2000-2004 artean %6,3ko igoera ikus daiteke. Industria sektorea da Durangon energia elektriko gehien kontsumitzen duena (%42,8a), atzetik du bizitegitako erabilpena (%30,06).
- **Energia berriztagarriak.** Durangoko Udalak 2005eko apirilean Energiaren Euskal Erakundearen eta Udalaren arteko elkarlanerako Hitzarmen Markoa sinatu zuen energiaren erabilpen arrazionala bultzatzeko eta energia berriztagarriei etekina ateratzeko. EVE-EEEk eskainitako datuen arabera gaur egun udalerrian dauden energia berriztagarriko instalakuntzak hauek dira: energia eolikoko bi, 5 eguzkitiko energia fotovoltaiakoak eta 18 enpresek biomasaren bidez funtzionatzen dute.

LURZORUA

- **Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen inbentarioa.** IHOBek eskainitako "EAEko lurzoruko potentzialki kutsagarriak diren jarduerak dituzten eremuen inbentarioak" erakusten du udalerrian potentzialki kutsatuta dauden eremuak 13 direla eta 6,14 hektarea hartzen dituztela. 3 ekintza bideratu dira kutsatutako lurra berreskuratzen (ikerketakoak eta bat, berreskurapenera begira): Durangoko Zabortegia, Amilibia eta Berro SA.

HONDAKINAK

- **Hiriguneko hondakinen sorrera.** 2005ean Durangon biztanleko eta eguneko sortutako etxeko hondakinek 0,8 Kg /bizt./eguneko dira. Hondakinen sorreraren garapenak 1995 eta 2005 artean joera hazkorra erakusten digu.
- **Gaikako bilketa:**
 - *Ontziak.* Durangon edukiontzietan jasotako ontzi kilogramoak modu jarraituan hazi dira 1999-2005 urte aldian. 2005ean ontziak etxean sortutako hondakinen %2,4a osatu zuten.
 - *Papera / Kartoia.* 1995-2005 urte aldian hazi egin da edukiontzietan jasotako paper eta kartoi kilogramo kopurua. 2005ean etxean sortutako hondakinen %8,35a osatu zuten.
 - *Beira.* Urteak pasa ahala hazi egin da beira berreskurapen indizea. 2005ean etxean sortutako hondakinen %4,9a osatu zuen.

7.2. Ondorioak

10,79 km²-ko azalerarekin Ibaizabal ibaiaren ezker ertzeko eremu irekia harten du Durangok. Bere burua erdi mailako hiri gisa definitzen du eta hirugarren sektorerako, mugatutako eta aukeratutako industrializaziorako eta bizitegien osagaia indartzearen aldeko joera du. Gaur egun, eskualdeko hiriburua da, beraz, eskualdeko biztanleriari eskaintzen zaizkion zerbitzu asko bertan kokatzen dira.

2005ean 27.085 biztanle zituen, eskualdeko hiri biztanletsuena osatuz. Azken bi hamarkadetan biztanleriak izan duen garapenak erakusten digu hazkorra dela joera eta gaur egun arte mantendu dela joera hori gora egin dutelako jaiotzek eta etorkin kopuruak, immigrazioa barne mailakoa (eskualdeko beste herrietatik) eta kanpo mailakoa (Estatutik edo atzerriko herrialdeetatik) izan da. Zehazki, azken bost urteetan Durangon erroldatutako atzerriar biztanleria ia bost aldiz biderkatu da, gainera, asko hazi da udalerrian dauden naziotasunak. Beraz, azken urteetako hazkunde jarraituak asko igo du biztanle dentsitatea, beraz, urtez urte jende gehiago bizi da eremu berean (2001-2005 urte aldian biztanleriaren dentsitatea %34 igo da).

Hala ere, biztanleriaren hazkundeari eragiten dio biztanleriaren zahartze prozesuak. Modu horretan ikus dezakegu 19 urtetik beherako biztanleria txikitzen ari dela geldo baina modu jarraituan, bestalde, 64 urtetik gorako biztanleriaren pisu erlatiboa igo egiten da eta 20 eta 65 urte arteko biztanleria pixkanan pixkanaka haziz doa. Datu hauek erakusten dute zein garrantzia duen orain arte lanerako adina ez zutenen sektoreak, etorkizunean areagotuko den garrantzia. Aldi berean, azpimarratu behar da adinean aurrera egin ahala, emakumezko kopurua igo egiten dela gizonezkoenarekiko.

Udaleko zerbitzu sozialen eta laguntza zerbitzuen onuradun direnak aztertuta, behar gehien duten kolektiboak ezagutu ditzakegu. Gaur egun dauden laguntza eta zerbitzu ezberdinak aztertuta (Oinarrizko Errenda, Laguntza Zerbitzua, birgizarteratze hitzarmenak, telealarma...) ondorioztatzen dugu laguntza hauen onuradun gehienak emakumezkoak direla. Eta beraz, kolektibo hori dela txirotasunetik eratorriko arazoak gehien pairatzen dituenak.

Hezkuntza eta formakuntza, kapitala eta lanarekin batera, hazkunderako, enplegurako eta kohesio sozialerako ezinbesteko elementuak dira. Gaur egun, udalerriak formakuntza eskaintza osatua du, ugaria eta kalitatekoa. Biztanleen eskolaratze mailari begiratuta, Durangoko biztanleriaren maila orokorra Durangaldeakoa, Bizkaikoa eta EAEkoa baino altuxeagoa da; izan ere, alfabetatu gabeko eta ikasketarik gabeko biztanleriak garrantzia txikiagoa du eta bigarren eta goi mailako ikasketak dituztenek garrantzia handiagoa dute. Hala ere, genero ikuspegitik, esan dezakegu eskolaratze maila txikiak emakumezkoen artean nagusitzen direla (alfabetatu gabeko biztanleriaren %72,2a emakumezkoak dira),

nahiz eta, diplomaturak eta lizentziaturak dituzten emakumeak gizonak baino gehiago diren.

Euskararen garapena, euskal udalerri batean kontuan hartu beharreko beste faktore bat da. Durangoko biztanleriaren gehiengoa euskalduna dela ikus dezakegu eta alfabetatze maila haziz joan dela. Hala ere, errealtate hori kontrajarrita, etxean eta kalean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelera da.

Arlo ekonomikoan, XX. mendeko lehen urteetatik, Durangoko ekonomia industriara lotuta izan da, bertan sortu baitira udalerriaren garapenerako funtsezko jarduera izan duten enpresak. Enpresa hauek, batez ere, makina-erremintan eta burdinari lotutako jardueretan aritu ziren. Hala ere, azken mende herenean izandako industriaren eraldaketa eta krisiarekin, udalerriko ekonomia bestelako sektoreen aldeko bidean jarri da, adibidez, eskualdeko buru dela probestuta hirugarren sektorearen aldeko apustua eginez. Gaur egun, zerbitzuen sektorea da udalerriko sektore garrantzitsuen, baina oraindik industriaren garrantzia handia da.

Udaletik eta beste herri-erakunde batzuetatik zerbitzuetako hiri ertaina bultzatzen ari da. Nahiz eta oraindik industrian lan egiten duen pertsona kopurua handia den. Ondorioz, industria sektorearen ezaugarrien (auto-mozioarekiko menpekotasuna...) ondorioz, eta globalizazioaren fenomenoaren eta Ekialdeko herrialdeen konkorruntziaren ondorioz bigarren sektorea ez dago bere onenean. Jarduera hau bultzatu asmoz eskualdean egiten ari den hausnarketan parte hartzen ari da Durango.

Udalerriko ingurumen fisikoaren osaketa baldintzatu dute hainbat faktorek: industriak, azpiegiturek eta gizakiaren ekintza inguruan. Gaur egun, hirigintzarako erabilgarria ez den azalera oso txikia da, soilik, Mugarrara lotutako eremuak du paisaia eta natura interesa. Zonalde hau basogintzara mugatzen da, bai pribatua eta bai publikoa, eta bere kontserbazioa Urkiolako Parke Naturaleko zati izateak bermatzen du.

Udalerriko hirigintza garapenari dagokionez, gaur egun, udalerria oso mugatuta aurkitzen da, izan ere, udalerriaren inguruan errepide ardatzek, saihezbidearekin eta Tabira eta Montorretako errotondarekin batera udalerriaren hiriguneko jarduera mugatzen baitute. Hala ere, etxebizitzaren inguruan dagoen problematika da azpimarratu beharrekoa, izan ere, alokairuko etxebizitzaren merkatu murrizak eta hauen prezio altuek, eta noski, etxebizitza jabegoan hartzeko dauden gehienezko prezioak, sarbidea mugatzen dute. Egoeraren larritasuna arindu asmoz, arau subsidiario berrietan aurreikusitako eremuetan etxebizitza sozialak eraikitzea aurreikusten da. Hori gauzatzeko, etxebizitza guztien %30a gorde egin da BOEk eraikitzeko.

Udalerriko hirigintza erronka nagusienetako bat trena lurpera sartzea da. Proiektu honen bitartez trenaren bidaien ondorioz sortzen den muga arkitektonikoa eta hirigintzakoa gainditu nahi da. Proiektuan aurreikusten da lurpeko tren geltokia eraikitzea eta libre utzitako eremuan etxebizitza sozialak eraikitzea. Bestalde, hirigunean ez da ezinduentzako irisgarritasuna bermatzen.

Pertsonen eta merkantzien mugikortasun indize altuak gure gizartearen arazo nagusienetakoa dira, izan ere, norberaren ibilgailuarekiko menpekotasuna eta bere erabilpen masiboak akustikaren eta atmosferaren kutsadura eragitez gain azpiegitura gehiagoren beharra sortzen dute. Hirigunean sortutako pilaketa arindu asmoz, 2006ko otsailaren 15etik abian da TAO zerbitzua Durangon.

Ingurumenari dagokionez, udalerriaren ezaugarriak eremu honekin oso lotuta daudela aipatu behar da. Orain gutxi, udalerriko airearen kalitatearen inguruko diagnostikoa osatu da, bertan, industria eta zeharkatzen edo inguratzen duten azpiegiturak kutsaduraren sortzaile handienak bezala definitzen dira (A-8, BI-636, N-634...). Diagnostiko honen emaitza gisa, Durangoko Udala Airearen Kalitatea Hobetzeko Ekintza Plana osatzen ari da. Ekintza Plan hau hiru ardatz nagusitan osatzen da: industria, trafikoa eta obrak eta errepideen garbiketa. Akustikaren kalitateari dagokionez, hotsa ohikoan sortzen duten jarduerak industriak, herrilanak, establezimendu komertzialak eta ibilgailuen joan-etorria dira. Laster, udalerriko hotsen mapa burutzea aurreikusten da.

Energiaren kontsumoari dagokionez, ikus dezakegu azken urteetan haziz joan dela eta industria dela kontsumo sektore nagusia.

Hondakinen sorrerari dagokionez, garapenak hazteko joera nabarmena erakusten digu, aldi berean ikusten da berreskurapen indizeak jaitsi egiten direla beiraren eta ontzien bilketaren kasuan. Gainera, berreskurapen ratioak oso xumeak izaten jarraitzen dute sorrera ratioekin alderatuta.

Udalerriko iraunkortasunaren diagnostikoarekin batera, Durangaldeako Udaltalde 21 osatzen duten udalerrien artean kontsulta prozesua egin da, bertan, Durangoko biztanleek iraunkortasunaren problematikaz dituzten iritziak eta usteak jaso dira.

Eskualdean identifikatu daitezkeen problematiken inguruan daude bertako biztanleen artean ikusten diren kezkagai nagusiak. Modu honetan, etxebizitzarako sarbidea eta honen prezioa da arazo nagusia eta gakoa durangarrentzat, etxebizitzaren gain-baliotzeak familien zorpetzean eta gazteen emantzipazio gaitasunean eragin du.

Eremu soziala utzi gabe, gazteei kalitatezko zerbitzuak emateko beharra ikusten da. Orain gutxi, Gazte Planaren baitan herriko gazteen egoera aztertzeke diagnostikoa osatu da. Diagnostiko horretan ahultasun gisa zehazten da udalerriko gazteentzat dagoen aisialdi eta astialdi alternatiba eskaintza falta. Aldi berean, ikusten da gazteen aisialdia asteburutako gauetara mugatzen dela, neurri handian. Aldi berean, biztanleriaren artean kezka ageri da eskolako porrotaren inguruan.

Sozioekonomiari lotutako kontuetan, nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearekiko eta nekazaritza ekologikoarekiko kezka dago, kezka horri lotzen zaio sektorea ia desagertu egin dela udalerrian, izan ere, sektore horrek udalerriko ekonomian duen pisua ia

ezereza da. Bestalde, landa lurren azalera udalerrian oso mugatua dela ikus dezakegu, izan ere, azalera gehiena hirigintzarako erabili da.

Modu berean, udalerrian dagoen enplegu eskaintza eta honen izaera ere kezka-iturri da, izan ere, udalerriko enpleguaren ezaugarri dira prekarietatea eta aldibatekotasuna, horrek biztanleriaren ezinegona areagotzen du.

Ingurumenari dagokionez, mugikortasun iraunkorrari lotutako gaiak azpimarratu behar dira. Txirrindu bideen gabezia salatzen da eta baita norberaren autoaren gehiegizko erabilera. Aldi berean, udal ekipamenduetarako eta aisialdirako guneetarako irigarritasun neurri falta ikusten da. Inkestaren datuek erakusten dute joan-etorri gehien arrazoia lana dela eta gehienak oinez egiten direla. Beraz, udalerriaren orografiak bidegorrien eraikuntza lagunduko luke, eta aldi berean, txirrinduaren erabilerak hirigunean dagoen pilaketa eta barne mailako joan-etorrietan norberaren autoa erabiltzea mugatuko luke.

Durangeren artean, industriak sortzen duen kutsadurarekiko kezka ere ageri da. Industria aberastasun iturri gisa ikusten da, nahiz eta biztanleria kontziente den zer dakarren udalerrian industria izateak (lurraren okupazioa, atmosferaren eta akustikaren kutsadura, ibaira isurketak...), beraz, bermeak nahi dira sektore honen eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Gainera, bizitegitarako guneen hazkundeak etxebizitzaren eta industrien artean ia tarterik ez izatea ekarri du.

Ingurumen bektoreei dagokionez, azpimarratu behar da durangarrek euren hondakin gehienak maiztasunez birziklatzen dituztela (beira, plastikoa, papera eta baita pilak ere). Modu berean, inkestatuak izan diren pertsona gehienek diote oinez 15 minutu baino gutxiagora dituztela birziklapen edukiontziak. Galdekatuak izan diren ia pertsona guztiek esan dute euren ohiturak aldatzeko prest daudela eta gaikako birziklaketarako edukiontziak erabiliko dituztela. Hala ere, ikusten dugu azken urtean ontzien eta beiraren birziklapenak behera egin duela, hondakin sorrerak gora egin duen bitartean.

Azkenik, azpimarratu behar da galdekatuak izan direnetako asko ez daudela prest euren udalerriko garapen iraunkorrari dagokien bileretan parte hartzeko. Gainera, pertsona gehienek ez dakite euren udalerrian Tokiko Agenda 21 prozesua gauzatzen ari denik.

7.3. Interpretazioak

Interpretazioen azpiatal honi heldu asmoz azpimarratu nahi izan ditugu udalerrian detektatzen diren problematika edo egoera posibleak.

Durungaldeako eskualdeko izanik, Durango estrategikoki Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zentro-HE-an dago. Bere burua erdi mailako hiri gisa definitzen du eta hirugarren sektorerako, mugatutako eta aukeratutako industrializaziorako eta bizitegien osagaia indartzearen aldeko joera du. Gaur egun, eskualdean biztanle gehien dituen herria da eta bertako hiriburua da.

Arlo sozialean durangar gizartearen garapenean zuzenean eragiten duten bi fenomeno azpimarratzen ditugu: immigrazioa eta zahartze fenomenoak. Immigrazioari dagokionez, bi eremu dituela ikus dezakegu, batetik, eskualdeko herrietatik Durangora bizitzera joan diren pertsonen ari gara, bestetik, ikus dezakegu azken lau urteetan Estatutik eta beste herrialde batzutatik etorritako pertsona kopurua bost aldiz biderkatu dela, naziotasun ezberdinen presentzia areagotuz. Uste dugu funtsezkoa dela etorkinen elkarbizitzarako eta integrazioarako bultzada egotea hartzailea den gizartean. Baina, batez ere, migrazio mugimenduak onartzea eta dibertsitate kulturala aitortzea, izate historiko “ekidin ezina” direlako eta “bete beharrak” eragiten dituelako gizartearen aldetik. Integrazioa aldebiko prozesu gisa ikusi behar da, elkar moldatzea eta aitortzea modu dinamikoan ematea eskatzen duena. Guzti hori durangar gizartean zabaldu beharreko balioak direla uste dugu.

Modu berean, EAEn bezala, biztanleriaren zahartze fenomenoak ikusten da, alegia, zaharragoen garrantzia areagotzen ari da biztanleriaren egituraren bizitza esperantzaren igoeraren ondorioz. Eremu sozial eta ekonomiko guztietan eragina duen prozesua da. Beraz, lanerako adinean ez dauden pertsonen eskaintza duten potentziala handia da, izan ere, geroz eta gehiago dira formakuntza handia dutenak eta gizarteari asko emateko izan dezaketenak, beraz aukera bat izan daiteke hori. Modu berean, lanerako beste ildo bat pertsona hauei euren bizitza kalitatea hobetzeko balioko duten azpiegiturak eta laguntzak sozialak ematea da, txirotasunaren mugapera eror ez daitezen.

Eremu sozialean jarraituz, zerbitzu sozialak baliabiderik gabeko pertsona guztientzako dira, bazterkeria eta txirotasuna ekiditeko. Zehazki, ikus dezakegu babes sozialerako sistemaren onuradun gehienak emakumezkoak direla, horrek erakusten du emakumezkoak kaltetuenak direla, oraindik ez baita bermatzen berdintasun sozial eta ekonomikoa (lan prekarietatea, soldata bereizkeria...). Beraz, emakumearen botere hartzea indartu beharko litzateke eta defentsa eskaintzea lan prekarietatearen eta soldata bereizkeriaren aurrean, bere emantzipazioa lagunduz eta bizirauteko oinarritzko

maila bermatuz, familiarekin bateragarritasuna lagunduko duten politikak hartzea ere garrantzitsua izango da.

Eremu soziolinguistikoan, ikus dezakegu azken bi hamarkadetan hazi egin dela euskararen ezagutza eta alfabetatzea. Hala ere, kalean euskararen erabilera murrizten ari da. Kontuan izanik Durango euskararen zabalpenerako kultur zentroetako bat dela (Durangoko Liburu eta Disko Azoka...), uste dugu landu beharko litzatekeela hizkuntzaren belaunalditik belaunaldirako transmisioan.

Udaletik eta beste herri-erakundeetatik tamaina erdiko zerbitzu hiria indartzeko lanean ari da. Hala ere, oraindik industriaren garrantzia handia da udalerrian, eta baita inguruan ere eta bere garapenak udalerriaren garapena baldintzatzen du. Gainera, ikusten dugu eskualdean sortu den industriaren dibertsifikazioa txikia dela eta auto-mozioarekiko menpekotasuna dagoela. Honek kezka sortzen du, globalizazioaren fenomenoari eta Ekialdeko Herrialdeen konkurrentziaren eraginez ahultasuna gehitzen baitiote sektoreari. Bestalde, jarduera honek udalerrian sortzen duen ingurumen kaltea handia da, izan ere akustikaren eta atmosferaren kalitatean eragiten du eta baita luraren okupazioan eta honen kutsaduran ere. Aldi berean, ikusten dugu lurreta eta Durangok osatzen duten hirigunean enpresa asko daudela, beraz, udalerrri hauek trafiko handia pairatzen dute langileen joan-etorrien ondorioz. Gainera, bizitegien hazkundeak industrien eta etxebizitzaren artean zeuden barrera fisikoak ezerezean utzi ditu.

Ikusirik udalerriko biztanle askok industrian lan egiten duela, mantendu beharreko jarduera da, hala ere, bermatuz honek Durangoko pertsonen bizitza kalitatean eta ingurumenean duen eragin kaltegarria ahalik eta txikiena izatea. Aldi berean, eskualdean egiten ari den hausnarketa kontuan hartuz, bultzatu egin beharko lirateke berritzaileak eta ingurumen kalitaterako sistemak dituzten enpresak, eta bultzatu beharko litzateke enpresek ekoizpen garbia eragiten duten teknologiak erabiltzea eta laguntzak ematea energia berriztagarria darabilten enpresei.

Udalerriko hirigintza garapenari dagokionez, ikus dezakegu azken urteetan bizitegitarako eta hirigintzako zonaldeen hazkundea handia izan dela. Hala ere, etxebizitza gehiago egiteak ez du konpondu gai honetan dagoen arazoa, are gehiago, esan ahalko genuke etxebizitzarako sarbiderako zailtasunak areagotu dituela familia asko epe luzerako zorpetu direlako. Egoera horren aurrean, egokia deritzogu Udalak etxebizitza sozialak eraikitzeke egin duen planteamenduari.

Gainera, trena lurpean sartzeko proiektuak aukera ederra eskaintzen du, izan ere, hirigintzako barrera arkitektoniko baten deusezteka ekarriko du. Aldi berean, inpaktu akustikoari dagokionez murriztu egingo da eragina eta lurzorua libratuko da hirigintzarako zonalde egokia sortuz.

Ingurumen fisikoari dagokionez, gizakiaren jarduera intentsuaren ondorioz, Durangoren inguruan eraldaketa handiak pairatu ditu. Ikus dezakegu bizitegitarako eta

industriarako zonaldeek lur-eremu handiak hartu dituztela, gainera honi gehitu behar diogu udalerriaren bueltan dagoen azpiegitura multzo handia, eta hori dena eremu oso txikian. Ikus daiteke, gainera, udalerriko lurzoru gehiena hirigintzarako lurra dela, beraz, pentsa dezakegu izandako hiri hazkundera landa lurren kalterako izan dela, beraz, udalerrian dauden eremu berde bakanak babestu beharko liratekeela uste dugu.

Pertsonen eta merkantzien mugikortasuna administrazio ezberdinen arreta-gune izan behar dute. Iurreta-Durango hiri multzoak jende asko erakartzen du egunero arrazoi ezberdinengatik: enpresen eta lanpostuen kokapena, eskualdeko zerbitzuen pilaketa, daude komertzioak... beraz, Durangok norberaren autoa gehiegikeriaz erabiltzearen ondorioak pairatzen ditu: hirigunean aparkatzeko zailtasunak, erregaiaren kostua, sortzen den kutsadura eta hotsa... Beraz, Udalak autoaren erabilera murrizteko hirigunean ezarri duen TAO sistema ekimen baikorra izan dela uste dugu. Hala ere, ikusten dugu bidegorrien eraikuntzak eta txirrinduaren erabilpena bultzatzeak autoaren erabilera are gehiago murriztuko lukeela, barne mailako autoarekin egindako joan-etorriak murriztuko bailirateke.

Ingurumen bektoreei dagokionez, azpimarratzen dugu industriak atmosferaren eta akustikaren kutsaduran duen eragina. Horren eragina arintzeko neurriak aztertu beharko lirateke (landaredizko pantaila akustikoak, igorpen atmosferikoen inguruko kontrolak egin...). Orokorrean energiaren kontsumoaren hazkundera, eta zehazki industrian egiten den kontsumoaren hazkundera, energiaren erabilpen arrazionalago eta egokiagoa bultzatzeko neurriak hartu beharko liratekeela erakusten dute, baita energia berriztagarrien ezarpena eta hiritarren gai honekiko kontzientziazioa lantzea ere. Azkenik, ikusten da joera hazkorra duela hondakinen sorrerak. Oraindik sorrera bolumena altua da eta birziklapena murrizta da, beraz, beharrezkoa da jendea gure ohituren inguruan kontzientziaztea, izan ere, hondakinak gutxitzeko modurik eraginkorrena ez sortzea da.